

## BESTELAKO XEDAPENAK

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

3363

*EBAZPENA, 2024ko abenduaren 4koa, Ingurumen Jasangarritasunaren sailburuordearena, ingurumen-inpaktuaren adierazpena egiteko eta ingurumen-baimen bateratua emateko WPI Bilbao SL enpresak sustatzen duen hondakin solido plastikoak balorizatzeko instalazioari.*

### EGITEZKO AURREKARIAK

2023ko azaroaren 31n, WPI Bilbao SL enpresak ingurumen-baimen bateratua eta nahitaezkoa den ingurumen-inpaktuaren adierazpena eskatu zituen Zierbenan duen (Refragidas kalea 5L, Bilboko Portua, AZ-1 kaia, 48508 Zierbena, Bizkaia) hondakin solido plastikoak balorizatzeko instalazioaren proiekturako, bat etorritz Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legean eta abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuaren Legearen testu bateginean xedatutakoarekin. Eskaerarekin batera, dokumentazio tekniko hau aurkeztu zen:

- Administrazio-datuak.
- Planoak.
- Proiektu teknikoa eta ingurumen-inpaktuaren azterketa, ingurumen-baimen bateraturako eta ingurumen-inpaktuaren adierazpenerako.
- Laburpen ez-teknikoa.
- Txostena, jarduera hirigintzarekin bateragarria dela egiaztatzen duena, Zierbenako Udalak 2022ko azaroaren 21ean emana.
- Hondakin izateari uzteko eskaeraren memoria.
- Isilpeko datuak.

Aurkeztutako dokumentazioa nahikoa zela egiaztatu ondoren, Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariaren 2024ko martxoaren 13ko iragarkiaren bidez erabaki zen jendaurrean jartzea WPI Bilbao SL enpresak sustatutako proiektua 30 egun baliodunez, epe horren barruan egoki iritzitako alegazioak aurkezteko. Horretarako, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Eusko Jaurlaritzaren iragarkien taula elektronikokan argitaratu zen, 2024ko apirilaren 8an.

Jendaurrean jartzeko izapidea amaitu ondoren, alegaziorik ez dela aurkeztu egiaztatu zen.

Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen testu bateginaren 37., 38. eta 39. artikuluetan xedatutakoaren arabera, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzak txostenak eskatu zituzten Zierbenako Udalar, URA - Uraren Euskal Agentziari, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoari, Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritza Nagusiar, IHOBeri, Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzari, Bilboko Portu Agintaritzari, Ekologistak Martxan elkarteari, Eguzkizaleak elkarteari, Bizkaiko Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzari, eta Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzari.

2025eko uztailaren 31, osteguna

Hala, entitate hauen txostenak jaso ziren: Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzarena (2024ko apirilaren 24an), Ihoberena (2014ko maiatzaren 17an eta XX), Zierbenako Udalarena (2024ko maiatzaren 24an), Bizkaiko Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzarena (2024ko maiatzaren 29an), Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzarena (2024ko ekainaren 4an), Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoarena (2024ko uztailaren 2an eta uztailaren 22an) eta URA - Uraren Euskal Agentziarena (2024ko abuztuaren 1ean).

Abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 38. artikulua aplikatuz, 2024ko abuztuaren 29an, organo substantiboak aldez aurreko izapideetan jasotako txostenak igorri zizkion sustatzaileari, hala bazegokion, proiektuaren bertsio berria eta ingurumen-inpaktuaren azterketa idaztean kontuan izateko.

2024ko irailaren 4an, sustatzaileak idazki bat bidali zuen. Zioenez, ez zen beharrezkoa aurkeztutako proiektua eta ingurumen-inpaktuaren azterketa aldatzea, baina jasotako txostenetan adierazitako zenbait ohar kontuan hartu ziren.

2024ko abenduaren 3an, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 40. artikuluan xedatutakoa betez, WPI BILBAO SLren esku utzi zen espedientea, eta espedientean dago horren emaitza.

## ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Euskadiko Ingurumen Administrazioaren 10/2021 Legearen 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babesteko, kontserbatzeko eta hobetzeko arau-esparrua xedatzea.

Legeak ingurumenean eragina duten jardueren antolamendua arautzen du, ingurumena babesteko araudi sektorialean ezarritako prozedura administratiboak sinplifikatzeko eta bateratzeko premisapean. Hala, bertan xedatzen diren baldintzak eta eskakizunak jasotzen ditu, eta jarduerak garatzeko egon daitezkeen oztopo juridikoak eta administratiboak deuseztatzen ditu.

Era berean, 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak, abenduaren 16koak, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuaren Legearen testu bategina onartzen duenak, 1. artikuluan ezartzen duenaren arabera, lege horren xedea da airearen, uraren eta lurzoruaren kutsadura saihestea edo, besterik ezin bada, hura murriztea eta kontrolatzea, kutsaduraren prebentzio eta kontrol integraturako sistema bat ezarri, ingurumena, oro har, ahalik eta gehien babesteko.

Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuaren Legearen testu bateginaren 1. eranskinean jasota dauden jarduerak garatzen dira instalazioan; horietaz gainera, baimen honek barnean hartzen ditu aipatutako legearen aplikazio-eremuan sartzea ekarri zuten instalazioaren kokapenean garatzen diren jarduera guztiak, baita, eranskin horietan jasota ez egonik, jarduera horrekin lotura teknikoa dutenak eta sor daitezkeen emisioen eta kutsaduraren gainean ondorioak izan ditzaketenak ere.

Abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onartzen duen Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuaren Legearen testu bateginaren 9. artikuluan xedatutakoaren arabera, WPI Bilbao SL enpresak Zierbenan sustatzen duen hondakin solido plastikoak balorizatzeko proiektua Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen I. eranskineko 4.1.a) epigrafean sartzeko da, bai eta I.A eranskineko 4.1 apartatuan ere. Beraz, jarduera hori egin ahal izateko, ingurumen-baimen bateratua lortu behar du.

Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legean xedatutakoa aplikatuz, WPI Bilbao SL enpresak Zierbenan sustatutako hondakin solido plastikoak balorizatzeko proiektua Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen I. eranskineko 5a taldean eta II.D eranskineko 5a taldean jasota dago, eta, beraz, ingurumen-ebaluazio arruntaren prozedura bete behar du.

Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuaren Legearen testu bateginaren 11. artikuluan xedatuta dagoenaren arabera, baimen honen oinarritzko helburua da lege hau aplikatu behar duten instalazioei lege honen xedea betearazteko beharrezkoak diren baldintzak ezartzea, baimena ematerakoan esku hartu behar duten administrazio publiko guztien koordinazioa bermatzen duen prozedura baten bitartez, izapideak bizkortzeko eta partikularren zama administratiboak arintzeko, eta administrazioaren esku-hartze bakar batean batzea indarrean dagoen legerian jasotako ingurumen-baimen guztiak.

WPI Bilbao SLren kasuan, ingurumen-izaerako beste zehaztapenen artean, hondakinak sortu eta kudeatzeari, kolektorera isurtzeari, itsaso eta lehorraren arteko jabari publikora isurtzeari eta atmosferara eginiko emisioei dagozkien baimenak behar ditu. Gainera, espedientean beste administrazio eta organismo eskudun batzuek ere zegozkien txostenak eginez parte hartu dutela egiaztatu da.

Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuaren Legearen testu bateginaren 29. artikuluan xedatuaren arabera, ingurumen-baimen bateratua emateko prozedurak lehentasuna izango du administrazio eskudunek jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuak egiten dituzten herritarren jardueran esku hartzeko ezar dezaketen beste edozein bideren gainetik. Ondorio horietarako, ingurumen-baimen bateratua toki-agintarientzat loteslea izango da, baldin eta jarduerak egitea ukatzeko bada, edota zuzenketa-neurriak ezartzeko, baita 22. artikuluan jasotako ingurumen-alderdiei buruzko guztian ere.

Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 37. artikulua ezartzen du ingurumen-baimen bateratuaren prozedurak, izapide guztietan, jarduera sailkatuaren lizentziaren prozedura ordeztuko duela.

EAEko Ingurumen Administrazioaren 10/2021 Legearen 31. artikuluan xedatzen denari jarraikiz, baimen hori, nolahi ere, instalazioak eraiki, muntatu edo lekualdatu baino lehen eskuratu beharko da, eta instalazioetan egingo diren aldaketetara egokituko da.

Halaber, abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuaren Legearen testu bateginaren 11.4 artikuluan eta Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 14. artikuluan xedatutakoa aplikatzeko, autonomia-erkidegoek behar diren neurriak hartuko dituzte jarduketa hauek ingurumen-baimen bateratua emateko eta aldatzeko prozeduran sartzeko: ingurumen-inpaktua ebaluatzeko jarduketak, edo ingurumen-ebaluazioko beste figura batzuk, autonomia-erkidegoko araudian aurreikusitakoak, halakorik eska daitekeenean eta horretarako eskumena autonomia-erkidegoarena denean.

Era berean, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 43. artikuluko 4. apartatuaren arabera, ingurumen-baimen bateratuaren mendeko jarduera ingurumen-inpaktuaren ebaluazio arruntaren mende badago, ingurumen-inpaktuaren adierazpenaren berezko alderdiak jasoko ditu. Abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 78. artikuluan adierazten denez, ingurumen-inpaktuaren adierazpenak prozeduraren mugarri nagusien laburpena jasoko du, eta zehaztuko du, ingurumen-efektuei begira, proiektua egitea bidezkoa den ala ez, eta, hala badagokio, zer baldintzatan gara daitekeen. Besteak beste, hartu beharko diren babes-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak eta jarraipena egiteko neurriak jasoko ditu.

Abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 76.1 artikuluan ezarritakoa betez, ingurumen-inpaktuaren ebaluazio arrunta egingo zaie ingurumen-ebaluazioaren eremuan 5. taldean jasota dauden proiektuei:

D5 taldea. Industria kimikoa, petrokimikoa, ehungintza eta papergintza.

5.a) Eraldaketa kimiko edo biologikoaren bidez, produktu edo produktu multzo hauek eskala industrialean ekoizteko instalazioak:

1.– Produktu kimiko organikoak:

i) Hidrokarburo soilak (linealak edo ziklikoak, aseak edo asegabeak, alifatikoak edo aromatikokoak).

Era berean, abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 23.a) artikuluan xedatutakoa aplikatuz, ingurumen-inpaktuaren adierazpena egiteko eskumena Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-organoari dagokionean, eta jarduera ingurumen-baimen bateratuaren erregimenaren eraginpean dagoenean, ingurumen-baimen bateratuaren prozedura eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazio arruntaren prozedura bateratu egingo dira. Gainera, ingurumen-inpaktuaren adierazpenaren edukia ingurumen-baimen bateratuaren parte izango da, eta ekintza administratibo berean egingo dira bi adierazpen horiek.

Abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuaren Legearen testu bateginean adierazitakoari jarraikiz, ingurumen-organoak neurriak hartu ditu ingurumen-inpaktua ebaluatzeko jarduerak ingurumen-baimen bateratuaren prozeduran txertatzeko. Alde horretatik, aipatutako prozedura horren izapideetan, proiektuak ingurumenean izan ditzakeen eragin guztiak batera bildurik hartu dira kontuan, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioari buruzko araudiaren ikuspegitik, eta abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuaren Legearen testu bateginean jasotako ingurumen-preskripzioen ikuspegitik zehaztearren proiektuaren bideragarritasuna zenbaterainokoa den. Bateratze hori ikus daiteke, halaber, ingurumen-baimen bateratua emateko ebazpen-proposamenaren aurreko proiektuaren balioespen orokorrean. Ebazpen honetan ere sartuta dago ingurumen-inpaktua ebaluatzeko aipatutako prozesuaren emaitza. Horretarako, proiektuaren ingurumen-inpaktuaren adierazpena egiten du lehenengo apartatuan, aldeko irizpenarekin, eta aukeratutako kokapenean proiektua bideragarria dela adierazten du, ingurumen-ondorioei soilik erreparatuta; proiektua zer baldintzatan gauzatu behar den ere ezartzen du, eta baldintza horiek koherenteak dira abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuaren Legearen testu bategina aplikatuz proiektuari ezarriko zaizkion zuzenketa-neurriekin.

Azkenik, instalazioan jatorria izan lezaketan substantzia kutsagarrien emisioen muga-balioak zehazteko, bai eta instalazioaren beste ustiapen-baldintza batzuk ere, betiere ingurumena bere osoan ahalik eta gehien babesteko, ebazpen hau egitean kontuan izan dira teknika erabilgarri onenak, eta aplikatzekoa den sektoreko legeriak zehaztutako neurriak eta baldintzak. Zehazki, honako hauek kontuan hartu dira:

– Batzordearen 2017ko azaroaren 21eko 2017/2117 (EB) Betearazpen Erabakia, zeinaren bidez ezartzen baitira teknika erabilgarri onenei (TEO) buruzko ondorioak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2010/75/EB Zuzentarauari jarraikiz (ekoizpen bolumen handiko industria kimiko organikoari buruzko zuzentaraua).

– Batzordearen 2016ko maiatzaren 30eko 2016/902 (EB) Betearazpen Erabakia, sektore kimikoan hondakin-ur eta -gasen tratamendu- eta kudeaketa-sistema komunetarako teknika erabilgarri onenei (TEO) buruzko ondorioak ezartzen dituen, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2010/75/EB Zuzentarauari jarraikiz.

– Batzordearen 2022ko abenduaren 6ko 2022/2427 (EB) Betearazpen Erabakia, zeinaren bidez ezartzen baitira teknika erabilgarri onenei (TEO) buruzko ondorioak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2010/75/EB Zuzentarauaren esparruan (sektore kimikoko hondakin-urak eta -gasak tratatzeko eta kudeatzeko sistema komunetarako zuzentaraua).

Azaldu dugun guztia aintzat hartuta, espedientean jaso den informazioa aztertutakoan ebazpen-proposamena egin zen, eta bertan jaso ziren WPI Bilbao SLk sustatutako jarduerari aplikatu beharreko baldintzak.

Goian adierazitako izapideak aipatu dugunaren arabera amaituta, entzunaldi-izapidea bete da, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren 10/2021 Legearen 40. artikuluan jasotzen denari jarraikiz.

Hauekikusidira: sailburuordetzahonen 2024ko abenduaren 3ko Ebazpena; 10/2021 Legea, EAEko Ingurumen Administrazioarena, 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, Ingurumen-ebaluazioarena; 7/2022 Legea, apirilaren 8koa, Hondakinak eta lurzoru kutsatuak arautu eta ekonomia zirkularra bultzatzeko; 68/2021 Dekretua, otsailaren 23koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen; 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; eta oro har aplikatzekoak diren gainerako arauak. Horrenbestez, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ingurumen-inpaktuaren aldeko adierazpena egitea WPI Bilbao SL enpresak Zierbenan (Refragidas kalea 5L, Bilboko Portua, AZ-1 kaia, 48508 Zierbena, Bizkaia) sustatzen duen hondakin solido plastikoak balorizatzekeo proiektuarentzat, ebazpen honen eranskinetan ezarritako baldintzetan.

Bigarrena.– WPI Bilbao SLri (egoitza soziala: Izarraitz auzoa 511 - Behea 1, 20730 Azpeitia, Gipuzkoa; eta IFK: B67779686) ingurumen-inpaktuaren aldeko adierazpena ematea Zierbenan (Refragidas kalea 5L, Bilboko Portua, AZ-1 kaia, 48508 Zierbena, Bizkaia) duen hondakin solido plastikoak balorizatzekeo instalazioarentzat, ebazpen honen eranskinetan ezarritako baldintzetan.

Hirugarrena.– Proiektua gauzatzeko obrak hasteko, aurkeztutako dokumentazioan proposatutako babes-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriez gain, aurretiaz eduki beharko da lurzoru-kalitatearen adierazpena, kokagunea aurreikusitako erabilerarako egokia dela zehazten duena.

Laugarrena.– Ebazpen honen eranskinetan zehazten diren baldintzak eta betekizunak ezartzea WPI Bilbao SL enpresak Zierbenako udal-mugaratean (Bizkaia) sustatzen duen hondakin solido plastikoak balorizatzekeo instalazioa egokitzekeo obretarako, ustiapenerako eta jardunari uztekeo.

Bosgarrena.– AAI00445 erregistro-kodea eta 4820217074 ingurumeneko identifikazio-zenbakia (NIMA) esleitzea WPI Bilbao SL enpresak Zierbenan (Refragidas kalea 5L, Bilboko Portua, AZ-1 kaia, 48508 Zierbena, Bizkaia) ustiatzen duen instalazioari. Kokalekua: UTM (ETRS89) 30N, X: 495619.65, Y: 4800737.587.

Seigarrena.– Ingurumen-baimen bateratu honi lotutako baimen- eta inskripzio-kodeak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eskura jarritako aplikazio informatikoan agertzen direnak izango dira. Besteak beste, Hondakinaren Ekoizpen eta Kudeaketa Erregistroko baimen- eta inskripzio-kodeak erabili beharko dira hondakinak lekualdatzekeo dokumentuak betetzekeo.

Zazpigarrena.– Baimen honen eraginkortasuna eta baimendutako hondakin-kudeaketaren hasiera baldintzatutako ditu aurretiaz egiaztapenak. Ikuskatze-bisita egingo dute ingurumen-organo honi atxikitako zerbitzu teknikoek, instalazioak aurkeztutako proiektuaren eta ebazpen honetan

xedatutakoaren arabera eta Hondakinak eta lurzoru kutsatuak arautu eta ekonomia zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 33.7 artikuluan xedatutakoari jarraikiz eraiki eta hornitu direla egiaztatzeko.

Instalazioa ezingo da abiarazi ingurumen-baimen bateratuaren onespina izan arte. Hala ere, probaldian abiarazteko aldi bat baimenduko da, gehienez ere bost hilabetekoa. Probaldi horretan, besteak beste, zuzenketa-neurrien eraginkortasuna egiaztatuko da. Epe horretan, baimen honetako baldintza partikularren atalean ezarritako neurketak egingo dira, eta horien emaitzak organo honi igorriko zaizkio, lehen aipatutako ikuskatze-bisita horren aurretik.

Zortzigarrena.– Ingurumen-baimen bateratua eman zaion jarduera hasteko epea lau urtekoa da.

Bederatzigarrena.– WPI Bilbao SLri eskatzea erantzun bat eman diezaiela, adierazitako epean, gai hauei:

1.– Instalazioaren eraikuntza amaituta, instalazioak martxan jartzeko gaituta daudenean, eta, hala badagokio, lizentziak, baimenak, jakinarazpenak edo inskripzioak eduki beharko ditu dagozkion erregistro sektorialetan:

- Organo honi eta Udalari teknikari eskudun batek sinatutako ziurtagiria aurkeztea, baimenaren helburu den jarduketa motaren arabera, egiaztatuko duena instalazioak onartutako proiektura egokitzen direla eta bete direla ingurumen-baimen bateratuan ezarritako baldintzak.
- As built proiektua; emisio atmosferikoen fokuen datuak (altuera, diametroa eta koordenatuak) eta uretara isurtzeko puntuen koordenatuak sartu beharko dira.
- Erantzukizun zibileko aseguruua, ebazpen honetan ezartzen denarekin bat etorritz.
- Ingurumen-arriskuen analisia (IAA) eta, hala badagokio, ingurumen-erantzukizunari buruzko araudiko finantza-bermea eratu izanaren egiaztatzea.
- Lurzoruen txosten bakarra.
- Lurzoruen egoerari buruzko txostena, as built proiektuan oinarrituta.
- Oinarrizko txostena.
- Lurzoruen eta lurpeko uren kontrola eta jarraipena.
- Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak bere txostenean eskatutako eskakizunak aurkeztu izanaren justifikazioa.
- Ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina.
- Espero diren immisioen modelizazioa (indize akustiko hauen ebaluazioa: Lk,d, Lk,e eta Lk,n), zarata-fokuen emisio-datu errealetatik abiatuta, eta instalazioaren ebaluazio akustikoaren txostena, ezarritako gehieneko emisioen muga-balioak betetzen direla egiaztatzen duena.

Dokumentazio hori aurkeztutakoan, jarduketa martxan jarri ahal izango da. Nolanahi ere, administrazio publikoek beren eskumenen arloetan egiaztapen-, kontrol- eta ikuskapen-gaitasunak baliatu ahal izango dituzte.

2.– Jarduera hasi eta 6 hilabeteko epean:

- Tratamendu-kontratuak, sortzen diren hondakin arriskugabeen eta arriskutsuen kudeatzaile baimendu batek emandakoak.
- Ingurumen-lankidetzako erakundeak (ILE) emisio atmosferikoen fokuei buruz egindako txostena.

3.– Bilboko Portuko hutseko saneamendu-sarea martxan jartzen denean (2025eko abuztuan):

– Kolektorera isurtzeko baimena, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren Saneamenduari eta Arazketari buruzko Ordenantzak agintzen duen moduan.

4.– Pirolisi-olioa, nafta ekologikoa eta diesel ekologikoa produktu gisa lehenengoz isuri aurretik:

– Hondakin izateari uzteko baldintzak betetzen direla egiaztatzen duen informazioa, «Hondakinen Kudeaketa - Baldintza Partikularrak» eta «Hondakinen Kudeaketa - Baldintza Orokorrak» ataletan ezarritakoari jarraikiz.

Eskatutako dokumentazio hori guztia Nire Karpetatik aurkeztuko da, AAI00445\_SOL\_2023\_002 espedientearen barruan. Espediente hori itxita badago, dokumentazioa aurkezteko espediente bat irekiko da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eskura jarritako aplikazio informatikoaren bidez, eta adieraziko da aipatutako hasierako eskaera-espedienteari lotutako dokumentazioa dela.

Jakinarazpenak jasotako edo harekin batera aurkeztutako datuak, adierazpenak edo dokumentuak zehatzak ez badira, faltsututa badaude edo funtsezko zerbait agertzen ez bada, edo horrelakorik aurkezten ez bada, ezin izango da jarduera egiten jarraitu gertakari horien berri izaten den unetik, kasu horretan egon litezkeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboei kalterik egin gabe.

Hamargarrena.– Babes- eta zuzenketa-neurriak eta ingurumena zaintzeko programa aldatzeko aukera egongo da, bai eta neurtu behar diren parametroak, neurketen maiztasuna eta parametroen mugak ere, hala komeni bada araudi berriak indarrean jartzen direlako edo inplikaturako sistemen egitura eta funtzionamenduari buruzko ezagutza esanguratsu berrietara egokitze beharrik. Era berean, babes- eta zuzenketa-neurriak eta ingurumena zaintzeko programa aldatu egin daitezke jardueraren sustatzaileak hala eskatuta edo ofizioz, ingurumena zaintzeko programan lortutako emaitzetan oinarrituta.

Hamaikagarrena.– Instalazioetan edozer aldaketa egiteko, eskaera egin beharko da, edo horren berri eman beharko da, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-informazioko sisteman, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 30. eta 45. artikuluen ondoretarako (funtsezko aldaketak), artikulua horietan kasuan-kasuan eskatzen den informazioa adierazita.

Sustatzaileak aldaketa bat funtsezkoa ez dela justifikatzeko agirien kasuan, ingurumen-organoak eskatutako aldaketa aztertu eta kalifikatuko du, funtsezkoa dela edo ez ebazteko.

Egin beharreko aldaketen eskaerarekin edo jakinarazpenarekin batera, kasu bakoitzerako eskatutako informazioarekin batera, webgunean eskuragarri dagoen formularioa sartu behar da:

[https://www.euskadi.eus/contenidos/serv\\_proc\\_comunicacion/p\\_comu\\_20194\\_158\\_89\\_9329/procedures/proc\\_20194\\_158\\_89\\_9905/es\\_def/adjuntos/Formulario\\_modificaciones.docx](https://www.euskadi.eus/contenidos/serv_proc_comunicacion/p_comu_20194_158_89_9329/procedures/proc_20194_158_89_9905/es_def/adjuntos/Formulario_modificaciones.docx)

Era berean, proiektua aldatzen den kasuetan, aplikatzekoa izango da Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 7.1.c) eta 7.2.c) artikuluetan xedatutakoa.

Baldin eta aldaketak lurzoru berria okupatzea aurreikusten badu eta aipatutako lurzoruak lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak baditu edo izan baditu, aldaketa gauzatu aurretik, hartu beharreko kokalekuaren lurzoru-kalitatearen deklarazioa eduki beharko da, Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legean ezarritakoari jarraikiz.

Hamabigarrena.– WPI Bilbao SLk Administrazioarekiko harremanen goi-mailako tituludun arduradunari buruz emandako datuen edozein aldaketaren berri emango dio ingurumen-organo honi.

Hamahirugarrena.– Ingurumen-baimen bateratuaren indarraldia mugagabea da, eta Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-organoan aldian-aldian berrikusiko du, ingurumen-baimenen aurrerapen-klausulari jarraikiz.

Ingurumen-baimen bateratuaren berrikuspena ofizioz egingo da kasu hauetan:

- a) Instalazioak eragindako kutsaduraren ondorioz ezarritako emisioen muga-balioak berrikustea edo berriak hartzea komeni denean.
- b) Isurketak nabarmen murriztu daitezkeenean, teknika erabilgarri onenetan egindako aldaketa handien ondorioz gehiegizko kosturik izan gabe.
- c) Arroko organismoak, urei buruzko legedian xedatutakoaren arabera, uste badu ingurumen-baimen bateratua berrikustea edo aldatzea justifikatzen duten inguruabarrak daudela, Estatuko Administrazio Orokorrak kudeaturiko arroetako jabari publiko hidraulikora egindako isurketei dagokienez. Kasu horretan, arroko organismoak, txosten lotesle bidez, organo eskudunera joko du ingurumen-baimen bateratua eman dezan, gehienez ere hogeit eguneko epean hasteko aldaketa-prozesua.
- d) Prozesuaren edo jarduketaren funtzionamenduaren segurtasunagatik beste teknika batzuk erabili behar direnean.
- e) Instalazioari aplikagarri zaion sektoreko legediak hala eskatzen badu, edo abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuaren Legearen testu bateginaren 22.3 artikuluari jarraikiz, ingurumen-kalitateko arau berriak edo berrikusiak betetzea beharrezkoa bada.
- f) Teknika erabilgarri onenak erabiliz lor litezkeenak baino baldintza osagarri zorrotzagoak aplikatzea beharrezkoa denean, ingurumen-kalitateko arauak beteko badira.
- g) Aplikatu beharreko araudi berria indarrean jartzen denean.
- h) Ingurunearen egitura eta funtzionamenduari buruzko ezagutza esanguratsu berrietara egokitzeko beharra ikusten denean, bereziki inplikaturako sistemen hauskortasuna areagotzen dela antzematen bada.
- i) Ingurumena zaintzeko programan jasotako emaitzen edo bestelako oharren arabera, ingurumen-inpakturako ezarritako babes-, zuzenketa- edo konpentsazio-neurriak aski ez direla egiaztatzen bada.
- j) Aldaketa beharrezkoa denean, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 44. artikuluko 1. apartatua ezarritakoari jarraikiz egindako azterketaren arabera.

Ingurumen-baimen bateratua berrikusteak ez du kalte-ordainerako eskubiderik ekarriko, EAEko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 44.5 artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

Hamalagarrena.– Euskadiko Ingurumen Administrazioaren 10/2021 Legearen 28.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, WPI Bilbao SLk ebazpen honen xede den hondakin solido plastikoak balorizatzekeo jardueran gerta litekeen titulartasun-aldaketa oro jakinarazi beharko dio ingurumen-organo honi, azken horrek onar dezan.

Hamabosgarrena.– Baimen honek balioa galduko du honelakoren bat gertatuz gero:

- Epean ez bada egiaztatzen ebazpen honen zortzigarren apartatuan ezarritako baldintzak betetzen direla, non eta interesdunak ez duen behar bezala justifikatuz epea luzatzeko eskatzen.
- Lau urteko epean ez bada abiarazten ebazpen honen zortzigarren apartatuan baimentzen den jarduera, non eta interesdunak ez duen behar bezala justifikatuz epea luzatzeko eskatzen.
- WPI Bilbao SL enpresaren nortasun juridikoa iraungitzea, indarrean dauden arauak aurreikusitako kasuetan.

Hamaseigarrena.– Ingurumen-baimen bateratu honetan ezarritako baldintzak ez betetzea arau-hauste astun gisa tipifikatuta dago Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 106. artikuluari jarraituz, eta lege horren 108. artikuluan jasotako zigorrak ezartzea ekar dezake.

Hamazazpigarrena.– Ebazpen honen edukiaren berri ematea WPI Bilbao SLri, Zierbenako Udalari, ingurumen-baimen bateratua emateko prozeduran parte hartu duten organismoei eta gainerako interesdunei.

Hemezortzigarrena.– Ingurumen-baimen bateratu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

Errekurtsoak:

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beronen aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkez dakioke Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko sailburuari, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoari jarraikiz.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko abenduaren 4a.

Ingurumen Jasangarritasunaren sailburuordea,  
JOSU BILBAO BEGOÑA.

## JARDUERA DESKRIBATZEKO ERANSKINA

## ATALA: JARDUERA

## JARDUERAREN DESKRIBAPENA

Jarduera jasota dago Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 I.A eranskineko eta abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuaren Legearen testu bateginaren I. eranskineko kategoria honetan:

«4.1 Produktu kimiko organikoak fabrikatzeko instalazio kimikoak, zehazki:

a) Hidrokarbuero sinpleak (linealak edo ziklikoak, aseak edo asegabeak, alifatikoak edo aromatikokoak)».

Enpresak 3,54 hektareako azalera du Zierbenako Refragidas kaleko 5L zenbakian (Bilboko Portua, AZ-1 kaia, 48508, Bizkaia).

WPI Bilbao SLren instalazioetan garatzen den jardueraren bidez hainbat jatorritako hondakin arriskugabeak balorizatzen dira, batik bat plastikoak, hondakin solido horien materia eta energia berreskuratzeke helburuarekin. Zehazki, honako hauek lortu nahi dira:

– Aurretratamendu mekanikoan/sailkapenean sortutako plastikoaren errefus-frakzioetatik, birziklatze-balio erantsi handiko errefus metalikoez eta PETaz gain: berreskuratutako erregai solidoa (BES).

– Zati likidotik: pirolisi-olioa. Industria petrokimikoko prozesu kimikoetarako eta *blending*-prozesuetarako (destilatu ondoren) erabil daitekeen sintesi-gas kondentsatua.

– Zati solidotik: pirolisi-kokea edo *char* deitua; kanpoan erregai gisa balorizatu daiteke.

– Gasaren frakziotik: sintesi-gasa edo *syngasa*; garatu behar den balorizazio-sistema berotzeko erabiltzen da.

Hondakin arriskugabeak kudeatzeko jarduera kudeaketa-eragiketa hauei dagokie:

R 3 (disolbatzaile gisa erabiltzen ez diren substantzia organikoak birziklatzea edo berreskuratzea).

R 12 (hondakinak trukitzea, R1etik R11ra bitartean zerrendatutako edozein eragiketatan erabiltzeko).

R 13 (R 1etik R 12ra zerrendatutako edozein eragiketaren ondorioz sortutako hondakinak biltegitratzea).

Urtean 200.000 t hondakin plastiko tratatzeko gaitasuna du; beraz, pirolisi bidezko tratamendu termikorako gaituta egoteagatik hautatutako 118.098 t/urte hondakin solido plastiko inguru lortzea aurreikusten da Prozesuaren amaieran, naftaren antzeko egitura molekularreko 17.943 t/urte hidrokarbuero lortuko dira, eta dieselaren antzeko egitura duten 57.942 t/urte hidrokarbuero (destilazio-zutabeen buruko eta alboko irteeretako frakzio arinen eta ertainen nahasketak oinarritzat hartuta).

Instalazioa urteko egun guztietan egongo da martxan, mantentze-lanetarako gelditu behar den egunetan izan ezik. Hondakinak jasotzeko eta sailkatzeko eremuak bakarrik arituko dira egunez, egunean 16 orduz eta astean 5 egunez.

Ekoizpen-prozesu hauek egiten dira:

– Jasotzea eta biltegitzea: hondakinak bildu eta sailkatuko dira, pirolisi-prozesurako egokiak diren plastikoak (HDPE, LDPE, PP eta PS) eta egokiak ez direnak (PVC, PES, organikoak eta beste konposatu plastiko batzuk) bereizteko, baita birziklatze-prozesuetan balio erantsi handia dutenak ere (PET, metal ferrikoak, aluminioa, etab.). Sailkapen hori egiteko bereizgailu magnetikoak, indukzio-bereizgailuak, bereizgailu optikoak eta bahegailuak, bereizgailu dentsimetrikoak eta birringailuak erabiliko dira. Hondakina fardotan bilduta edo soltean jasoko da, eta karakterizatzeko eta aurrez onartzeko prozedura bat ezarriko da hondakinak instalazioko balorizazio-prozesuan sartzeko (hala ere, hondakin lote bakoitzak jatorrian eta bidali aurretik egindako karakterizazio-analisi bat izan behar du). Hondakinak onartzeko prozesuan, hauek egingo dira: erradioaktibitatea detektatzea, soltean jasotako hondakinak pisatzea, fardoak kontabilizatzea, begizko ikuskapenak egin, hondakin-deskargen aldi behingo laginketak egitea eta funtsezko ezaugarri/substantzien analisiak egitea.

– Sailkapena eta lehortzea: hondakinak sailkatu ondoren, plastikoa lau espaziotan bereiziko da (HDPE, LDPE, PP eta PS) bunker orokor baten barruan, eta siloetara eramango da (bat plastiko mota bakoitzeko). Hortik, korrante bakoitza bi banda-lehortegitara bidaliko da, eta horietan hondakina lehortuko da, hezetasuna % 26tik % 8ra murriztu dadin.

– Hondakin solido plastikoen pirolisia: lehortze-sekziotik datorren plastikoa aglomeratzaile batzuetara bideratuko da (4,1 t/h-ko ahalmena duten lau aglomeratzaile aurreikusten dira, eta ahalmen bereko beste bi aglomeratzaile erreserban) produktuaren dentsitatea handitzeko eta partikulak homogeneizatzeko. Hortik, hondakina martxan egongo diren 4 pirolisi-labe birakarietako batera igaroko da; horietako bakoitzak 4,1 t/h-ko emari izendatua izango du, eta 450 – 640 °C-ra artean egongo dira. Labeek geldotze-sistema bat izango dute oxigenorik ez sartzeko. Labeetatik irteten den sintesi-gasa olio termikoa erabiltzen duen hozte- eta kondentsazio-sistema batera bidaliko da; bestetik, errauts/ikatz hutsaren nahasketa jaso egingo da, biltegitatzeko.

– Syngasaren kondentsazioa: pirolisi-labetik datorren syngasa etapa baten bidez hoztu eta kondentsatuko da. Kondentsatu hori dekantagailu batera bidaliko da, eta, bertan, kondentsatu organikoa eta ura bereiziko dira. Dekantazio-depositutik, kondentsatu organikoa destilazio-unitatea elikatu aurreko tarteko andeletara ponpatuko da (salmentara ere bidal daiteke zuzenean, produktuak biltegitatzeko parkeko tangetako batera bidali ondoren); bestalde, ura efluenteak tratatzeko sistemara bidaliko da. Kondentsatu ezin daitekeen syngasaren zatia haizagailu batek xurgatuko du, eta haizagailuak errekontza-ganberetaraino bultzatuko ditu gas horiek. Errekontza-ganberak termikoki oxidatuko dute kondentsagarria ez den syngasaren zatia, 1.100 °C-ko tenperaturan. Errekontza-gasen irteera energia-iturri gisa erabili ahal izango da dagokion pirolisi-labea berotzeko, kanpoko ator edo mufla baten bidez.

– Kondentsatuen destilazioa: syngas kondentsatua bi destilazio-zutabeetara ponpatuko da, irakite-puntu bidez bereizteko. Horrela, frakzio hauek lortuko dira horietako bakoitzean:

- Zutabe-burutik hidrokarbuo arin bat aterako da. Produktu hori tarteko tanga batean biltegitatuko da, gero *blending*-prozesuetarako banatzeko.

- Zutabearen alboko irteeratik batez besteko pisu molekularra duen hidrokarbuo aterako da. Produktu hori tarteko tangetan biltegitatuko da, gero instalaziotik kanpo banatzeko eta *blending*-prozesuetarako.

- Zutabearen beheko irteeratik hidrokarbuo-frakzio astuna aterako da. Produktu hori tarteko tangetan biltegitatuko da, gero barne-erregai gisa erabiltzeko olio termikoko galdaretan. Olio termiko beroa energia-iturri gisa erabiliko da, destilazio-zutabeak berotzeko.

– Biltegitratzea eta kanpora bidaltzea: tanga-parkeak tarteko eta amaierako tangak (produktuarenak) izango ditu destilatutako edo destilatu gabeko produktuak biltegitratzeko; ponpa-sektorea ere izango du, itsasontzietara eta kamioietara bidaltzeko eta *blendingak* egiteko, instalazioaren premien arabera. Tarteko tangak erabiliko dira helburuko hidrokarburo-nahasketa lortzeko, bezeroak eskatutako zehaztapenen arabera. Tanga bakoitzak birzirkulazio-lerro bat izango du, biltegitratutako bolumen osoa homogenea izan dadin.

Instalazioan erabiltzen diren lehengaiak plastiko arriskugabeen nahasketak dira; horien EHZ kodeak «Hondakinen Kudeaketa – Baldintza Partikularrak» atalean zerrendatutakoak dira.

Oro har, prozesurako behar den energia ganbera hauek hornituko dute: syngas ez-kondentsagarriaren bi errekontza-ganberak, pirolisi-prozesuari beroa hornitzeko; olio termikoko bi galdarek, destilazio-zutabearen hondoa erretzeko eta syngas kondentsatuaren destilazio-prozesuari energia hornitzeko.

Gainera, prozesuaren energia-aprobetxamendurako, errekontza-gasetako beroa berreskuratzeko bi galdara egongo dira. Horietan lurrin gainberotua sortuko da, eta lurrin hori lurrin-turbina batean erabiliko da energia elektrikoa sortzeko; hark 5,3 MW elektrikoa arte sortu ahal izango ditu, instalazioaren zatirik handiena hornitzeko.

Bestetik, sarearen batez besteko kontsumo elektrikoa 25.000 Mwh/urte ingurukoa izango dela balioesten da. Gas naturala kontsumituko da, halaber, errekontza-ganberetarako (pirolisi-eremuan), olio termikoko galdaretarako (destilazio-zutabeak berotzeko), oxidagailu termikorako eta aire bidez lehertzeko erregailu osagarriak. Abiatze-gailurretan 2.000 Nm<sup>3</sup>/h-koa da kontsumoa, eta 275 Nm<sup>3</sup>/h-koa, batez beste. Hala ere, prozesuko irteera-korrante batzuk aprobetxatuko dira, eta horiek erregai gaseoso edo likido gisa erabiliko da.

Instalazioetan kontsumitutako ura sareko ur-harpenetik dator, eta gehienbat hauetan kontsumitzen da: ura desmineralizatzeko unitateak, eraikinak, iragazki biologikoa, hozteko urak (purgatze-ura eta lurrundutako ura birjartzeko) eta suteen aurkako urak. Ur-kontsumoa 230.388 m<sup>3</sup>/urte ingurukoa izango da.

Sortutako efluenteak honako hauekin osatuta daude:

– Ur beltzak: komunetan, aldageletan eta jantokian sortzen dira. Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren saneamendu-sarera konektatuko dira zuzenean.

– Biltegitratze-eremuetako eta iragazki biologietako lixibiatuak: lixibiatuak fardoak biltegitratzeko eremu estalian, solteko lehengaien eremuan eta errefusaren eremuan sortzen dira batez ere. Lixibiatu guztiak hobi edo eremu bakoitzeko drainatze-sareen bidez bilduko dira; horietako bakoitzean kutxatila itsuak jarriko dira horiek ateratzeko eta kudeatzaile baimendura bidaltzeko.

– Garbiketako efluenteak: banda-lehortegiak eta sailkapen-eremua garbitzean sortutako efluenteak dira. Iragazketa- eta dekantazio-sistema batean tratatuko dira, homogenezazio-putzura bidaltzeko, eta handik Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren bulkatze-kutxatilara isuriko dira.

– Prozesuko efluenteak (2 korrontetan multzokatuko dira):

- Hidrokarburoak dituzten urak: ura eta syngas kondentsatua bereiztean sortzen dira, kondentsadoretik igaro ondoren, eta izaera jarraitua dute; eta garbiketako urak, pirolisi-eremuan (etenak izango dira). Efluente horiek hidrokarburoen bereizgailuan tratatuko dira, eta homogenezazio-putzura bidaliko dira. Gainera, bertan pH-a erregulatzen da.

- Galdarak drainatzea eta galdarak elikatzeke uraren desmineralizazio-tratamenduaren errefusa. Efluente horiek homogeneizazio-putzura bideratuko dira; pH-aren erregulazioa barne hartzen du.

Prozesuko efluente horiek Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren huts-estaziora bidaltzen dira.

– Hozte-dorrea purgatzearekin lotuta dauden efluenteak: Zirkuitu itxiko hozte-prozesuak —hozte-dorreen bidez— ur-ekarpena behar du lurrundutako ura eta purgetako ura birjartzeko. Birzirkulazio-uraren kantidadegokia mantentzeko ezinbestekoa da gehigarriak jartzea. Hala ere, dorreetan ur asko lurruntzen denez, zirkuituko ura kontzentratu egiten da, eta, beraz, birzirkulazio batzuen ondoren purgatu egin behar da. Purgatutako ur hori kontrol-kutxatila batera bidaliko da, kutsatuta egon litezkeen eta dagoeneko tratatuta dauden euri-urekin eta euri-ur garbiekin batera isuri aurretik. Baterako isurketa hori Bilboko itsasadarrera bideratuko da.

– Kutsatuta egon daitezkeen euri-urak: modu etenean sortzen dira hidrokarburoak izan ditzaketen euri-urak biltzeko eremuetan, hala nola bideetan, destilatze-eremuan, ontzietan, pirolisi-eremuan, diesela kargatzeko eremuan eta harrera-eremuan. Ur horiek hidrokarburoen bereizgailu batean tratatzen dira Bilboko itsasadarrera hozte-dorreen purgatutako urekin eta euri-ur garbiekin batera isuri aurretik.

– Euri-ur garbiak: euri-ur garbiak drainatzeko sare bat dago urak bildu eta grabitate bidez bideratzeko, kutxatilen, tarteko putzuen eta urak husteko sareek izaten dituzten gainerako osagarrien sistema baten bidez, portuko euri-uren sarera husteko helburuarekin. Honako hauek dira efluente horiek sortzen diren eremu identifikatuak: sarrerako eta irteerako etxolak, aparkalekuak, administrazio-erakina, mantentze-erakina eta hondakin arriskutsuen biltegia, galdaren eta gas-tratamenduaren eremua, kontrol-eremua, suteen aurkako eremua, sailkatze- eta lehortze-eremua, ura tratatzeko eta biltegitratzeko eremua, eta lehortegiak. Euri-ur garbiak Bilboko itsasadarrera isurtzen dira, kutsatuta egon daitezkeen euri-urekin eta hozte-dorreen purgatutako urekin batera.

Instalazioetan sortutako efluente guztietatik, hozte-dorreen purgatutako urak eta kutsatuta egon daitezkeen euri-urak bakarrik isuriko dira itsaso eta lehorraren arteko jabari publikora. Euri-ur garbiak aipatutako efluenteak bideratzen diren hoditeria beretik hustuko dira, baina kontrol-puntuaren ondoren gehituko dira.

Atmosferarako emisioen 8 foku daude, hauetatik datozenak:

– Olio termikoa erretzeko ganberak (1. fokua eta 2. fokua) (Errekuntza-ganberak 13 MW-ekoak dira, eta olio termikoaren galdara, berriz, 3,85 MW-ekoa).

– Errauts-siloak (3. fokua eta 4. fokua).

– Koke-siloak (5. fokua eta 6. fokua).

– Iragazki biologikoak (7. fokua).

– Oxidagailu termikoa (8. fokua).

Foku guztiak bideratuak eta sistematikoak dira, 8. fokua izan ezik. Foku hori ez da sistematikoa, oso kasu puntualetan bakarrik erabiliko baita, instalazioan akatsak edo arazoak gertatzen direnean; bertan, pirolisi-labeetatik datozen gasak edo kondentsatu gabeko gas hidrokarburoak tratatu ahal izango dira.

Instalazioan erreferentziako dokumentu hauetan jasotzen diren teknika erabilgarri onenak ezarriko dira:

– Batzordearen 2017ko azaroaren 21eko 2017/2117 (EB) Betearazpen Erabakia, zeinaren bidez ezartzen baitira teknika erabilgarri onenei (TEO) buruzko ondorioak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2010/75/EB Zuzentarauari jarraikiz (ekoizpen bolumen handiko industria kimiko organikoari buruzko zuzentaraua).

– Batzordearen 2016ko maiatzaren 30eko 2016/902 (EB) Betearazpen Erabakia, sektore kimikoan hondakin-ur eta -gasen tratamendu- eta kudeaketa-sistema komunetarako teknika erabilgarri onenei (TEO) buruzko ondorioak ezartzen dituena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2010/75/EB Zuzentarauari jarraikiz.

– Batzordearen 2022ko abenduaren 6ko 2022/2427 (EB) Betearazpen Erabakia, zeinaren bidez ezartzen baitira teknika erabilgarri onenei (TEO) buruzko ondorioak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2010/75/EB Zuzentarauaren esparruan (sektore kimikoko hondakin-urak eta -gasak tratatzeko eta kudeatzeko sistema komunetarako zuzentaraua).

## ERANSKINA, USTIAPENERAKO ETA JARDUTEARI UZTEKO BALDINTZA PARTIKULARRENA

Sustatzaileak ustiapenerako eta jarduteari uzteko bete beharko dituen baldintzak eta betekizunak eranskin honetan eta ustiapenerako eta IPPC jarduerak egiteari uzteko baldintza orokorren eranskinean jasotakoak izango dira. Nolanahi ere, baldintza partikularrak gailenduko zaizkie baldintza orokorrei.

## ATALA: OBRAK – BALDINTZA PARTIKULARRAK

## JARDUERA EZARTZEKO EGOKITZAPEN-OBRETARAKO BALDINTZAK ETA BETEKIZUNAK

– OBRAK – Baldintza Orokorrak betetzea.

Organo honek obrak egiteko (Obrak – Baldintza Orokorrak) onartzen dituen jarduketak, ingurumen-baimen bateratua dutenak, ustiatzeko eta jarduteari uzteko baldintza orokorrak beteko dira.

## ATALA: HONDAKINEN KUDEAKETA – BALDINTZA PARTIKULARRAK

## JARDUERAN HONDAKINAK KUDEATZEKO BALDINTZAK ETA BETEKIZUNAK

– Hondakinen Kudeaketa – Baldintza Orokorrak betetzea.

Organo honek hondakinak kudeatzeko (Hondakinen Kudeaketa – Baldintza Orokorrak) onartzen dituen jarduketak, ingurumen-baimen bateratua dutenak, ustiatzeko eta jarduteari uzteko baldintza orokorrak beteko dira.

– Hondakin onargarriak eta kudeaketa-eragiketa.

WPI Bilbao SL enpresak Europako Hondakinen Zerrendan (EHZ) kode hauek dituzten hondakinak kudeatu ahal izango ditu. Hortaz, hondakin hauek baino ez dira onartuko:

EHZ kodea	Hondakinaren deskribapena
02 01 04	Nekazaritza, baratzezaintza, akuikultura, basogintza, ehiza eta arrantzan sortutako plastiko-hondakinak, bilgarriak izan ezik.
07 02 13	Plastikoak, kautxu sintetikoak eta zuntz artifizialak fabrikatzean, formulatzean, banatzean eta erabiltzean sortutako plastiko-hondakinak.
12 01 05	Metalak eta plastikoak moldekatzean eta horien gainazalen tratamendu fisiko eta mekanikoa egitean sortutako hondakinen plastikozko txirbilak eta bizarrak.
15 01 02	Plastikozko ontziak, udalek gaika bildutako ontzien hondakinak barne.
16 01 19	Bizitza baliagarriaren bukaeran dauden hainbat garraiobidetako ibilgailuetako plastikoa (errepideetakoak ez diren makinak barne), eta bizitza baliagarriaren bukaeran dauden ibilgailuak desegitean eta ibilgailuen mantentze-lanetan sortutako hondakinak.
17 02 03	Eraikuntzako eta eraispeneko hondakinetako plastikoa.
19 12 04	Hondakinen tratamendu mekanikoan sortutako plastikoa eta kautxua.
19 12 10	Hondakin erregaia, hondakinetatik ateratako erregaia, hondakinen tratamendu kimikoan sortzen dena.
19 12 12	Hondakinen tratamendu mekanikoan sortutako bestelako hondakinak, materialen nahasketak barne.
20 01 19	Gaika jasotako frakzioetako plastikoak.

Jasotako hondakinek ez dute izango inolako arriskugarritasun-ezaugarririk.

Jarduera kudeatzeko eragiketek kode hauek dituzte:

R 3 (disolbatzaile gisa erabiltzen ez diren substantzia organikoak birziklatzea edo berreskuratzea).

– R0306: Hondakin organikoak gasifikazioaren, pirolisiaren eta antzeko beste teknologia batzuen bidez birziklatzea, baldin eta lortutako konposatuak elementu kimiko gisa erabiltzen badira gerora beste substantzia batzuk ekoizteko prozesu batean. Ez da sartzen erregaiak lortzea (gasifikazio- edo pirolisi-instalazioak, baldin eta lortutako elementu kimikoak gero substantzia berriak sortzeko prozesu batean erabiltzen badira, erregaiak sortzeko izan ezik).

– R0308: Hondakin organikoen balorizazioa, R030319 kodekoak ez diren eragiketetan frakzio erregaiak lortzeko (gasifikazio- eta pirolisi-instalazioak eta R0303 kodean adierazitakoez aparte beste edozein teknologia erabilgarri, baldin eta lortutako konposatuak gero elementu kimiko gisa erabiltzen badira erregaiak sortzeko beste prozesu batean).

R 12 (hondakinak trukatzera, R1etik R11ra bitartean zerrendatutako edozein eragiketatan erabiltzeko).

– R1201: Hondakinen sailkapena (hondakinak sailkatzeko instalazioak: bilgarriak, txatarra, plastikoak, etab.).

– R1208: Hondakinak egokitzea, frakzio erregaiak lortzeko (HEE).

– R1209: Hondakinen egokitzapen fisiko-kimikoa, haien osagaiak balorizatzeko (pirolisi-kokea).

R 13 (R 1etik R 12ra zerrendatutako edozein eragiketaren ondorioz sortutako hondakinak biltegitratzea).

– R1302: Hondakinak tratamenduaren eremuan bertan biltegitratzea.

Sarrera	Etap	Tratamendu-eragiketa	Irteera	Helmuga
Lehengaiak (plastiko arriskugabeak).	Biltegitratzea.	R1302	-	-
	1. etapa: sailkapena.	R1201	PET	Kanpoko balorizazio materiala.
			Material ferrikoa. Aluminiozko materiala.	
	1. etapa: sailkapena.	R1208	HEE	Kanpoko balorizazio energetikoa.
	2. etapa: pirolisia.	R1209	Pirolisi-kokea.	
	2. etapa: pirolisia.	R0306	Syngas kondentsatua (pirolisi-olioa).	Industria petrokimikorako lehengai gisa erabiltzeko.
2. etapa: pirolisia + destilazioa.	R0308	Destilazioko frakzio arinak eta ertainak <i>blending</i> erako (nafta, diesela edo beste nahasketa batzuk).	Erregai gisa ( <i>in situ blending</i> ) edo kanpo-instalazioetako <i>blending</i> erako.	

– Gaitasuna.

Biodigestioa tratatzeko gehieneko gaitasuna: 200.000 t/urte.

– Jasotako eta bereizitako hondakinak biltegitratzea.

Hondakinak biltegitratzeko gehieneko denbora sei hilabetekoa izango da hondakin arriskutsuentzat, urtebetekoa ezabatzeko diren hondakin arriskugabeentzat eta bi urtekoa balorizatzeko diren hondakin arriskugabeentzat.

– Erantzukizun zibileko aseguria.

Seihun mila (600.000) euroko erantzukizun zibileko aseguria eratu beharko da.

Hondakinen kudeaketako baldintza orokorren (Hondakinen Kudeaketa – Baldintza Orokorrak) izen bera duen atala beteko da.

– Hondakin izateari uzteko adierazpena.

Hondakin izateari uzteko, «Hondakinen Kudeaketa – Baldintza Orokorrak» atalean deskribatutako baldintzak bete behar dira hondakin hauen kasuan:

- Gasolina-frakzioa.

Merkaturatu behar den produktuaren azken partidek behar bezala bete beharko dituzte urtarrilaren 31ko 61/2006 Errege Dekretuak (gasolinen, gasolioen, fuel-olioen eta petrolio-gas likidotuen zehaztapenak ezartzen dituen eta hainbat bioerregairen erabilera arautzen dituen) gasolinentzat ezartzen dituen zehaztapenak, baita irailaren 3ko 1088/2010 Errege Dekretuak agindutakoa ere (urtarrilaren 31ko 61/2006 Errege Dekretua aldatzen duena, gasolinen eta gasolioen zehaztapenak ezartzen dituen eta hainbat bioerregairen erabilera eta itsasoan erabiltzeko erregaien sufrezko edukia arautzen dituen).

Era berean, hondakinen tratamenduan sortutako material tratatuko frakzioek zehaztapen hauek bete beharko dituzte:

Parametroa	Saiakuntza-araua	Unitatea	Balioa
Dentsitatea 15 °C-ra.	UNE-EN ISO 3675 UNE-EN ISO 12185 ASTM D4052 ASTM D1298	kg/m <sup>3</sup>	747,5
Ikerketa-oktanajea (RON) (3).	UNE-EN ISO 5164 ASTM D2699	RON	96,5
Motorraren oktano-zenbakia (MON) (3).	UNE-EN ISO 5163 ASTM D2700	MON	85,0
Lurrun-presioa (VP) Uda (4) Negua (5) (6).	UNE-EN 13016-1 ASTM D5191	kPa	52,5 62
Destilazioa: Berreskuratzea 70 °C-ra (E70). Uda (4).	UNE-EN ISO 3405 ASTM D86	% V/V	62,5
Negua (5) (6) Berreskuratzea 100 °C-ra. Uda (4).		% V/V	34,5
		% V/V	57,5
		% V/V	57,5
Negua (5) (6) Berreskuratzea 150 °C-ra. Azken irakite-puntua Hondakinak.		% V/V	75
		°C	210
	% V/V	2	

2025eko uztailaren 31, osteguna

Parametroa	Saiakuntza-araua	Unitatea	Balioa
VLI (10VP + 7E70) (6) (7)		-	980
Hidrokarburoak: Olefinak Aromatikoak.	UNE-EN ISO 22854 UNE-EN 15553 ASTM D1319	% V/V % V/V	18,0 35,0
Bentzenoa.	UNE-EN ISO 22854 UNE-EN 12177 UNE-EN 238	% V/V	1,0
Oxigenoa: Uda (4) Negua (5) (6).	UNE-EN 1601 UNE-EN 13132 UNE-EN ISO 22854	% m/m	2,1 2,1
Oxigenatzailea: Metanola. Etanola. Isopropil alkohola. Isobutil alkohola. Tert-butil alkohola. 5 karbono-atomo edo gehiago dituzten eterrak. Beste oxigenatu batzuk.	UNE-EN 1601 UNE-EN 13132 UNE-EN ISO 22854	% V/V	(8)
Sufrea.	UNE-EN ISO 20846 UNE-EN ISO 20884	mg/kg	10
Beruna.	UNE-EN 237 ASTM D3237	g/l	0,005
Kobrearen korrosioa (3 ordu 50 °C-ra).	UNE-EN ISO 2160 ASTM D130	ASTM eskala	1b
Oxidazioarekiko egonkortasuna.	UNE-EN ISO 7536 ASTM D525	minutuak	360
Gomak.	UNE-EN ISO 6246 ASTM D381	mg/100 ml	5
Fosforoa.			(9)
Manganesoa.	UNE-EN 16135 UNE-EN 16136	mg/l	(10)
Itxura bisuala.	Ikusizkoa		Argia eta distiratsua

(1) Gutxienez bi analisi baliokideren batez besteko balioa; ez dute izan behar 5 puntuko aldea baino handiagoa.

(2) Ez da zehaztu, laginean ur asko dagoelako.

(3) Datuak jakinarazi aurretik azken emaitza kalkulatzeko, 0,2ko zuzenketa-faktorea kendu behar da RON eta MON indizeetatik, Europako 98/70/EE Zuzentarauak eta 2003/17/EE eta 2009/30/EE aldaketek eskatzen duten moduan, erabili diren ASTM D 2699:1986 eta ASTM D2700:1986 arauen kasuan izan ezik.

(4) Uda: apirilaren 1etik irailaren 30era.

(5) Negua: urriaren 1etik martxoaren 31ra.

(6) Muga horri esker, % 1,7 etanol (% V/V) arte gehi dakioko, baina amaierako nahasketak % 2,7tik beherako oxigeno-edukia (m/m) izan behar du 1088/2010 Errege Dekretuak jasotako «babes-gasolina» gisa hartzeko.

(7) Proba hau apirilean eta urrian aplikatzen da.

(8) Baimendutako guztizko oxigeno-edukiak mugatuko du eduki oxigenatua.

(9) Ez du izan behar fosforoa duen konposaturik.

(10) Ez du izan behar manganesoa duen konposaturik.

- Gasolio-frakzioa.

Merkaturatu behar den produktuaren azken partidek behar bezala bete beharko dituzte urtarrilaren 31ko 61/2006 Errege Dekretuak (gasolinen, gasolioen, fuel-olioen eta petrolio-gas likidotuen zehaztapenak ezartzen dituen eta hainbat bioerregairen erabilera arautzen dituen) gasolioentzat ezartzen dituen zehaztapenak, baita irailaren 3ko 1088/2010 Errege Dekretuak agindutakoa ere (urtarrilaren 31ko 61/2006 Errege Dekretua aldatzen duena, gasolinen eta gasolioen zehaztapenak ezartzen dituen eta hainbat bioerregairen erabilera eta itsasoan erabiltzeko erregaien sufrezko edukia arautzen dituen).

Era berean, hondakinen tratamenduan sortutako material tratatuko frakzioek zehaztapen hauek bete beharko dituzte:

Parametroa	Saiakuntza-araua	Unitatea	Balioa
Zetano-zenbakia.	UNE-EN ISO 5165 UNE-EN 15195 ASTM D613	-	51,0
Zetano-indizea.	UNE-EN ISO 4264 ASTM D4737	-	46,0
Dentsitatea 15 °C-ra.	UNE-EN ISO 3675 UNE-EN ISO 12185 ASTM D4052 ASTM D1298	kg/m <sup>3</sup>	832,5
Hidrokarbuero aromatiko poliziklikoak (1).	UNE-EN 12916	% m/m	8
Sufre-edukia.	UNE-EN ISO 20846 UNE-EN ISO 20884	mg/kg	10
Destilazioa (2): % 65eko V/V jaso. % 85eko V/V jaso. % 95eko V/V jaso.	UNE-EN ISO 3405 ASTM D86	°C °C °C	250 350 360
Biskositate zinematikoa 40 °C-ra.	UNE-EN ISO 3104 ASTM D445	mm <sup>2</sup> /s	3,25
Sugar-puntua.	UNE-EN ISO 2719 ASTM D93	°C	55
Iragazkia hotzean ixten den temperatura (POFF): Negua (3). Uda (4).	UNE-EN 116 0	°C °C	- 10
Hodei-puntua: Negua (3). Uda (4).	UNE-EN 23015 ASTM D2500 ASTM D5772	°C °C	0 +6
Karbono-hondakina (destilazio-hondakinaren % 10aren gainean).	UNE-EN ISO 10370 ASTM D4530	% m/m	0,30
Labai-garritasuna 60 °C-ra.	UNE-EN ISO 12156-1	µm	460
Ur-edukia.	UNE-EN ISO 12937	mg/kg	200
Guztizko kutsadura (partikula solidoak).	UNE-EN 12662	mg/kg	24

2025eko uztailaren 31, osteguna

Parametroa	Saiakuntza-araua	Unitatea	Balioa
Errautsen edukia.	UNE-EN ISO 6245 ASTM D482	% m/m	0,01
Kobrearekiko korrosioa (3 ordu 50 °C-ra).	UNE-EN ISO 2160 ASTM D130	ASTM eskala	1b
Oxidazioarekiko egonkortasuna.	UNE-EN ISO 12205 ASTM D2274	g/m <sup>3</sup>	25
Oxidazioarekiko egonkortasuna.	UNE-EN 15751	orduak	20
FAME edukia.	UNE-EN 14078	% V/V	7
Manganesoa.	UNE-EN 16576	mg/l	(5)
Kolorea.	ASTM D1500 ASTM D6045	ASTM eskala	2

(1) Hidrokarburo aromatiko poliziklikoak hidrokarburo aromatiko guztien eta hidrokarburo monoaromatikoen arteko aldea dira; biak EN 12916 metodoaren bidez zehaztuta daude.

(2) Zehaztutako balioez gain, jasotako % 10, % 50 eta % 90eko balioen berri eman behar da; izan ere, balio horiek ezinbestekoak dira zetano-indizea kalkulatzeko.

(3) Negua: urriaren 1etik martxoaren 31ra.

(4) Uda: apirilaren 1etik irailaren 30era.

(5) Ez du manganesoa duen konposaturik izan behar.

#### • Pirolisi-olioa.

Sortutako pirolisi-olioa lehengai gisa erabiliko da industria petrokimikoko prozesu kimikoetan, besteak beste, polimeroak ekoizteko, betiere birziklagarriak ez diren plastikoetatik berreskuratutako monomeroetan oinarrituta; baita substantzia likido hidrokarboratuak ekoizteko ere, destilazioaren ondoren azken produktu gisa erabiltzeko.

Horretarako, zehaztapen hauek beteko dira:

Parametroa	Saiakuntza-araua	Unitatea	Balioa
Karbonoa + Hidrogenoa, C+H.	ASTM D 5291	pisua (%)	<sup>3</sup> 98,0
Nitrogenoa, N.	ASTM D 4629 and/or ASTM D 5762	mg/kg	<1000
Sufrea, S.	ASTM D 7039 edo ASTM D4294	mg/kg	<100
Kloroa, Cl	ASTM D 7359	mg/kg	<150
Bromoa, Br	ASTM D 7359	mg/kg	<50,0
Fluorra, F	ASTM D 7359	mg/kg	<50,0
Metal guztiak, astunak izan ezik.	ASTM D5185	mg/kg	<100
Merkurioa, Hg	ASTM D5185	mg/kg	0
Fosforoa, P	ASTM D5185	mg/kg	<30
Silizioa, Si	ASTM D5185	mg/kg	<100
Artsenikoa, As	ASTM D5185	mg/kg	<0,1
Kromoa, Cr	ASTM D5185	mg/kg	<0,1
Beruna, Pb	ASTM D5185	mg/kg	<0,1
Kadmioa, Cd	ASTM D7111-16(2021)	mg/kg	<0,1

2025eko uztailaren 31, osteguna

Parametroa	Saiakuntza-araua	Unitatea	Balioa
Azidoen kopuru osoa.	ISO 6619 edo ASTM D664 (a)	mg KOH/g	<1
Ur-edukia.	ASTM D6304-16e	% m/m	<0,2
Solidoak.	ASTM D 4807	pisua (%)	<0,1
Lurrun-presioa.	ASTM D 323 @60°C	% m/m	<35
Hasierako irakite-puntua.	ASTM D 2887	°C	>35
Destilazioa (% 95).	ASTM D 2887	°C	<570
Jariakortasun-puntua.	ASTM D 5950 ASTM D97	°C	<40,0
Sugar-puntua.	ASTM D93 (Procedure B)	°C	>20,0
Dentsitatea 15 °C-ra.	EN ISO 12185 edo ASTM D4052	kg/m <sup>3</sup>	>800
Bentzenoa.	ASTM D 5134 and/or ASTM D 7900	pisua (%)	<5
Oxigenatuak.	ASTM D 5622	pisua (%)	<5

### ATALA: AIREA – BALDINTZA PARTIKULARRAK

#### AIREAREN KALITATEA BABESTEKO BALDINTZA PARTIKULARRAK

– Airea – Baldintza Orokorrak betetzea.

Organo honek aireaz (Airea – Baldintza Orokorrak) onartzen dituen jarduketak, ingurumen-baimen bateratua dutenak, ustiatzeko eta jarduteari uzteko baldintza orokorrak beteko dira.

– Atmosfera kutsa dezaketen jarduerak.

Instalazioan atmosfera kutsa dezaketen jardueren katalogoan jasota dauden jarduera hauek egiten dira:

Jardueraren kodea.	Taldea.	Jarduera.
09 10 08 00	A	Erregai likidoen ekoizpena, hondakin plastikoetatik abiatuta.
09 10 09 52	-	Hauts-itxurako hondakin metalikoak edo metalikoak ez diren hondakinak biltegitratzea eta manipulatzeko (nahastea, bereiztea, sailkatzea, garraiatzea edo tamainaz murriztea) material horiek maneiatzeko gaitasuna hau izanik: < 100 t/egun.
03 03 26 36	C	Lehortze- eta pikortatze-ekipamenduak, edo antzekoak, edo errektuzako gasekiko zuzeneko kontaktu bidezko bero-aplikaziokoak, beste epigrafe batzuetan zehaztuta ez daudenak, => 70 MWt eta < 2,3 MWt potentzia termiko izendatukoak.
09 02 04 00	B	Beste 09 02 epigrafe batzuetan zehaztuta ez dauden beste industria-instalazio batzuetako zuziak (hondakinak erraustea).

## – Fokuak identifikatzea.

Fokua	Fokuaren kodea	Fokuaren izena	AKDJ jardueraren kodea	Emisio mota	Arazketa-sistema	Altuera (m <sup>1</sup> )	Funtzionamendu-araubidea
1	4820217074-01	1. sutegia (13 MWt) eta olio-termikoko galdara (3,85 MWt).	09 10 08 00 (A taldea)	Kanalizatua.	Erreaktibo kimikoen injekzio-sistema + Mahuka-iragazkia + Murrizketa katalitiko selektiboaren sistema.	40	Sistematikoa.
2	4820217074-02	2. sutegia (13 MWt) eta olio-termikoko galdara (3,85 MWt).	09 10 08 00 (A taldea)	Kanalizatua.	Erreaktibo kimikoen injekzio-sistema + Mahuka-iragazkia + Murrizketa katalitiko selektiboaren sistema.	40	Sistematikoa.
3	4820217074-03	1. prozesu-lerroko errauts-siloa.	09 10 09 52 (talderik gabe)	Kanalizatua.	Mahuka-iragazkia.	5	Sistematikoa.
4	4820217074-04	2. prozesu-lerroko errauts-siloa.	09 10 09 52 (talderik gabe)	Kanalizatua.	Mahuka-iragazkia.	5	Sistematikoa.
5	4820217074-05	1. prozesu-lerroko pirolisi-kokearen siloa.	09 10 09 52 (talderik gabe)	Kanalizatua.	Mahuka-iragazkia.	10	Sistematikoa.
6	4820217074-06	2. prozesu-lerroko pirolisi-kokearen siloa.	09 10 09 52 (talderik gabe).	Kanalizatua.	Mahuka-iragazkia.	10	Sistematikoa.
7	4820217074-07	Banda-lehortegia.	03 03 26 36 (C taldea).	Kanalizatua.	Hezetze-zutabea + Pinu-azalezko ohea.	10	Sistematikoa.
8	4820217074-08	Oxidagailu termikoa.	09 02 04 00 (B taldea).	Kanalizatua.	-	50	Foku ez-sistematikoa.

(1) Zazpigarren jarraibide teknikoan ezarritako eraikuntza-baldintzak betetzeko eskakizuna: Tximinien altuera, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren 2012ko uztailaren 11ko Agindukoa.

Gainera, emisio lausoak sortzen dira erregimen etenean, batez ere hondakinak deskargatzeko eragiketetan, materialak manipulatzeko eragiketetan, ekoizpen-prozesuetako ihesetan eta instalazio barruko ibilgailuen zirkulazioan.

## – Emisioen muga-balioak.

Instalazioa ustiatzean, bermatu behar da atmosferara egingo diren emisioek ez dituztela gaindituko taula honetan identifikatutako foku sistematikoetarako jasotako emisioen muga-balioak.

## a) Batez besteko balioak laginketa-aldian:

Fokuaren zenbakia	Substantzia kutsatzailea	Emisioen muga-balioa (EMB) <sup>(1)</sup>	EMB unitatea	O <sub>2</sub> %-a
1 eta 2	HF	1	mg/Nm <sup>3</sup>	11
	Cd+TI	0,02	mg/Nm <sup>3</sup>	
	Sb+As+Pb+Cr+Co+Cu+Mn+Ni+V	0,3	mg/Nm <sup>3</sup>	
	Dioxinak eta furanoak	0,04	ng I-TEQ/Nm <sup>3</sup>	
	Hg	20	ug/Nm <sup>3</sup>	
7	Partikulak	10	mg/Nm <sup>3</sup>	

(1) Emisio-mugak, baldintza hauetan: T=273 K, P= 101,3 KPa eta gas lehorra

2025eko uztailaren 31, osteguna

b) Eguneko batez besteko balioak:

Fokuaren zenbakia	Substantzia kutsatzailea	Emisioen muga-balioa (EMB) (1)	EMB Unitatea	O <sub>2</sub> %-a
1 eta 2	Partikulak.	5	mg/Nm <sup>3</sup>	11
	SO <sub>2</sub> .	30	mg/Nm <sup>3</sup>	
	NO <sub>x</sub> (NO <sub>2</sub> gisa adierazita).	70	mg/Nm <sup>3</sup>	
	Guztizko konposatu organiko lurrunkorrek (GKOL).	10	mg/Nm <sup>3</sup>	
	CO.	50	mg/Nm <sup>3</sup>	
	HCl.	6	mg/Nm <sup>3</sup>	
	NH <sub>3</sub> .	10	mg/Nm <sup>3</sup>	

c) Ordu-erdiko batez besteko balioak:

Substantzia kutsatzailea	Emisioen muga-balioa	
	% 100 A	% 97 B
Partikulak guztira.	30 mg/Nm <sup>3</sup>	10 mg/Nm <sup>3</sup>
Sufre dioxidoa (SO <sub>2</sub> ).	200 mg/Nm <sup>3</sup>	50 mg/Nm <sup>3</sup>
Nitrogeno monoxidoa (NO) eta nitrogeno dioxidoa (NO <sub>2</sub> ), nitrogeno dioxido gisa adierazita.	140 mg/Nm <sup>3</sup>	70 mg/Nm <sup>3</sup>
Konposatu organikoak, karbono organikoaren guztizko gisa (KOG).	20 g/Nm <sup>3</sup>	10 g/Nm <sup>3</sup>
Hidrogeno kloruroa (HCl).	60 mg/Nm <sup>3</sup>	10 mg/Nm <sup>3</sup>

d) Karbono monoxidoaren (CO) kontzentrazioen emisioen muga-balioak (martxan jartzeko eta gelditzeko faseak izan ezik):

1.– 50 mg/m<sup>3</sup> errekontza-gas, eguneko batez besteko balio gisa kalkulatuta.

2.– 150 mg/m<sup>3</sup> errekontza-gas, gutxienez, neurketa guztien % 95ean, 10 minutuko batez besteko balio gisa kalkulatuta; edo 100 mg/m<sup>3</sup> errekontza-gas neurketa guztietan, 24 orduko edozein alditan hartutako ordu-erdiko batez besteko balio gisa kalkulatuta.

e) 273 K-ko tenperaturako, 101,3 KPa-ko presioko eta guztira oxigenoaren eta gas lehorraren % 11ko edukiko baldintza normalizatuei buruzko mugak bete beharko dira.

f) Atmosferara egiten diren emisioen muga-balioak betetzen direla ulertuko da, baldintza hauek guztiak betetzen badira:

1. Eguneko batez besteko balioetako batek ere ez baditu gainditzen b) paragrafoan eta aurreko d)1 apartatuan ezarritako emisioaren muga-balioak.

2. Ordu-erdiko batez besteko balioetako batek ere ez baditu c) paragrafoko A zutabeko emisioen muga-balioak gainditzen, edo, hala badagokio, ordu-erdiko batez besteko balioen % 97k, urte osoan zehar, ez badu gainditzen aurreko c) apartatuko B zutabeko emisioen muga-balioa.

3. Identifikatutako kutsatzaileentzat ezarritako laginketa-aldian zehar batez besteko balioetako batek ere ez baditu a) apartatuan ezarritako emisioen muga-balioak gainditzen.

4. Aurreko d).2 apartatuan xedatutakoa betetzen denean.

g) Ordu-erdiko batez besteko balioak eta 10 minutuko batez besteko balioak funtzionamendu errealeko denboraren barruan zehaztuko dira, martxan jartzeko eta gelditzeko aldiak alde batera utzita eta neurtutako balioetatik abiatuta, urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuaren II. eranskineko 3. apartatuan agertzen den konfiantza-tartearen balioa kendu ondoren. Eguneko batez besteko balioak zehazteko, baliozkotutako batez besteko balio horietatik abiatuko da.

– Gasak biltzeko eta husteko sistemak.

Aireko baldintza orokorren (Airea – Baldintza Orokorrak) izen bera duen atala beteko da.

Emisio lausoak minimizatzeke helburuarekin, ihesak detektatzeko ekipoak erabiliko dira, ingurumen-kudeaketa egokia egingo da eta instalazioa behar bezala diseinatuko da. Horretarako, beste neurri batzuen artean, materialak biltegitratzeko, sailkatzeko eta birrintzeko instalazioak pabiloi itxietan ipiniko dira. Gainera, aldian behin garbiketa- eta mantentze-lanak egingo dira partikulak ez harrotzeko, eta materiala biltegitratze-silo itxietara deskargatuko da beti, materialek kanpoaldearekin kontakturik ez izateko; olanekin estalitako kamioiak erabiliko dira horretarako (lehengaia soltean jasotzen bada).

– Atmosferara egindako emisioak kontrolatzea.

a) Aireko baldintza orokorren (Airea – Baldintza Orokorrak) izen bera duen atala beteko da.

b) Kontrol hauek bete beharko dira:

Fokua	Fokua izena	Neurketa-parametroak	Kontrolen maiztasuna
1 eta 2	1. eta 2. suteak (13 MWt) eta olio-termikoko galdarak (3,85 MWt).	Partikulak, NO <sub>x</sub> , SO <sub>2</sub> , CO, O <sub>2</sub> , GKOL, HCl, NH <sub>3</sub> , presioa, emaria, tenperatura, hezetasuna.	Etengabe.
		HF, Cd+T, Sb+As+Pb+Cr+Co+Cu+Mn+Ni+V, dioxinak eta furanoak, Hg.	Hiru hiletik behin.
7	Banda-lehortegia.	Partikulak.	Hiru urtez behin.

c) Nolanahi ere, emisioen kontrolek eta baldintzek Ingurumen Sailburuordetzaren jarraibide teknikoetan eskatutako baldintza guztiak bete beharko dituzte.

d) Arestian eskatutako parametro guztien neurketen ILE txostenak Ingurumen Sailburuordetzari bidaliko zaizkio.

e) Neurtzeko teknikak 1. eta 2. fokuetarako:

1.– Atmosfera kutsatzen duten substantzien kontzentrazioak modu adierazgarrian neurtuko dira, eta horien azterketa 815/2013 Errege Dekretuaren arabera egingo da.

2.– Kutsatzaile guztien laginketa eta analisisa, horien artean dioxinak eta furanoak, eta neurtzeko sistema automatikoak kalibratzeko erreferentziako neurketa-metodoak CEN arauen arabera egingo dira —parametro bakoitzerako 2019/7987 (EB) Betearazpen-erabakia jasotzen dira—.

CEN araurik ez badago, ISO arauak, arau nazionalak, nazioarteko arauak edo bestelako metodoak erabiliko dira, egiaztatuta daudenak eta kalitate zientifiko baliokidea duten datuak eskuratzea bermatuko dutenak.

3.– Edozein neurketaren % 95eko konfiantza-tarteen balioek, eguneko emisioen muga-balioetan, ez dituzte emisioen muga-balio hauen ehunekoak gaindituko:

- Karbono monoxidoa: % 10.
- Sufre dioxidoa: % 20.
- Nitrogeno dioxidoa: % 20.
- Guztizko partikulak: % 30.
- Guztizko karbono organikoa: % 30.
- Hidrogeno kloruroa: % 40.

f) Etengabe monitorizatzea 1. eta 2. fokuetan.

Elementu hauek etengabe neurtu beharko dira: partikulak, GKO, KO, NO<sub>x</sub>, SO<sub>2</sub>, O<sub>2</sub>, HCl, NH<sub>3</sub>, emaria, temperatura, presioa eta hezetasuna.

Halaber, edozein gertakariren aurrean enpresak ezaugarri berak dituen beste ekipo bat izan beharko du bi fokuetan. Horrela, parametroetako baten neurketa-datuak galduko balira, 4 ordu baino gutxiagoan neurketa-ekipoa ordezkatzeko litzateke. Ondorioz, jardueraren operadoreak bermatu beharko du ekipamendu guztiak mantentze-, kalibratze- eta konexio-baldintza egokietan daudela.

Neurtzeko sistema jarraituaren instalazioa, kalibrazioa, kontrola, mantentze-lanak eta jakinarazpenak, eta ekipamenduen, neurketa-sekzio eta -tokien ezaugarriak ingurumenaren arloko eskumenak dituen sailak argitaratutako jarraibide teknikoetan ezarritako baldintzen arabera izango dira.

Etengabe neurtzeko sistema Euskal Autonomia Erkidegoko airearen kalitatea zaindu eta kontrolatzeko sarera kateatu beharko da. Era berean, etengabe funtzionatzen egon beharko du ezohiko funtzionamendu baldintza aldietan, edozer erregairen errekuntza dagoen artean, galdaralabearen gelditzen den hondakina barne.

Instalazioen titularrek izango dute neurtzeko sistema jarraituaren datuak eskuratzeko, tratatzeko eta jakinarazteko ardura, eta gutxienez 10 urtez gorde beharko dira neurtzeko kontrol jarraituaren bidez erregistratutako datuak.

Neurtzeko sistema jarraituaren funtzionamendu edo mantentze-lan okerrak direla-eta egun batean ordu-erdiko batez besteko bost baliotik gora baliodunak ez badira, egun hori baliogabetu egingo da. Horregatik, urtean hamar egunetik gora baliogabetzen badira, titularrak behar diren neurriak hartu beharko ditu kontrol-sistema jarraituaren fidagarritasuna hobetzeko.

Elkarren segidako 15 egunetik gora neurtzeko sistema jarraitua konektatu gabe badago edo gaizki badabil, ingurumen-lankidetzako entitateen bidez etengabe neurtu behar liratekeen parametroen aldizkako autokontrolak egin beharko dira, 15 egunez behin, gorabehera hasten den egunetik hasita, eta neurtzeko sistema jarraituak zuzen jardun arte.

Neurtzeko sistema jarraituaren funtzionamenduari buruzko txosten bat egin eta sailburuordetza honetara igorri beharko da urtero, ingurumenaren arloko eskumenak esleituta dituen sailak emandako jarraibide teknikoetan ezarritakoaren arabera.

g) Lortutako emaitzen erregistroa.

Erregistro bat egingo da eguneratutako dokumentazioarekin, honako hauetan ezarritakoari jarraikiz, betiere: Atmosfera kutsa dezaketen jardueren katalogoa eguneratzen duen eta hura ezartzeko oinarritzko xedapenak finkatzen dituen urtarrilaren 28ko 100/2011 Errege Dekretuaren 8. artikulua, eta Atmosfera kutsa dezaketen jardueretarako instalazioak arautzen dituen abenduaren 27ko 278/2011 Dekretuaren III. eranskina. Erregistro hori eguneratuta eta ingurumen-ikuskatzaileen eskura egongo da.

– Usainen kontrola.

Aireko baldintza orokorren (Airea – Baldintza Orokorrak) izen bera duen atala beteko da.

Instalazioak usainen kudeaketa-plan bat izan behar du, eta plan horrek usainak prebenitzeko eta murrizteko programa bat barne hartuko du (usainak minimizatzeko plana).

Plan hori aplikatzearen ondorioz egin behar diren jarduketak instalazioak erabiltzeko eta mantentzeko ohiko eginkizunen artean integratu beharko dira.

Hondakinak tratatzeko pabiloi guztiak itxita eta aire-bilketa bidezko depresioan egongo dira. Era berean, aire-bilketak egongo dira usainak sortzen diren ekipo eta puntu espezifikoetan. Pabiloietatik eta toki espezifiko horietatik ateratako airea usain-kentzeko instalazioetara bideratuko da.

Aldian behin, airea tratatzeko sistemaren mantentze-lanak egingo dira, behar bezala funtzionatzen duela bermatzeko. Horretarako, mantentze-plan bat eta barne-erregistro bat egongo dira, eta, horietan, mantentze-lanak noiz egin diren eta, hala bada, zer gorabehera izan diren adieraziko da.

#### ATALA: URA – BALDINTZA PARTIKULARRAK

##### HONDAKIN-URAK ISURTZEKO BALDINTZA PARTIKULARRAK

- Ura – Baldintza Orokorrak betetzea.

Organo honek uraz (Ura – Baldintza Orokorrak) onartzen dituen jarduketak, ingurumen-baimen bateratua dutenak, ustiatzeko eta jarduteari uzteko baldintza orokorrak beteko dira.

- Isurketen sailkapena, jatorria, ingurune hartzailea eta kokapena.

Isurketa sortzen duen jarduera mota nagusia: hondakin arriskugabeen balorizazioa.

Jarduera taldea: hondakinen kudeaketa.

Mota-taldea-EJSN: 1-7TER. 3832.

2025eko uztailaren 31, osteguna

Isurketa-puntua	Isurketa	Hondakin-ur mota	Isurketaren jatorria	Ingurune hartzailea	Isurketa-puntuaren UTM (ETRS 89) koordenatuak
PV1	V1	Industria-urak.	Hozte-dorreen purgatze-urak.	Nerbioi kanpoaldeko estuarioa.	X = 495.573 Y = 4.800.551
	V2		Kutsadura arrastatu dezaketen eurien jariatze-urak.		
	V3		Eurien jariatze-ur garbiak.		
PV2	V4	Ur beltzak.	Komunak, aldagelak eta jantokia.	Portuko hutseko saneamendu-sarea (AR A2-10).	X = 495.597 Y = 4.800.822
PV3	V5	Industria-urak.	Prozesuko efluenteak.	Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren huts-estazioa (EV2/EV3).	X = 494.043 Y = 4.799.992

Isurketaren emariak eta bolumenak (PV1):

	Hozte-dorreen purgatze-urak	Kutsadura arrastatu dezaketen eurien jariatze-urak
Puntako orduko emaria (m <sup>3</sup> /h)	12,30	25,70
Eguneko batez besteko bolumena (m <sup>3</sup> /egun)	295,20	206,00
Gehieneko bolumena urtean (m <sup>3</sup> /urte)	107.748,00	23.897,00

Era berean, ez da baimentzen sekzio honetako taulan zehaztuko ez bestelako efluente edo hondakinik, etxe hondakin-urak edo ur beltzak salbu; Gipuzkoako Ur Partzuergoaren kolektorerara isurtzea arautzen duen Erregelamenduan ezarritakoaren arabera, horiek onartu egiten dira saneamendu-sare publikoan, baimenik gabe.

- Arazketa- eta hustuketa-instalazioak.

Industria-instalazio guztietarako arazketa-instalazioak edo hondakin-uren zuzenketa-neurriak enpresa eskatzaileak aurkeztutako agirien arabera izango dira, eta elementu hauek izango dituzte funtsean:

– 1. isurketa: hozte-dorreen purgatze-urak.

– Laginak hartzeko kutxatila. Kutxatila hori beste edozein ur-fluxurekiko lotunearen aurretik kokatu beharko da.

Ikusiko balitz fluxu hori tratatu egin behar dela hurrengo apartatuetan ezarri diren isurketen muga-balioak betetzen direla ziurtatzeko, WPI Bilbao SLk dagozkion aldaketak egin beharko ditu arazketa-instalazioetan, isurketak baimendutako ezaugarriak bete ditzan; horretarako, ikatz aktibatuko iragazki bat instalatuko da gutxienez. Hori Administrazioari jakinarazi beharko zaio.

– 2. isurketa: kutsadura arrastatu dezaketen eurien jariatze-urak.

– Harea kentzeko gailua eta I. motako hidrokarbuoen bereizgailua, gehienez ere 54 m<sup>3</sup>/h-ko tratamendu-ahalmenarekin. Bypass bat du, prezipitazio handiak daudenean tratamenduaren gehieneko emaria gainditzen denerako.

– Kontrol-kutxatila.

Arazteko prozesuan sortutako gehiegizko hondakin solidoak eta lokatza instalazioak behar bezala funtzionatzea bermatzeko beharrezkoa den aldizkakotasunez atera beharko dira. Hala dagokionean, hondoan hustubiderik ez duten depositu iragazgaitzetan gordeko dira. Behar den guztietan kenduko ditu kudeatzaile baimendu batek.

Entitate titularrak behar diren arreta-neurriak hartuko ditu produktuak, erregaiak, erreaktiboak eta abar gordetzeko andeletan istripuz gertatutako isuriak eta haiek ontziz aldatzerakoan suertatutakoak ibilgu publikoetara ez iristeko.

Debekatu egiten da aire zabalean hondakin solidoak, obra-hondakinak edo substantziak pilatzea, edonolakoak izan eta edonon pilatu nahi izanda ere, baldin eta euritik eratorritako jariatze-urak edo itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoko urak kutsa baditzakete edo inguruaren degradazioa badakarte.

Kasu bakoitzean lortutako azken hondakinak instalazio-esparrutik kanpo erretiratu eta garraiatuko dira, eta dagozkien araudiak bete beharko dituzte, horien helmugaren edo ondoren produktu edo azpiproduktu gisa izan dezaketen erabileraren arabera.

Hartutako zuzenketa-neurriak nahikoak ez direla egiaztatuz gero, WPI Bilbao SL enpresak beharrezkoak diren aldaketak egin beharko ditu arazteko instalazioetan, isuriak baimendutako ezaugarrietara egokitzeko, administrazioari jakinarazi ondoren, eta, hala badagokio, baimena aldatzeko eskatuko du.

- Isurketen muga-balioak eta isurketa-uraren kalitatea kontrolatzea.

Ibilgurako isuriak eragingo dituzten jardueren bereizgarriak jarraian aipatzen direnak baino ez dira izango, horietako bakoitzerako ezarritako gehieneko mugekin. Gainera, egin beharreko autokontrolak jaso dira, eta neurketa eta txostenak zenbatean behin egin behar diren.

a) Hozte-dorreen purgatze-urak (PV1).

Parametroak	Un.	Muga	Neurketen maiztasuna	Informatzeko maiztasuna	Kontrol mota	Oharrak
Urteko bolumen max.	m <sup>3</sup>	107.748	-	-	-	-
Eguneko emaria.	m <sup>3</sup> /egun	295,20	Egunero.	Hilean behin.	Autokontrola.	DKTan kargatzea, etengabeko datu-txostena eraginkortasunez ezarri arte.
Puntako emaria.	m <sup>3</sup> /h	12,3	Etengabe.	Etengabe.	Autokontrola.	Etengabeko datu-txostena eraginkortasunez ezartzera.
Hondar-klora.	mg/l	0,05	Etengabe.	Etengabe.	Autokontrola.	Etengabeko datu-txostena eraginkortasunez ezartzera.
Temperatura puntuala.	°C <sup>(1)</sup>	Igoera: < 3	-	-	-	-

2025eko uztailaren 31, osteguna

Parametroak	Un.	Muga	Neurketen maiztasuna	Informatzeko maiztasuna	Kontrol mota	Oharrak
Ur-zutabearen batez besteko tenperatura.	°C <sup>(1)</sup>	Igoera: < 1	-	-	-	-
pH.		5,5-9,5	Hiru hilean behin.	Hiru hilean behin.	AHEL	Laginketa puntuala.
Zinka.	mg/l	3	Hiru hilean behin.	Hiru hilean behin.	AHEL	Laginketa puntuala.
AOX.	mg/l	0,5	Hiru hilean behin.	Hiru hilean behin.	AHEL	Laginketa puntuala.
Gutzizko fosforoa.	mg/l	3	Hiru hilean behin.	Hiru hilean behin.	AHEL	Laginketa puntuala.

(1) Muga moduan 3 °C-ko gehikuntza puntual maximoa hartuko da (isurgunetik 50 metrora kokatutako eremu batean egindako profil bertikaleko edozer sakontasun mailatan), eta 1 °C-ko gehikuntza maximoa onartuko da azaleratze-puntuaren eta gainazalaren arteko ur-zutabearen tenperaturaren batez besteko balioan (kasu bietan eragin gabeko eremu baten profil termiko adierazgarri bati dagokionez).

#### b) Kutsadura arrastatu dezaketen eurien jariatze-urak (PV2).

Parametroak	Un.	Muga	Neurketen maiztasuna	Informatzeko maiztasuna	Kontrol mota	Oharrak
Urteko bolumen max.	m <sup>3</sup>	23.897	-	-	-	-
Eguneko emaria.	m <sup>3</sup> /egun	206	Dagokionean.	Sei hilean behin.		
pH.		5,5-9,5	Sei hilean behin.	Sei hilean behin.	AHEL	Laginketa puntuala.
Solido esekiak.	mg/l	80	Sei hilean behin.	Sei hilean behin.	AHEL	Laginketa puntuala.
OEK.	mg O <sub>2</sub> /l	160	Sei hilean behin.	Sei hilean behin.	AHEL	Laginketa puntuala.
Olioak eta koipeak (emultsioa).	mg/l	20	Sei hilean behin.	Sei hilean behin.	AHEL	Laginketa puntuala.
Hidrokarburoak, guztira.	mg/l	15	Sei hilean behin.	Sei hilean behin.	AHEL	Laginketa puntuala.

#### c) Saneamendu-sarera doazen urak.

Saneamendu-sarera isuriko diren uren parametroak kolektorera isurtzeko baimenean ageri dira, eta Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren Saneamenduari eta Arazketari buruzko Ordenantzak ezartzen duenari jarraitzen diote, eta horietako bakoitzerako zehazten diren gehieneko mugak kontuan hartu behar dira. Metalen kontzentrazioak elementu horien «gutzizko» edukari dagozkie.

[https://www.consorciodeaguas.eus/Web/Normativa/pdf/OSERVICIO\\_SAN\\_C.pdf](https://www.consorciodeaguas.eus/Web/Normativa/pdf/OSERVICIO_SAN_C.pdf)

Kanpoko kontrol bakoitza, bai laginak hartzea, bai ondorengo analisia, «entitate laguntzaile» batek edo saneamendu-sarearen kudeaketaz arduratzen den organismoak (hala badagokio) egin eta egiaztatuko du, eta goian aipatutako parametroak hartuko dira kontuan. Sustatzaileak lagin hartu berri baten analisia aurkeztu behar du gutxienez; lagina 24 orduko ur-emariarekiko proportzionala izango da, edo, bestela, lagin puntual adierazgarria.

Parametroen analisia «Standard Methods For the Examination of Water and Wastewater» txostenean (APHA, AWWA, WPCF, azken argitalpena) edo «ASTM Water and Environmental Technology» txostenaren azken argitalpeneko 11. sailean jasotako metodo normalizatueta baten bidez egingo da. Parametroaren ohiko kontzentrazioaren arabera egokiena dena hautatuko da. Egun erabiltzen diren azterketa-metodoen bestelakoak ere ezarri ahalko dira, kutsatzaileen kontzentrazioa hobeto zehazteko. Eskatutako analisien parametro bakoitzean erabilitako analisi-metodoa adierazi beharko da.

Isuriak baimenaren baldintza guztiak betetzen dituela ulertuko da ezarritako kontrol-parametro guztiek ezarritako mugak betetzen dituztenean.

Aipatutako maiztasunarekin, aldi bakoitzean efluenteak ezaugarri baimenduekiko dituen balizko desbiderapenei, horien kausei eta zuzentzeko hartutako neurriei buruzko gorabeheren adierazpen bat erantsiko da.

Isurketen kontrolen emaitzak urtero bidaliko zaizkio ingurumen-organo honi, ingurumena zaintzeko programaren esparruan, eta HILABETEKO (1) epean URari, «Datuak Kudeatzeko Tresna» (aurrerantzean, DKT) web-aplikazioan, Eusko Jaurlaritzaren Egoitza Elektronikoen bidez. Kargatzeko jarraibideak URaren web-helbide honetan daude eskuragarri:

<https://www.uragentzia.euskadi.eus/analisien-eta-emarien-berri-ematea-dkt-tresnan/webura00-contents/eu/>

Analitiken emaitzak edo emarien txostena jasotzen dituen fitxategiaren baliozkotzea, egoitza elektronikora behin betiko igo aurretik, DKT bidez egin beharko da. Fitxategiak kargatu ondoren, informazio horren ondorengo kudeaketa ere DKTaren bidez egingo da. Tresna hori URaren webguneko atari pribatuaren bidez eskura daiteke, «Isurketen analitika eta emarien datu-karga» moduluan klik eginda; bestela, zuzenean sartzeko aukera ere badago helbide honen bidez:

<https://apps.euskadi.eus/aa08aVistaWar/inicioMigas/maintInicioMigas?R01HNoPortal=true>

Era berean, ofizialki homologaturiko laborategi propioak edo kanpoko laborategiak egindako buletin analitikoak telematikoki aurkeztu behar dira, egoitza elektronikoen bitartez, adierazi bezain maiz.

Baimenaren titularrak arazketa-instalazioen funtzionamendua eta isurketen kalitatea eta kantitatea kontrolatuko ditu aldizka, bat etorritik atal honetan ezarritako analisien maiztasunarekin eta parametroekin. Informazio hori organismo honi bidali beharko zaio, «adierazpen analitikoak» baldintzan ezarritako maiztasunarekin, eta organo eskudunetako funtzionarioek eskuragarri izan beharko dute aztertzeko, behar diren egiaztapenak eta azterketak egin ditzaten.

Egoki deritzonean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren organo honek, Uraren Euskal Agentziak eta Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak arazketa-instalazioak ikuskatuko dituzte eta efluentea neurtu eta aztertu ahal izango dute, isurketen emariek eta parametroen kontzentrazioek baimendutako mugak gainditzen ez dituztela egiaztatzea ahal izateko. Halaber, arazketa-instalazioen ustiapenaren arduradun bat, titulazio egokia duena, izendatzea eskatu ahalko dio titularrari.

Isurketak baimenean ezarritako baldintza guztiak betetzen dituela ulertuko da taulan agertzen diren parametro guztiek ezarritako mugak egiaztatzen dituztenean.

Baimenaren titularrak instalazioen funtzionamendua eta isurketen kalitatea eta kantitatea kontrolatuko ditu aldizka, bat etorritik atal honetan ezarritako analisien maiztasunarekin eta parametroekin. Informazio hori organismo honi bidali beharko zaio, «adierazpen analitikoak» baldintzan ezarritako maiztasunarekin, eta organo eskudunetako funtzionarioek eskuragarri izan beharko dute aztertzeke, behar diren egiaztapenak eta azterketak egin ditzaten.

Kutsatzaile gehien sortzen den aldietan egingo dira laginketak beti.

- Isurketak kontrolatzeko kanona.

Kostaldeei buruzko uztailaren 28ko 22/1998 Legearen 85. artikulua ezartzen duenez, lehorretik itsasora isurtzen diren hondakin-urei kanon bat ezarriko zaie, haien karga kutsatzailearen arabera.

Urei buruzko ekainaren 23ko 1/2006 Legeak, 7. artikuluan, Uraren Euskal Agentziaren esku uzten du lehorretik itsasora isurketak egiteko baimena ematea, baita uraren arloko indarreko legeriak ezarritako zergak kudeatzea, kitatzea, biltzea eta ikuskatzea ere.

Abenduaren 10eko 459/2013 Dekretuak, lehorretik itsasora egiten diren isurketei buruzkoak, aipatu berri den kanona arautzen du: itsasotik lehorrerako isurketek eragindako kutsadura minimizatzea eta Espainiako jurisdikziopeko uren barnean euskal itsasertzari dagozkion uretan ingurumen-helburuak lortzera bideratutako jarduerak finantzatzeko izango da osorik, eta, besteak beste, horien kalkulua egiteko prozedura ezartzen du.

Hala, dekretu horren 17. eta 18. artikuluetan ezarritakoari jarraikiz, isurketa baten karga kutsatzailea, kutsadura-unitateetan neurtuta, bider 3.000,00 € egingo da (prezioa unitateko), isurketak kontrolatzeko kanonaren zenbatekoa kalkulatzeko. Karga kutsatzailea kalkulatzeko, berriz, isurien urteko bolumena biderkatuko da isuriaren kutsadura-mailaren, hartan egon daitezkeen substantzia arriskutsuen nahiz hustuketarako erabilitako eroanbide motaren ezaugarrien arabera ezarritako koefiziente batez.

Aurrekoa oinarri hartuta, Uraren Euskal Agentziak, Lehorretik Itsasora egiten diren Isurketei buruzko abenduaren 10eko 459/2013 Dekretuaren 14. artikulua eta hurrengoak aplikatuz, isurketa honen urteko kanonaren kalkulua egin behar da:

1. isurketa: Hozte-dorreen purgatze-urak.

$$\text{Isurketa-kanona} = C \times Puc$$

$$C = K \times V$$

$$K = k1 \times K2 \times K3$$

Definizioak:

C = karga kutsatzailea, kutsadura-unitateetan neurtuta.

PUC = kutsadura-unitatearen balioa.

K = kanonaren koefizientea, 459/2013 Dekretuaren III. eranskinean ezarritakoaren arabera.

k1 = karga kutsatzaileari lotutako koefizientea.

$k_2$  = eroapen motak zehaztutako koefizientea.

$k_3$  = substantzia arriskutsuekin eginiko isurketei aplikatzeko koefizientea.

$V$  = isurketa baimenduaren bolumena ( $m^3$ /urte).

$k_1: (1162,21 \cdot AOX + 309,92 \cdot MEQ + 116,22 \cdot P) \cdot 10^{-9}$

$MEQ = (3 \cdot Zn) / 1 = 3 \cdot 3 = 9$

$k_1: (1162,21 \cdot 0,5 + 309,92 \cdot 93 + 116,22) \cdot 10^{-9} = 3,719 \cdot 10^{-6}$

$k_2$ : gainerako baldintzak.  $k_2 = 1,00$

$k_3$ : II. eranskineko substantzia kutsatzailerik ez.  $k_3 = 1,00$

$K = 4,1844 \cdot 10^{-6} \cdot 1,00 \cdot 1,00 = 4,1844 \cdot 10^{-6}$

$V$  bolumena = 23.897  $m^3$ /urte

Karga kutsatzailea  $C = 4,1844 \cdot 10^{-6} \cdot 23897 = 0,099994$

Isurketa-kanona =  $0,099994 \cdot 3.000 = 299,98$  euro/urte.

Isurketa-kanona guztira =  $1202,16 + 299,98 = 1502,14$  euro/urte.

Isurketaren titularrak 459/2013 Dekretuaren 16. artikuluan araututako Jarraipenerako Aukerako Protokoloari heltzen badio, handik ondorioztatutako K-ren eta V-ren balioak aplikatuko dira isurketaren kanona kalkulatzeko.

Aipatutako dekretuaren 20. artikulua ezartzen duenaren arabera, isurketa baimentzen duen erabakia indarrean jartzen denean sortuko da kanona. Baimenaren indarraldiko ondorengo urteetan, tasaren sortzapena urte bakoitzeko urtarilaren 1ean gertatuko da.

Halaber, aipatutako manuairen arabera, kanona urte natural osorako likidatuko da, isurketarako baimena, haren aldaketa, etetea edo azkentzea ematen den ekitaldian izan ezik, edo Jarraipenerako Aukerako Protokoloa onartzen den ekitaldian izan ezik, orduan baimena indarrean egondako egunen kopuruaren arabera kalkulatu baita kanona, urte osoko egunak aintzat hartuta.

Dekretu hori betez, Uraren Euskal Agentziak urte bakoitzeko lehen seihilekoan egingo ditu aurreko urteari dagozkion likidazioak.

- Instalazioak kontrolatzeko elementuak.

- Kontrolguneak. Arazketa-instalazioetako efluenteen irteera bakoitzak kutxatila bat izan behar du, isurketaren lagin adierazgarriak hartzeko eta emaria neurtzeko, instalazio horietarako dagokion apartatua mugak ezarri badira. Azken isurketaren erakusle den kutxatilara kanpotik sartu ahal izango da, jarduera garatzen den instalaziora sartzeko beharrik izan gabe. Kontrolgunea araztegiko efluentearen irteeraren eta isurketa-puntuaren artean kokatu behar da ahal izanez gero, laginketa ingurune hartzailerara egindako azken isurketaren ezaugarrien adierazgarri izan dadin.

Beste kontrol-puntu hauek ere ezarriko dira, instalazioak behar bezala funtzionatzen duela egiaztatzeko:

- Euri-uren kontrol-puntua (PCV1): hozte-dorreen purgatze-urak tratatzean sortutako efluentea.
- Euri-uren kontrol-puntua (PCV2): kutsadura arrastatu dezaketen euri-uren tratamenduaren ondoriozko efluentea.

Kontrol-puntuak	Kontrol-elementuak	Kontrol-puntuari dagokion isurketa-puntua	Oharrak
PCV 1	Etengabeko emari-neurgailua – hondar-kloroa.	PV1	Fluxu honen laginketa puntuala izan daiteke.
PCV 2	-	PV2	Fluxu honen laginketa puntuala izan daiteke.

– Etengabeko kontrola: Etengabeko kontrol-sistema bat ezarri beharko da, Uraren Euskal Agentziak bere instalazioetan itsaso eta lehorraren arteko jabari publikora egiten dituen isurketen jarraipena denbora errealean eta urrutitik egitea ahalbidetze aldera. Horretarako, jarraian adierazten diren emariak eta parametroak etengabe neurtzeko ekipo automatikoak instalatu beharko ditu, neurketen berri emateaz gainera:

Parametroak eta etengabe jakinarazi beharreko beste emari batzuk		
Kontrol-puntua	Parametroa	Unitatea
PCV 1	Hondar-kloroa.	mg/l
	Bat-bateko emaria.	l/s

Isurketaren gaineko jarraipena hobetuko duen bestelako parametro gehigarri baten etengabeko kontrolean eskatu ahal izango da.

Entitate titullarrak behar diren kontrol-ekipo eta -sistema guztiak izango ditu adierazitako kontrol-puntuetan (sentsoreak/zundak/analizagailuak, emari-neurgailuak, kontrolagailuak, datuak transmititzeko ekipoak, etab.), URari emarien, parametroen eta kontrol-ekipoetako edo instalazioetako gorabeheren datu jarraituak erregistratu, biltegitatu eta jakinarazteko.

Informazio hori emateak ez du salbuesten eskatutako kontrol eta analisi puntualak ezarritako moduan bidaltzetik. Alabaina, jasotako informazio jarraituaren fidagarritasunaren araberakoak izango dira ezarritako aldizkako kontrolak bidaltzeko maiztasunak.

Jarraitutasunez neurtzeko ekipoek erregistratutako datuen fidagarritasuna bermatzeko, titullarrak hau egiaztatu beharko du, urtero entregatu beharreko txosten baten bidez: neurtzeko ekipo horien fabrikatzaileek adierazitako kalibraziorako/doikuntzarako, neurriaren kalitatea ziurtatzeko eta mantentze-lanetako planak egin dituela.

Baimena ebatzi ondoren, Uraren Euskal Agentziaren gordailura etengabeko kontrolaren ondoriozko datuak igortzeko eskuliburua igorriko dio entitate titularrari. Bertan, igorlearen eta URaren gordailuaren arteko konexio-prozedura, datuak igortzeko erabili behar diren komunikazio-protokoloak, informazioa jasoko duen mezuaren egitura eta abar zehazten dira.

Informazio hori transmititzeko behar diren ekipoei dagokienez, instalazioetan existitzen diren gailuen araberakoak izango dira:

- Entitate titularrak *On Premise* motako telekontrolleko eta datu-bilketa zentralizatuko sistema bat duenean (lokalean, SCADA batean edo antzekoan), sistema hori konfiguratu beharko du, datuak etengabe transmiti ditzan URaren gordailuraino. Telekontrolleko sistema konfiguratzerik ez badago, telekontrolleko sistema zentralizatuari informazioa eskatzeko gai den komunikazio-pasabide bat instalatu beharko da, eta datu horiek Uraren Euskal Agentziaren gordailura bidali beharko dira. Etengabeko kontrolaren baldintzetan eskatzen den baina telekontrolleko sisteman zentralizatuta ez dagoen parametro edo emariren bat badago, aldeztatik instalazioko PLCra konektatu beharko da.

- Telekontrol-sistematik ez duten instalazioetan, neurketa-ekipoek erregistratutako datuak bertatik bertara jasotzeko gai diren ekipoak instalatu beharko dira; halaber, Uraren Euskal Agentziaren gordailura bidali beharko dira zuzenean.

– Ikuskaritza eta zaintza: Aurreko baldintzetan ezarritako kontrolez gain, organo eskudunak egokitzat jotzen dituen azterketa eta ikuskapen guztiak egin ahal izango ditu isurketaren ezaugarri kualitatiboak zein kuantitatiboak egiaztatzeko eta, hala badagokio, kontrol horien baliozkotasuna egiaztatzeko. Eginkizun horiek zuzenean edo administrazio hidraulikoaren entitate laguntzaileen bidez egin ahal izango dira.

Organo eskudunak une oro ikuskatu eta zainduko ditu obrak eta instalazioak. Kontzeptu horien ondorioz eman beharko diren ordainsariak eta gastuak onuradunak ordainduko ditu, indarrean dauden xedapenak kontuan hartuta. Arazketa-instalazioen funtzionamendua ez bada egokia, egokitzat jotzen diren zuzenketak ezarri ahal izango dira arazketa efizientea izateko.

– Instalazioak bertako uretan izango duen eraginaren kontrola.

Urtero, ingurune hartzailea zaintzeko planaren urteko txostena egingo da. Bertan, laginketen deskribapenez, metodo analitikoek eta abarrez gain, emaitzen balorazioa ere jasoko da, isurketak ingurune hartzailean izango dituen ondorioak ebaluatuz —urak eremu hartzailean izango duen ingurumen-kalitateari buruzko arauak barne—, eta, beharrezkoa izanez gero, kutsadura murrizteko hartu behar diren aurreikuspenak (459/2013 Dekretua, abenduaren 10ekoa, lehorretik itsasora egiten diren isurketen buruzkoa). Txosten hori telematikoki aurkeztuko zaio Uraren Euskal Agentziari, Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzara bidali beharreko informazioa gorabehera, egoitza elektronikoen bidez, amaitutako urteko lehen hiruhilekoan.

Zehazki, parametro hauek aztertu ahal izango dira: guztizko kloroa, guztizko hidrokarburoak, zinka eta antioxidatzaileak, nahasketa-eremuaren mugan dauden bi estazioetan. Emaitzak jasotzen dituen txostenean bi estazioen kokapena adierazi beharko da. Era berean, hiru hilean behin isurketa-puntutik 50 metrora mugatutako parametroak aztertu beharko dira.

Ingurune hartzaileko tenperatura «Isurketen muga-balioak eta isurketa-uraren kalitatea kontrolatzea» atalean ezarritakoa betetzen dela egiaztatzeko moduan neurtu beharko da.

## ATALA: HONDAKINAK SORTZEA – BALDINTZA PARTIKULARRAK

INSTALAZIOAN SORTUTAKO HONDAKINAK EGOKI KUDEATZEN DIRELA BERMATZEKO  
BALDINTZAK PARTIKULARRAK

– Hondakinak Sortzea – Baldintza Orokorrak betetzea.

Organo honek hondakinak sortzeko (Hondakinak Sortzea – Baldintza Orokorrak) onartzen dituen jarduketak, ingurumen-baimen bateratua dutenak, ustiatzeko eta jarduteari uzteko baldintza orokorrak beteko dira.

– Ekoiztako hondakinak.

Taula honetan ageri dira sustatzaileak aitortutako hondakin arriskutsuak (izartxoarekin eta EHZ kodearekin adierazita) eta arriskugabeak.

EHZ	Hondakinaren deskribapena	Ezaugarriak Arriskugarritasuna	Kudeatzeko modua	Biltegiatze mota	Sortze-prozesua	Ekoizpen zenbatetsia (kg/urte)
Arriskutsuak						
08 01 11*	Pintura-hondarrak.	HP3, HP5	R0201	Bidoia.	Mantentzea.	30
12 03 01*	Garbiketako ur-disoluzioak.	HP6	R0310	Solteko gaien edukiontzi handiak.		30
13 02 05*	Olio mineral erabilia.	HP3, HP5	R0901	Depositua.		2000
14 06 03*	Disolbatzaile ez-halogenatua.	HP3, HP8	R0201	Bidoia.		0,7
15 01 10*	Ontzi kutsatuak.	HP3, HP5	R0305	Edukiontzia.		2000
15 02 02*	Olioak eta koipeak dituzten material kutsatuak.	HP3, HP5	R0305	Bidoia.		1000
16 02 13*	Bulegotikako ekipamenduak.	HP6, HP14	R1201	Kutxa.		4
16 03 03*	Zehaztu gabe dauden produktu kimikoak.	HP3, HP8	D0901	Bidoia.		30
16 03 04*	Lubrifikatzaile gabeko aerosolak.	HP1, HP3	R0309	Bidoia.		30
16 06 01*	Berunezko bateriak.	HP7	R0404	Edukiontzia.		30
16 06 02*	Ni-Cd-zko metagailuak.	HP7	R0404	Kutxa.		40
16 06 03*	Botoi-pilak.	HP7	R0402	Kutxa.		4
17 04 09*	Txatarra kutsatua.	HP15	R0401	Edukiontzia.		7
20 01 21*	Fluoreszenteak.	HP6, HP14	R1201	Kutxa.		7
16 05 06*	Laborategiko produktu kimikoak.	HP4, HP5	R0310	Bidoia.	Laborategia.	0,7
16 08 07*	Katalizatzaile erabili kutsatuak.	HP7	R0402	Bidoia.	SCR.	Aldizka
19 01 07*	Gasen tratamenduan sortutako hondakin solidoak.	HP2	D0902	Kudeaketarako zuzenean jaso da.	Gasen tratamendua eta arazketa.	1648000

2025eko uztailaren 31, osteguna

EHZ	Hondakinaren deskribapena	Ezaugarriak Arriskugarritasuna	Kudeatzeko modua	Biltegitratze mota	Sortze-prozesua	Ekoizpen zenbatetsia (kg/urte)
<b>Arriskugabeak</b>						
08 03 18	Tintak.	-	R0305	Kutxa.	Bulegoak.	30
20 01 02	Beira.	-	R0503	Edukiontzia.		30
20 01 39	Plastikoak.	-	R0305	Edukiontzia.		1
20 01 01	Papera eta kartoia.	-	R0304	Edukiontzia.		500
15 01 02	Plastikozko ontziak.	-	R0305	Edukiontzia.	Biltegia.	7
15 01 03	Egur-ontziak.	-	R0305	Edukiontzia.		7
15 01 04	Metalezko ontziak.	-	R0401	Edukiontzia.		7
15 01 07	Beirazko ontziak.	-	R0503	Edukiontzia.		30
17 01 07	Hormigoia, adreiluak, teilak eta material zeramikoak dituzten nahasketak.	-	R0505	Edukiontzia.	Mantentze-lanak.	70
17 04 07	Txatarra.	-	R0401	Edukiontzia.		70
20 03 04	Hobi septikoetako lohiak.	-	R03	Hobia.		10000
20 03 01	Hiri-hondakin solidoen nahasketa.	-	R1201	Edukiontzia.		500
20 03 07	Tamaina handiko hondakinak.	.	R0305	Edukiontzia.		1000
19 12 12	Errefus organikoa.	-	R1201	Bunkerra edo hobia.	Triajea.	17085000
19 12 12	PVC errefusak.	-	R1201	Bunkerra edo hobia.		4152000
19 08 14	Uraren tratamenduaren errefusa eta hozte-dorrearen eta ur/lurrun sistemaren purgatzeak.	-	R0301	Depositua.	Efluenteen tratamendua.	13000
19 12 12	Iragazki biologikoen lixibiatuak.	-	R1201	Kutxatila itsua.	Gasen tratamendua eta arazketa.	720000
19 12 21	Iragazki biologikoetatik ateratako pinu-azalak.	-	R1201	Edukiontzia.	Gasen tratamendua eta arazketa.	1000

- Sortutako hondakinak biltegitratzea.

Hondakinak biltegitratzeko gehieneko denbora sei hilabetekoa izango da hondakin arriskutsuentzat, urtebetekoa ezabatzeko diren hondakin arriskugabeentzat eta bi urtekoa balorizatzeke diren hondakin arriskugabeentzat.

#### ATALA: LURZORUA – BALDINTZA PARTIKULARRAK

##### LURZORUA ETA LURPEKO URAK BABESTEKO BALDINTZAK PARTIKULARRAK

– Lurzorua – Baldintza Orokorrak betetzea.

Organo honek lurzoruaz (Lurzorua – Baldintza Orokorrak) onartzen dituen jarduketak, ingurumen-baimen bateratua dutenak, ustiatzeko eta jarduteari uzteko baldintza orokorrak beteko dira.

– Txostenak.

Sustatzaileak txosten hauek aurkeztu eta egunean izan beharko ditu, lurzoruaz ezarritako baldintza orokorretan ezarritakoari jarraikiz:

- Lurzoruaren egoerari buruzko aurretiazko/aldizkako txostena.
- Oinarrizko txostena.
- Lurzoruen eta lurpeko uren kontrol- eta jarraipen-dokumentuak.

#### ATALA: ZARATA – BALDINTZA PARTIKULARRAK

#### ZARATAREN INGURUKO BALDINTZA PARTIKULARRAK

- Zarata – Baldintza Orokorrak betetzea.

Organo honek zarataz (Zarata – Baldintza Orokorrak) onartzen dituen jarduketak, ingurumen-baimen bateratua dutenak, ustiatzeko eta jarduteari uzteko baldintza orokorrak beteko dira.

- Emisioen muga-balioak.

Behar diren neurriak hartuko dira, instalazioak kanpoko ingurumenera zabaldu ez ditzan Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren I. eranskineko F taulan muga-balio gisa ezarritako zarata-mailak baino handiagoak, betiere horiek aipatutako arauaren II. eranskinean jasotako prozeduren arabera ebaluatuta:

Ereму akustiko mota	Zarata-indizeak		
	LK,d (eguna)	LK,e (arratsaldea)	k,n (gaua)
E) Osasungintza-, hezkuntza- eta kultura-erabilerako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru edo -sektoreak, kutsadura akustikoaren aurkako babes berezia behar dutenak.	50	50	40
A) Bizitegi-erabilerako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru edo -sektoreak (1).	55	55	45
D) C apartatuan jasotakoaz bestelako hirugarren sektoreko erabilerako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru edo -sektoreak.	60	60	50
C) Jolaserako eta ikuskizunetarako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru edo -sektoreak.	63	63	53
B) Industria-erabilerako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru edo -sektoreak.	65	65	55

(1) Muga-balio horiek aplikagarriak dira orobat ezein eremu akustikotan kokatuta ez dauden bizitegi-erabilerako eraikinetarako; balioak eraikinaren garaiera orotan leihodun fatxada guztietara iristen den soinuari dagozkio.

Kanpoaldeko muga-balioek lurretik 2 metroko garaiera eta fatxada leihodunen kanpoaldeko eraikuntzaren garaiera guztiak dituzte erreferentziazat.

Lokal mugakideak egonez gero, lokal horien erabilera kontuan hartuta, instalazioak ezingo du aipatutako urriaren 16ko 213/2012 Errege Dekretuaren I. eranskineko G eta H tauletan ezarritako ghieneko balioak baino zarata-maila handiagoa transmititu haietara.

Ezarritako zarata-immisioaren muga-balioak errespetatzen direla ulertuko da baldin eta, urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren II. eranskinean ezarritako prozeduren arabera, baldintza hauek betetzen badituzte ebaluatutako adierazle akustikoen balioek, urtebeteko epean:

•Urteko batez besteko balioek ez dituzte gainditzen aipatutako I. eranskineko F taulak ezarritako balioak.

•Eguneroko balioek ez dituzte 3 dB-etan gainditzen aipatutako I. eranskineko F taulak ezarritako balioak.

•Lkeq, Ti indizean neurtutako ezein balioek ez ditu 5 dB-etan gainditzen aipatutako I. eranskineko F taulan adierazitako balioak.

Adierazitako muga-balioak betetzen direla egiaztatzeko, jarduerari lotutako zarata-fokuen modelizazio bat aurkeztu beharko da instalazioa martxan jarri aurretik, betetzen direla ziurtatzeko.

Gainditzetik izanez gero, egon daitezkeen gainditzeak zuzentzeko zuzenketa-neurrien proposamena aurkeztu beharko da. Neurri horietako bakoitzaren jarduera-egutegia proposatu beharko da, egikaritzearen arduraduna izendatuta.

#### ATALA: INGURUMENA ZAINTEKO PROGRAMA – BALDINTZA PARTIKULARRAK

##### INGURUMENA ZAINTEKO PROGRAMAREN INGURUKO BALDINTZA PARTIKULARRAK

- Ingurumena Zaintzeko Programa – Baldintza Orokorrak betetzea.

Organo honek lurzoruz (Ingurumena Zaintzeko Programa – Baldintza Orokorrak) onartzen dituen jarduketak, ingurumen-baimen bateratua dutenak, ustiatzeko eta jarduteari uzteko baldintza orokorrak beteko dira.

- Jardueraren adierazleak kontrolatzea.

Sustatzaileak jardueraren gaineko parametro-adierazle hauen jarraipena egingo du urtero, ingurumenean duten eragina aztertzeko, eta urtean urteko ingurumena zaintzeko programarekin batera aurkeztuko du:

Ingurumenaren gaia	Abiapuntuko datuak	Unitatea	Adierazlea	Unitatea	Aldizkakotasuna
Ekoizpena	Berreskuratutako erregai solidoen (BES) ekoizpena	t	Berreskuratutako erregai solidoen (BES) ekoizpena	t	urtean behin
	Syngasaren ekoizpena (ez-kondentsagarria)	t	Syngasaren ekoizpena (ez-kondentsagarria)	t	urtean behin
	Pirolisi-olioaren ekoizpena (syngas kondentsatua)	t	Pirolisi-olioaren ekoizpena (syngas kondentsatua)	t	urtean behin
	Nafta ekologikoaren ekoizpena	t	Nafta ekoizpena	t	urtean behin
	Diesel ekologikoaren ekoizpena	t	Dieselaren ekoizpena	t	urtean behin
	Pirolisi-kokearen ekoizpena	t	Pirolisi-kokearen ekoizpena	t	urtean behin
Material-konsumoa	Hondakin arriskugabeak guztira	t	Hondakin arriskugabeak guztira / Berreskuratutako erregai solidoaren (BES) ekoizpena	t/t	urtean behin

2025eko uztailaren 31, osteguna

Ingurumenaren gaia	Abiapuntuko datuak	Unitatea	Adierazlea	Unitatea	Aldizkakotasuna
			Hondakin arriskugabeak guztira / Syngasaren ekoizpena (ez-kondentsagarria)		
			Hondakin arriskugabeak guztira / Pirolisi-olioaren ekoizpena (syngas kondentsatua)		
			Hondakin arriskugabeak guztira / Berreskuratutako erregai solidoaren (BES) ekoizpena		
			Hondakin arriskugabeak guztira / Naftaren ekoizpena		
			Hondakin arriskugabeak guztira / Dieselaren ekoizpena		
Energia-kontsumoa	Gas naturalaren kontsumoa	m <sup>3</sup> /h	Gas naturalaren kontsumoa / Guztizko ekoizpena	m <sup>3</sup> /t	urtean behin
			Gas naturalaren kontsumoa / Guztizko energia-kontsumoa	%	urtean behin
	Energia elektrikoaren kontsumoa	kwh	Energia elektrikoaren kontsumoa / Guztizko ekoizpena	kwh/t	urtean behin
			Energia elektrikoaren kontsumoa / Kontsumitutako energia guztira	%	urtean behin
Instalazioan bertan ekoiztako energiaren kontsumoa	kwh	Instalazioan bertan ekoiztako energiaren kontsumoa / Kanpo-iturrietako energia-kontsumoa	%	urtean behin	
Ur-kontsumoa	Ur-kontsumoa	m <sup>3</sup>	Ur-kontsumoa/Ekoizpena	m <sup>3</sup> /t	urtean behin
Uretarako isurketak	1. isurketa	m <sup>3</sup>	1. isurketa / Guztizko ekoizpena	m <sup>3</sup> /t	urtean behin
	2. isurketa		2. isurketa / Guztizko ekoizpena		
	3. isurketa		3. isurketa / Guztizko ekoizpena		
Emisio atmosferikoak		t/urte		t/t	urtean behin
Hondakinak	Sortutako hondakin arriskutsuak	t	Hondakin arriskutsu balorizatuak / Sortutako hondakin arriskutsuak	%	urtean behin
	Hondakin arriskutsu balorizatuak	t			
	Sortutako hondakin arriskugabeak	t	Hondakin arriskugabe balorizatuak / Sortutako hondakin arriskugabeak	%	urtean behin
	Hondakin arriskugabe balorizatuak	t			
Lurzoruaren kutsadura	Istripuz gertatutako isurketekin lotutako gorabeheren kopurua (zehaztu ingurune hartzailea: airea, ura, lurzorua)	Kopurua urtean	Istripuz gertatutako isurketekin lotutako gorabeheren kopurua	Kopurua urtean	urtean behin
Ingurumena kudeatzeko sistema (iks)	Ezarri eta egiaztatutako kudeaketa-sistemak (zehaztu)	Bai/Ez Zein/urtea	Ekoscan/urtea edo ISO14001/urtea edo EMAS/urtea	Bai/Ez Zein/urtea	urtean behin

## ATALA: PRTR – BALDINTZA PARTIKULARRAK

## KUTSATZAILEEN ERREGISTROAREN INGURUKO BALDINTZA PARTIKULARRAK

– PRTR – Baldintza Orokorrak betetzea.

Organo honek kutsatzaileak erregistratzeko (PRTR – Baldintza Orokorrak) onartzen dituen jarduketak, ingurumen-baimen bateratua dutenak, ustiatzeko eta jarduteari uzteko baldintza orokorrak beteko dira.

## ATALA: EZOHIKO EGOERAK – BALDINTZA PARTIKULARRAK

## PREBENTZIO-NEURRIEI ETA EZOHIKO EGOERETAN FUNTZIONATZEKO BALDINTZEI BURUZKO BALDINTZA PARTIKULARRAK

- Ezohiko Egoerak – Baldintza Orokorrak betetzea.

Organo honek ezohiko egoeretan funtzionatzeko (Ezohiko Egoerak – Baldintza Orokorrak) onartzen dituen jarduketak, ingurumen-baimen bateratua dutenak, ustiatzeko eta jarduteari uzteko baldintza orokorrak beteko dira.

- Jarduera etetea.

«Ezohiko Egoerak – Baldintza Orokorrak» atalean aipatzen den lurzoru kutsatuen gainean indarrean dagoen araudiaren arabera, 38 da jarduera-kodea (Hondakinak bildu, tratatu eta ezabatzea; balorizazioa).

- Autobabeserako plana.

Autobabeserako plana aurkeztu beharko da, azaroaren 2ko 277/2010 Dekretuan (zenbait jarduera, zentro edo establezimenduren autobabes-betebeharrak arautzen dituen, larrialdiei aurre egiteko) ezarritakoari jarraikiz.

- Funtzionamendu anomalorako prebentzio-neurriak eta jarduketak.

Beharrezkoa izanez gero, instalazioaren mantentze prebentiborako baldintza espezifikoak zehaztuko dira.

## ATALA: INGURUMEN-ERANTZUKIZUNA – BALDINTZA PARTIKULARRAK

## INGURUMEN-ERANTZUKIZUNAREN INGURUKO BALDINTZA PARTIKULARRAK

– Finantza-bermea – Baldintza Orokorrak betetzea.

Organo honek ingurumen-erantzukizunari eta finantza-bermeari buruz (Finantza-bermea – Baldintza Orokorrak) onartzen dituen jarduketak, ingurumen-baimen bateratua dutenak, ustiatzeko eta jarduteari uzteko baldintza orokorrak beteko dira.

– Finantza-bermea.

Ingurumen-arriskuen analisia egin ondoren finantza-berme bat formalizatzeko beharra berresten bada, berme horrek arriskuen analisi horren zenbatekotik aurrera finkatutako zenbatekoa izango du.

## ERANSKINA, USTIAPENERAKO ETA JARDUTEARI UZTEKO BALDINTZA OROKORRENA

Sustatzaileak ustiapenerako eta jarduteari uzteko bete beharko dituen baldintzak eta betekizunak eranskin honetan eta ustiapenerako eta IPPC jarduerak egiteari uzteko baldintza partikularren eranskinean jasotakoak izango dira.

## ATALA: OBRAK – BALDINTZA OROKORRAK

## JARDUERA EZARTZEKO EGOKITZAPEN-OBRETARAKO BALDINTZAK ETA BETEKIZUNAK

Babes- eta zuzenketa-neurriak indarrean dagoen araudiaren arabera egikarituko dira, hurrengo apartatuetan adierazitakoa kontuan hartuta, eta, aurrekoaren aurkakoa ez den orotan, sustatzaileak ingurumen-organo honetan aurkeztutako dokumentazioan aurreikusitakoa kontuan hartuta:

– Jarduera-esparrua zedarritzea.

a) Obrak eta lurzorua okupatzea dakarten eragiketa osagarriak proiektuaren mugen barruan burutuko dira. Ahalik eta gehien murriztuko da obrako makinak eta ibilgailuak aipatutako mugetatik kanpo zirkulatzea.

b) Aipatutako esparrutik kanpo istripuz gertatutako erasanen kasuan, zuzenketa- eta lehengoratzeko-neurri egokiak aplikatuko dira.

– Urak eta lurzorua babesteko neurriak.

a) Drainatze-sare naturalera ahalik eta hondakin fin gutxien isuriz egingo dira obrak. Horretarako, urak bideratzeko egiturak eta solido esekiei eusteko sistemak proiektatu eta, hala badagokio, egikarituko dira, kutsa litezkeen urak haietan biltzeko.

Hormigoi-upelak berariaz horretarako egokitutako guneetan garbituko dira. Ezingo da inola ere hormigoi-garbiketako esnea ibilgura isuri. Hormigoi-hondakinak kudeatzeko, ingurumen-baimen bateratuan hondakin-ekoizpenaz ezarritako baldintzei jarraituko zaie.

b) Obratiko makinak gordetzeko eremua eta horien mantentze-lanak egiteko gunea drainatze-sare naturaletik isolatuta egongo dira. Zolata iragazgaitza eta efluyenteak biltzeko sistema izango dute, olio eta erregaiak direla-eta lurzorua eta ura kutsa ez daitezten. Erregaien zamalanak, olio-aldaketak eta tailerreko jarduerak ezin izango dira horretarako adierazitako guneetatik kanpo egin.

– Zaratak, dardarak eta horien eraginak gutxitzeko neurriak.

a) Egokitzapen-obrek iraun bitartean, beharrezkotzat jotzen diren obrako jardunbide egokiak aplikatu beharko dira, obrako makinaren mantentze orokorrari eta zarata jatorrian murrizteari dagokienez.

b) Urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretuaren (Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legea garatzen duena, zonifikazio akustikoari, kalitate-helburuei eta emisio akustikoei dagokienez) 22. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, obrak egitean erabiliko diren makinak egokitu egin beharko dira kanpoan erabiltzeko makinaren soinu-emisioei buruz indarrean dagoen legerian ezarritako aginduetara, eta, bereziki, eta hala badagokio, Kanpoan erabiltzeko makinek ingurumenean sortzen dituzten soinu-emisioak arautzen dituen otsailaren 22ko 212/2002 Errege Dekretuan eta arau osagarrietan ezarritakora.

– Hauts-emisioak murrizteko neurriak.

a) Ibilgailuak garbitzeko gailuak jarriko dira obra-guneen irteeran.

b) Hezetasun-baldintza egokietan garraiatuko da hondeaketa-materiala, hain zuzen, zama estaltzeko gailuak dituzten ibilgailuetan, lohi eta partikularik ez barreiatzeko.

– Hondakinak kudeatzera bideratutako neurriak.

a) Obrek iraun bitartean sortutako hondakinak, lanak prestatzeko operazioetatik sortzen direnak, enbalajeak, errefus-lehengaiak eta garbiketa-lanetako soberakinak Hondakinak eta lurzoru kutsatuak arautu eta ekonomia zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legean eta aplikagarri diren araudi zehatzetan ezarritakoaren arabera kudeatuko dira.

Hondakinak kudeatzeko hierarkia-printzipioei jarraituz, hondakinak sortzea prebenitu behar da, edo, hala badagokio, Hondakinak eta lurzoru kutsatuak arautu eta ekonomia zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 8. artikuluan ezarritako lehentasun-hurrenkerari jarraituz kudeatu behar dira, hau da: prebenitzea, berrerabiltzeko prestatzea, birziklatzea eta balorizatzeko beste modu batzuk, balorizazio energetikoa eta deuseztatzea barne. Hondakinak ezabatzeko, ezinbestekoa izango da alde zuzenetik behar bezala justifikatzea haien balorizazioa ez dela bideragarria teknikoki, ekonomikoki edo ingurumenaren aldetik.

b) Eraikitze- eta eraispén-jardueren ondorioz sortutako hondakinak eraikuntza- eta eraispén-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen duen otsailaren 1eko 105/2008 Errege Dekretuan eta eraikuntza- eta eraispén-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen duen ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuan ezarritakoa betez kudeatuko dira.

Aipatutako 112/2012 Dekretuaren 4. artikuluan arabera, proiektuaren sustatzaileak hondakinen eta eraikuntza- eta eraispén-materialen kudeaketa-azterketa bat gehitu beharko du oinarriko proiektuetan eta obra gauzatzeko proiektuetan; azterketa horrek, l. eranskinean ezarritako gutxienezko edukia izan beharko du.

Halaber, otsailaren 1eko 105/2008 Errege Dekretuan ezarritako betekizunak betetzeaz gain, plan bat prestatuko du kontratistak, obrako eraikuntza- eta eraispén-lanetan sortzen diren hondakin eta materialekiko betebeharrak nola beteko dituen azaltzeko. Plan hori obraren kontratu-agiriei erantsiko zaie.

c) Zaborte-gira bidali beharreko hondakinak, hondakinak zaborte-gietan utzita deuseztatzea arautzen duen abenduaren 27ko 1481/2001 Errege Dekretuaren eta hondakinak hondakindegietan biltegitatuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuaren arabera kudeatuko dira.

Jardueraren soberakinak betelanetarako erabiltzen badira, otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuan xedatutako baldintzak bete beharko dituzte betegarri horiek.

EBA-A ebaluazioko balio adierazgarrietatik beherako eduki kutsatzaileak dituzten materialak soilik utzi ahal izango dira lursailak betetzeko edo egokitzeko, Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legearen III. eranskinean jasotakoari jarraikiz.

d) Hondakin arriskutsuak dauzkaten ontziek eta bilgarriek indarrean dagoen araudian ezarritako segurtasun-arauak bete beharko dituzte. Hondakin arriskutsuak dauzkaten ontziek eta bilgarriek etiketa argia, irakurgarria eta ezabagaitza eduki beharko dute, eta itxita egon beharko dute kudeatzaileari eman arte, edukiak isurita edo lurrunduta gal ez daitezen.

e) Industrian erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duen ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuari jarraituz kudeatu beharko da sortutako olio erabilia.

Olio erabilia aldi baterako biltegitratzea, hau da, baimendutako kudeatzaileak biltzen dituen arte, ontzi edo segurtasun-sistema batean gordetako deposituetan egingo da, horrela, depositu nagusiak haustura edo galeraren bat izanez gero, olio sakabanatu ez dadin.

f) Hondakinak kudeatzeko araudia errazago bete ahal izateko, hainbat lanetan sortutako hondakinak kudeatzeko sistemak jarri beharko dira. Lan horien arduradunek kudeatuko dituzte sistema horiek eta haien ardura izango da, halaber, beharginek hondakinak behar bezala erabiltzea. Bereziki, inola ere ez da kontrolik gabeko efluentetik sortuko erregai eta produktuak biltegitratzeagatik, makinaren mantentze-lanak egiteagatik edo hondakinak erretzeagatik.

g) Aurrekoaren ildotik, gune espezifiko bat prestatuko da, eta bertan jarriko dira hondakin arriskutsuak (olio-latak, iragazkiak, olioak, pinturak eta abar) aldi baterako gordeko dituzten instalazio estaliak. Gainera, hondakin arriskugabeak eta inerteak biltzeko edukiontzi espezifikoak jarriko dira beste leku batean, aurrekoetatik bereizirik. Edukiontzi horiek itxita egongo dira kudeatzaileari eman arte, edukirik gal ez dadin isurita edo lurrunduta. Orobat, obrak egiten ari diren bitartean sortzen diren hondakinak biltzeko elementu estankoak (bidoiak eta abar) instalatu behar dira; hondakinak moten arabera bereizi behar dira, aipatutako garbigunean aldi baterako gorde aurretik.

h) Obretan sortutako hondakinen ingurumen-jarraipena jasoko duen txosten bat egin beharko da, eta indarreko legedian jasotako identifikazio-dokumentuak eta tratamendu-kontratuak txosten horretan sartu beharko dira.

– Kultura-ondarea babesteko neurriak.

Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legeak ezarritako gainerako xedapenak gorabehera, obretan aztarna arkeologikoren bat egon daitekeela pentsarazten duen zerbait aurkitzen bada, berehala jakinaraziko zaio obrak egingo diren lurraldeko foru-aldundiko Kulturako Zuzendaritza Orokorriari; gero, beharrezkoa izanez gero, hark erabakiko du zer neurri ezarri.

– Garbiketa eta obra-akabera.

Behin obra amaituta, garbiketa-kanpaina sakona egingo da, proiektuaren eraginpean egon den esparru osoan obra-hondakinik batere ez uzteko.

– Ingurumen-aholkularitza.

Obrak amaitu arte eta obra horren bermeak dirauen arte, ingurumen gaietan, kultura-ondarearen zaingoan eta neurri babesle eta zuzentzaileetan, aholkularitza gaitua eduki beharko du obraren zuzendaritzak, ingurumen-inpaktuaren azterketako zehaztapenen arabera. Obra-zuzendaritzaren ebazpenek, baldintza-agiriak gai horiei buruz esleitzen dizkion funtzioei dagokienez, aholkularitza horrek egindako alde aurreko txostena izan beharko dute.

– Lan-programa diseinatzea.

Kontratatik jarduera-proposamen xehatu batzuk egin beharko ditu, ondorengo azpiapartatuetan adierazitako alderdiei buruz. Proposamen horiek ebazpen honetan kasu bakoitzerako ezartzen diren irizpideen arabera diseinatuko dira. Obra-zuzendaritzak espresuki onetsi beharko ditu eta lanak burutzeko programan txertatuko dira. Hauek dira dokumentuak:

a) Kontratataren instalazio-eremuen kokapenari eta ezaugarriei eta hondakinak aldi baterako biltegitzeari buruzko xehetasunak, ingurumen-baimen bateratuan ezarritakoarekin bat etorritik.

b) Ur-eroanbideen sareen eta solido esekiak atxikitze gailuen xehetasunak eta kokapena, ingurumen-baimen bateratuan ezarritakoarekin bat etorritik.

c) Ibilgailuak garbitzeko gailuen xehetasunak eta kokapena, ingurumen-baimen bateratuan ezarritakoarekin bat etorritik.

d) Obretan sortutako eraikuntza- eta eraiste-hondakinak kudeatzeko plana, eraikuntza- eta eraiste-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen dituen ekainaren 26ko 112/2012 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera.

– Jardunbide egokiak kontrolatzea obren garapenean zehar.

Obren jardunbide egokiaren kontrola egingo da, eta bereziki kontuan hartuko dira alderdi hauek: hondakinen kudeaketa, hondeaketa-soberakinena ere aintzat hartuz, hautsa eta zarata sortzea eta Ebazpen honetan adierazitako bestelako alderdiak.

– Obra-amaierako txostena.

Sustatzaileak obraren amaierako txostena bidali beharko dio ingurumen-organo honi; obrak egin bitartean izan diren gertaeren berri emango du bertan, eta ebazpen honetan nahiz ingurumen-inpaktuaren azterketan jasotako babes- eta zuzenketa-neurriak zenbateraino betetzen diren azalduko du, eta ingurumen-organoak indusketa-materialak behar bezala kudeatzeko ezarritako neurrien berri ere emango du.

Horrekin batera, eta hala badagokio, proiektua gauzatu bitartean sartutako aldaketak xehetasunez dokumentatu beharko dira, eta ingurumen-inpaktuaren ikuspegitik duten justifikazioa azaldu. Halaber, eraikuntza-fasean baliatutako ingurumena zaintzeko programaren emaitzak eta indusketa-materialen helmuga zehatza dokumentatu behar dira, material horien zenbaketari eta ezaugarriei buruzko datuak gehituta.

#### ATALA: HONDAKINEN KUDEAKETA – BALDINTZA OROKORRAK

##### HONDAKINEN KUDEAKETAREN INGURUKO BALDINTZA OROKORRAK

– Administrazioarekiko harremanen arduraduna.

Administrazioarekiko harremanez arduratzen den arduradunari buruzko datu hauek jakinaraziko zaizkio organo honi: izen-abizenak, helbidea eta titulazioa.

Administrazioarekiko harremanez arduratuko den goi-mailako tituludunari buruz organo honi eman zaizkion datuetan aldaketarik balego, instalazioaren titularrak aldaketa horien berri emango du.

– Erantzukizun zibileko aseguru.

Erantzukizun zibileko aseguru bat eratu beharko da, eta alderdi hauek estaliko ditu: hirugarren pertsonen edo horien ondasunei sortutako balizko kalteengatiko kalte-ordainak, eta baimen honek onartutako jardueraren ondorioz ingurumen aldatua konpondu eta berreskuratzeko kostuak.

Aseguaren gutxienezko zenbatekoa «Hondakinen Kudeaketa – Baldintza Partikularrak» atalean ezarritakoa izango da.

Aseguru horren zenbatekoa urtero eguneratu ahal izango da, aurreko 12 hilabeteetako kontsumoko prezioen indizearen (KPI) arabera handituta.

– Hondakin onargarriak eta kudeaketa-eragiketa.

«Hondakinen Kudeaketa – Baldintza Partikularrak» atalean zerrendatuta dauden hondakinak bakarrik kudea daitezke, Europako Hondakinen Zerrendan (EHZ) jasota daudenak. Zerrenda hori Batzordearen 2014ko abenduaren 18ko Erabakiaren bidez argitaratu zen (erabaki horren bidez aldatu egin zen 2000/532/EE Erabakia, hondakinen zerrendari buruzkoa, Europako Parlamentuaren eta Batzordearen 2008/98/EE Zuzentarauan xedatutakoa betez).

Hondakin arriskugabeak soilik kudeatuz gero, jasotako hondakin horiek ezingo dute izan 2008/98/EE Zuzentaruaren III. eranskina ordeztzen duen Batzordearen 2014ko abenduaren 18ko 1357/2014 Erregelamenduan ezarritako arrisku-ezaugarrietako bat ere.

Hondakinak eta lurzoru kutsatuak arautu eta ekonomia zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen II. eranskineko kodeak dagozkie jarduera kudeatzeko eragiketeki.

– Autosufizientzia- eta hurbiltasun-printzipioak.

Euskadiko Hondakinak Prebenitu eta Kudeatzeko 2030eko Planak hondakinen kudeaketan ezartzen dituen autosufizientzia- eta hurbiltasun-printzipioak betez, ahal dela, EAEn sortutako hondakinak kudeatuko dira.

– Onartzeko baldintzak eta kontrolak.

Balorizatze onargarriak diren hondakinak «Hondakinen Kudeaketa – Baldintza Partikularrak» atalean xehatzen dira.

Sustatzaileak hondakinak balorizatuko ditu, «Hondakinen Kudeaketa – Baldintza Partikularrak» atalean deskribatutako jardueraren bidez.

Instalazioan tratatzea aurreikusten den hondakin-jatorri berri bakoitzeko, operadoreak dagokion tratamendu-kontratua igorriko dio organo honi, eta kontratu horretan, hala badagokio, hondakina onartzeko parametro mugatzaile edo baldintzatzaileen proposamena erantsiko da. «Ingurumena Zaintzeko Programa – Baldintza Orokorrak» atalean ezarritako moduan entregatuko da.

Tratamendu-kontratu horietan hasieran proposatutako baldintzetan aldaketaren bat balego, ekoizlea eta kudeatzailea aldatu ez arren, kontratuak ingurumen-organon bidaliko dira berriro, «Ingurumena Zaintzeko Programa – Baldintza Orokorrak» atalean ezarritakoaren arabera.

Hondakin jakin bat onargarria dela egiaztatu ondoren, jardueraren titularrak dokumentu horren titularrari onarpena ziurtatzen duen agiria igorriko dio, onarpen horren baldintzak ezarrita. Horrez gain, hondakina onartzeko parametro mugatzaileak edo baldintzatzaileak jasoko dira, eta, hala badagokio, hondakin-partida bakoitza hartu aurretik aztertu beharreko parametroak.

Instalazioan inolaz ere ez dira onartuko baimendu ez diren hondakinak, edo hondakin onargarrien artean adierazitakoak izanik ere, bestelako hondakin mota generikoren batekin nahastuta egoteagatik kutsatuta daudenak.

Hondakin bat baztertzeko denean, eta hondakin horren EHZ kodea hondakin baimenduena bada, tratamendu-kontratuan aurreikusitakoarekin bat etorritik, organo honi jakinarazpen bat bidaliko zaio berehala (ippc@euskadi.eus helbide elektronikora), eta honako hauek jakinarazi beharko zaizkio:

– Baztertzeko arrazoia.

– Lekualdaketaaren operadoreak hondakin baztertua kudeatzeko aukeratu duen bide alternatiboa.

Onartu ez den partida beste autonomia-erkidego batetik badator, jatorrizko ingurumen-organismoari ere jakinarazi beharko zaio.

Hondakin bat ezin bada onartu, zeinaren EHZ kodea hondakin baimenduen artean baitago, tratamendu negatiboaren kontratu bat egin beharko da, hondakin horiek kudeatzeko ezintasunaren arrazoia azalduz.

– Hondakinen lekualdaketa.

Hondakinak lekualdatzeko, hondakinak lekualdatzen diren guztietan, bai instalaziotik kanpora, bai kanpotik instalaziora, behar bezala bete beharko da ekainaren 2ko 553/2020 Errege Dekretua eta Euskal Autonomia Erkidegoan gerora egiten den arau horren garapena.

Horrekin bat etorritik, hondakinak lekualdatzeko, identifikazio-agiri bat aurkeztu beharko da, jarraipen eta kontrola egiteko, Hondakinak eta lurzoru kutsatuak arautu eta ekonomia zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 31.2 artikulua araberan.

Euskadiko Hondakinak Prebenitu eta Kudeatzeko 2030 Planeko helburu estrategikoetan ezarritakoarekin bat etorritik, helburu horiek behar bezala bete ahal izateko, organo honek kudeatzen diren hondakinen jatorriari buruzko azalpenak eska ditzake horien jatorri nagusia Euskal Autonomia Erkidegoa ez denean, eta hori egingo du autosufizientzia- eta gertutasun-printzipioak aintzat hartuta.

Jardueraren titularrak lekualdaketaari buruzko informazioa jaso beharko du bere fitxategi kronologikoan, eta identifikazio-agiriaren kopia sinatua gorde beharko du hiru urtez; bertan, hondakinak entregatu eta onartu izana adieraziko da.

Aldez aurretik jakinarazi beharreko hondakinen lekualdaketa identifikatzeko dokumentuen kasuan, jardueraren titularrak hondakina jasotzen denetik gehienez 30 eguneko epea izango du identifikazio-agiri hori organo eskudunari bidaltzeko. Bidalketa hori gauzatzeko, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailaren ingurumen-informazioa kudeatzeko sistema baliatuko du.

– Espainiaz kanpotik inportatutako hondakinak.

Kudeatu beharreko hondakinak beste estatu batzuetakoak badira, Hondakinen lekualdaketai buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2024ko apirilaren 11ko 2024/1157 (EB) Erregelamenduan ezarritakoa bete beharko da.

Gainera, aurreikusten bada zabortegean deuseztatu beharko direla inportatu beharreko hondakinak zein inportatutako hondakinen helmugako instalazioan aurreikusitako balorizazio- eta deuseztatze-tratamendutik lortutako korrante nabarmenen bat, orduan, kontsulta bat egin beharko zaio organo honi, justifikatuz aurreikusitako mugaz gaindiko lekualdaketa bat datozela EAeko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko 2030 Planean zehaztutako hondakinen inguruko plangintzaren helburuekin.

– Hondakin arriskutsuen lekualdaketa kontrolatzea.

Bai ontziratzeke eta biltzeko baldintzek, bai sustatzaileak hondakin arriskutsuak errepidez garraiatzeko erabili beharreko garraio-bideek, gai horiek errepidez garraiatzeari buruz indarrean dagoen legerian ezarritako xedapenak bete beharko dituzte.

Baimenean jasotako hondakin arriskutsuak salgai arriskutsuztat jotzen badira Salgai Arriskutsuen Errepideko Nazioarteko Garraioari buruzko Europako Akordioaren (ADR) B eranskinaren arabera, eta hondakin horiek ibilgailu propioekin garraiatzen badira, ontziratzeke eta biltzeko baldintzek eta sustatzaileak erabili beharreko garraio-bideek salgai arriskutsuen errepideko garraioari buruz indarrean dagoen legerian ezarritako xedapenak bete beharko dituzte.

Nolanahi ere, sustatzaileak deklaraturako garraio-unitate bakoitzeko hondakin arriskutsuen kantitatearen eta salgaiak paketatzeke baldintzen arabera, xedapen horiek 1.1.3.6.2 apartatuan (kopuruengatik salbuespen partziala garraio-unitate bakoitzeko) eta 3.4 kapituluan (bilgarriagatik salbuespenak kopuru mugatuetan) ezarritakoetara mugatu ahal izango dira, puntu horietan jasotako zehaztapenak betetzen badira.

– Hondakinen sarrera-kontrola.

Balorizazioa egiteko, instalaziora iristen diren hondakin arriskugabeen kontrola egin beharko da, bermatzeko ezen baimen honetako baldintzen arabera onargarriak direla instalazioan.

Kontrol horretan, ingurumen-organo honek onartutako tratamendu-kontratuan ezarritako egiaztapena egin beharko da. Agiri horretan, muga-parametroak eta onartzeko baldintzak ezarriko dira. Egiaztatze hori sarrera-kontrolako agiri batean erregistratuta geratuko da.

Tratamendu-kontratuak Espainiaren lurralde barruko hondakinen lekualdaketa arautzen duen ekainaren 2ko 553/2020 Errege Dekretuaren 5. artikuluan ezarritakoa bete beharko du, eta, besteak beste, alderdi hauek jaso beharko ditu: hondakinei emango zaien tratamendua, hondakin horiek onartzeko baldintzak eta alderdiek dituzten betebeharrak hartzaileak hondakina baztertzen badu.

Ezin izango dira onartu baimen honetan adierazitakoez bestelako hondakinak. Nolanahi ere, beste hondakin batzuk ere kudeatu nahi badira, beharrezkoa izango da aldez aurretik organo honen onspena, ingurumen-baimen bateratuan xedatutakoari jarraikiz.

– Zamalanak.

Hondakin horien zamalanak egiteko ibilgailuen aparkalekuek zola iragazgaitza izango dute, eta behar diren maldak eta balizko isuriak biltzeko sareak, horiek kutxatila itsurantz edo biltzeko putzurantz zuzentzeko, bidean ibilgailuaren azpitik igaro gabe edo beste ibilgailu edo instalazio batzuetara hurbildu gabe.

Zamalanak egitean, hondakin arriskutsuak kudeatuz gero, gai arriskutsuak manipulatzeko eskatutako segurtasun-baldintzak bete beharko dira.

Instalazioan egiten diren hondakinen zamalanek eta manipulazioek, ekipoen estankotasunak eta deskargatzeetan biltegitratutakoen xurgapenak emisio lausoak edo kontrolik gabeak saihestu beharko dituzte, edo, saihestu ezin denean, ahalik eta gehien murriztu.

– Jasotako hondakinak biltegitratzea.

Ingurumen-baimen bateratuan adierazitako hondakinen biltegitratze-denbora «Hondakinen Kudeaketa – Baldintza Partikularrak» atalean zehaztutakoa izango da.

Salbuespenezko kasuetan, ingurumen-organoak epe hori aldatu ahaliko du, behar bezala justifikatutako arrazoiak direla medio, baldin eta giza osasuna eta ingurumena babestuko direla bermatzen bada.

Ezingo da gainditu ezarritako biltegitratze-ahalmena, baimenean kopururen bat zehaztu bada.

Ontziratutako gabeko hondakinak beren izaera, osaketa eta kodifikazioaren arabera homogeneous direnekin batera soilik biltegitratu ahal izango dira, eta aldeztu aurretik karakterizazioa egin beharko da, ziurtatzeko elkarrekin biltegitratzeak ez duela arriskua areagotzen, ezta haren azken kudeaketa zailtzen ere.

Tratatu beharreko hondakinak biltegitratzeko instalazioek lurzoru iragazgaitzak izango dituzte, aurreikusitako zamak jasateko eta egon litezkeen ihes edo isuriei eusteko gai direnak, eta biltegitratze-eremu bereziak izan beharko dituzte hondakin onargarrien mota generiko bakoitzerako.

Hondakin arriskutsuak biltegitratzearen ondoriozko arriskuak murrizte aldera, jardueraren titularrak eremu bereizi bat jarri beharko du instalazioetan horiek biltegitratzeko. Gune horrek estalita egon beharko du eta lurzoru iragazgaitzak izan beharko ditu.

Instalazioan onartutako hondakinak biltegitratzeko orduan, prezipitazio atmosferikoak sartzea eta haizeak hondakinak arrastatzea saihestu beharko da.

Hauts-itxurako hondakinak eta soltean jasotakoak pabiloiaren barruan gorde beharko dira, multzotan edo gelaxketan, tratamendua egiteko unea iritsi arte.

Pilak edo bateriak kudeatzen badira, plastiko indartuzko edukiontzietan biltegitratuko dira.

Egoera fisiko likidoan edo oretsuan dauden edo oso bustita daudelako isurketak edo lixibiatuak sor ditzaketen hondakinen kasuan, horiek biltzeko ontzi edo sistema egokiak jarriko dira, ezbeharrez gerta daitezkeen isurketak kanpora irten ez daitezkeen. Bilketa-sistemek independenteak izan behar dute isuriren bat gertatu eta nahasiz gero arriskugarritasuna handitzea edo kudeaketa zailtzea dakarten hondakin motetarako.

Hondakinak desagertu edo galtzen badira, edo ihesen bat gertatzen bada, berehala jakinaraziko da gertatutakoa ingurumen-organo honetan eta udalean.

Instalazioaren etenaldi teknikoaren egoera berezietan, edo instalazioaren ezohiko funtzionamenduaren ondoriozko bestelako egoeretan, instalazioaren titularrak baimendutako hondakinen transferentzia-zentro gisa jardun ahal izango du, hondakinak kudeatzeko beste instalazio baimendu batera eramateko.

– Kudeatzaile baimenduari entregatzea.

Bai transferentzia-zentro gisa jardunda jaso daitezkeen hondakinak, bai jardueraren garapenean bertan sortutako hondakin guztiak, horretarako baimendutako kudeatzaileari entregatu beharko zaizkio.

– Tratamendu-kontratuen indarraldiaren ziurtapena.

Aldian-aldian egiaztatu beharko zaio organo honi indarrean jarraitzen dutela instalazioko titularraren

eta hondakinak kudeatzen dituzten hartzaileen artean ezarritako tratamendu-kontratuek. Hondakinak hartzen dituzten kudeatzaile horiek Espainiatik kanpo badaude, beharrezkoa izango da mugen arteko garraioak arautzen dituen Batasuneko arautegia betetzea.

– Kudeaketa-eragiketen hierarkia.

Edonola ere, birziklatu edo balorizatu daitezkeen hondakin kudeatuak helburu horietara bideratuko dira, eta jardueraren titularrak hondakin horien hartzaileekin egindako tratamendu-kontratuetan jasoko da gertaera hori.

– Kudeatutako hondakinen datuen erregistroa. Artxibo kronologikoa.

Hondakinak eta lurzoru kutsatuak arautu eta ekonomia zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 64. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, jardueraren titularrak fitxategi elektroniko bat izan beharko du, eta bertan, esku hartutako jarduera guztiei buruzko datuak jasoko dira ordena kronologikoan. Aipatutako fitxategi kronologikoan sartuko da, orobat, hondakinen ekoizpen- eta kudeaketa-lanen agiri bidezko egiaztapenean bildutako informazioa, eta bertan, gutxienez, datu hauek jasoko dira:

a) Onartutako hondakinen jatorria (jatorria eta prozesua, enpresa sortzailea eta enpresa garraiolaria).

b) Hondakin horien kantitateak, izaera, konposizioa eta identifikazio-kodea.

c) Hondakin-partida bakoitzaren onarpen- eta harrera-data, eta, hala dagokionean, ematean sortutako kontrol- zein jarraipen-agiria.

d) Onartu ez diren hondakin-partidei buruzko datuen erregistroa (jatorria, kopurua, enpresa garraiolaria, ez onartzeko arrazoiak eta ordezeko helmuga).

e) Biltegiatutako hondakinak instalazioko zer tokitan dauden.

f) Hondakinak aldeztatik egokitzeko edo multzokatzeko eragiketak, hondakin-partiden datak, parametroak eta haiei buruzko datuak, hondakinen ondorengo helmuga eta partida bakoitzari emandako EHZ kodea.

g) Instalazioko kudeaketa-lanen datak edo azken kudeatzaile baimenduari bidalketa egin zaionekoa, kudeatzaile horren identifikazio-datuak, eta, hala badagokio, sortutako identifikazio agiriarenak.

h) Bereizitako hondakin arriskutsuen mota bakoitzaren izaera eta pisu-frakzioa.

Artxibo kronologiko hori bost urtez gorde beharko da gutxienez, eta urtero bidali beharko da organo honetara, «Ingurumena Zaintzeko Programa – Baldintza Orokorrak» atalean ezarritakoaren arabera.

– Artxibo kronologikoaren laburpen-memoria.

Hondakinak eta lurzoru kutsatuak arautu eta ekonomia zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 65. artikuluekin bat etorritik, urte bakoitzeko martxoaren 1a baino lehen aurkeztu beharko da fitxategi kronologikoan jasotako informazioaren memoria laburra, dagokion urteko ingurumena zaintzeko programaren barruan.

Laburpen-memoriak ekitaldi bakoitzaren amaieran behin-behinean biltegiratutako hondakinen eta hondakin kopuruaren zerrenda ere jasoko du, instalazioan tratatzeko onartuta baina oraindik tratatzeke dauden hondakinena, bai eta sortutako hondakinena ere.

Aurreko apartatuetan adierazitako agiriak organo honetara bidaliko dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eskura jarritako kanal, sistema edo aplikazio informatikoak erabiliz.

– Larrialdietan berehala jarduteko bitartekoak.

Larrialdirik gertatuz gero, berehala esku hartzeko beharrezkoak diren material guztiak edukiko dira, kopuru nahikoan: berriro ontziratzeke erreserbako edukiontziak, beharrezkoa izanez gero; gerta daitezkeen isuriei eusteko produktu xurgatzaile selektiboak; segurtasuneko edukiontziak; kaltetutako inguruneak isolatzeko hesiak eta seinaleztapen-elementuak; eta norbera babesteko ekipamenduak.

– Suteen aurkako segurtasun-neurriak.

Suteak itzaltzeko, industria-establezimenduetan suteen aurkako segurtasunaren arloan eskumena duten organismoek eskatutako ekipoak eta agenteak instalatuko dira. Hondakin erregaiak (plastikoak, pneumatiko erabiliak, etab.) biltegiratzeko berariazko eremuan sute-arriskuak prebenitzeko neurri zorrotzak ezarriko dira, esaterako, gehiegizko metatzeak saihestuko dira.

– Hondakinak balorizatzean sortutako hondakinak.

Hondakinen balorizazio-prozesuan sortutako substantziak —«Hondakinen Kudeaketa – Baldintza Partikularrak» atalean jasotako kudeatzeko eragiketak aplikatuta— juridikoko «hondakin» gisa hartzen jarraituko dira, Hondakinak eta lurzoru kutsatuak arautu eta ekonomia zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 2.a) artikuluan zehazten den moduan. Horrenbestez, legerian aurreikusten diren tratamenduari edo garraioari buruzko eskakizunak bete beharko dituzte, bereziki lege horren 23.3 artikuluan adierazitakoa kontuan hartuta.

Instalazioaren titularrak hondakin horiek hondakin izateari uztea nahiko balu, dagokion prozedura abiarazi beharko du, 7/2022 Legearen 5. artikuluan («Hondakin izateari uztea») ezarritakoari jarraikiz.

– Hondakin izateari uztea aintzat hartzeko bete behar diren baldintzak.

Hondakin izateari utzi zaiola deklaratzeko, Hondakinak eta lurzoru kutsatuak arautu eta ekonomia zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 5. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da.

«Hondakinen Kudeaketa – Baldintza Partikularrak» atalean eskatutako hondakinek hondakin izateari uzten ez badiote, hondakin gisa kudeatu beharko dira, eta kudeatzaile baimenduari bakarrik bidali ahal izango zaizkio.

## ATALA: AIREA – BALDINTZA OROKORRAK

### AIREAREN KALITATEA BABESTEKO BALDINTZA OROKORRAK

– Baldintza orokorrak.

Instalazioa ustiatzean, ez dira gaitutako ingurumen-baimen bateratu honetan ezarritako gehieneko emisioen muga-balioak, eta ingurumen-organo honek ezarritako baldintza teknikoak bete beharko dira.

Prozesuan zehar aireratzen den gai kutsatzaile oro bildu eta ihesbide egokienean zehar kanpora bideratu beharko da, behar denean, gasak arazteko sistema batetik igaro ondoren, zeina emisio horien ezaugarrien arabera diseinatutako baita.

Arau orokor honetatik salbuetsi ahalko dira emisio konfinatu gabeak, baldin eta teknikoki edota ekonomikoki atzeman ezin badira edo ingurunean oso eragin txikia dutela frogatuta badago.

Neurri egokiak hartuko dira istripuz gertatutako emisioen probabilitatea txikitzeko, eta haien efluenteez giza osasunerako nahiz segurtasun publikorako arriskurik ez izateko. Gas-efluenteak tratatzeko instalazioak behar bezala ustiatu eta mantenduko dira; alegia, efluenteen tenperatura- eta konposizio-aldaketei eraginkortasunez aurre egiteko moduan. Era berean, ahalik eta gehien laburtuko dira instalazio horiek gaizki dabilizan edo erabili ezin diren aldiak.

Atmosfera kutsa dezaketen jardueretarako instalazioak arautzen dituen abenduaren 27ko 278/2011 Dekretuaren 5. artikuluan jasotako betebeharrak bete beharko dituzte instalazioaren titularrek.

Atmosferaren arloko eskumenak dituen sailak argitaratutako jarraibide tekniko guztiak bete beharko dituzte elementu hauek: sekzioa, neurketa-gunea, laginketa-guneak, neurketa-portuak, irisgarritasuna eta fokuen segurtasuna eta zerbitzuak.

Organo horrek foku berri bat baimendu ondoren, hura abiarazten denetik sei hilabete igaro baino lehen, ingurumen-kontroleko entitate batek egindako hasierako ILE txosten bat igorri beharko da. Nolanahi ere, epe hori luzatzeko eskatu ahal izango dio ingurumen-organoari, betiere behar bezala justifikatutako arrazoiak direla medio.

– Atmosfera kutsa dezaketen jarduerak.

Instalazioan gauzatzen diren jarduerak Atmosfera kutsa dezaketen jardueren katalogoa eguneratzeko eta katalogoa aplikatzeko oinarriko xedapenak finkatzeko urtarrilaren 28ko 100/2011 Errege Dekretuaren katalogoan jasotakoak izango dira.

– Fokuak identifikatzea. Katalogazioa.

Instalazioak «Airea – Baldintza Partikularrak» atalean jasotako fokuak ditu, Airearen kalitateari eta atmosfera babesteari buruzko azaroaren 15eko 34/2007 Legean adierazitako atmosfera kutsa dezaketen jardueren katalogoan sartuta daudenak.

Foku ez-sistematikoetako bat, batez beste, urtean hamabi alditan baino gehiagotan funtzionatzera pasatuko balitz, ordubete baino gehiagorako aldiro, edo, maiztasuna edozein dela ere, emisioen iraupen orokorra instalazioaren funtzionamendu-denboraren ehuneko bostetik gorakoa bada, emisio-foku gisa araupetu beharko da.

Urte jakin batean foku sistematiko batek foku ez-sistematiko gisa funtzionatzen badu, ez da foku horren gaineko kontrolik egin beharko urte horretan. Hurrengo urtean egin beharko da, baldin eta kontrola salbuesteko baldintzek ez badute bere horretan jarraitzen. Ingurumena zaintzeko dagokion programan justifikatu beharko da inguruabar hori.

– Emisioen muga-balioak.

Instalazioa ustiatzean, bermatu beharko da atmosferara egingo diren emisioek ez dituztela gaindituko «Airea – Baldintza Partikularrak» ataleko taulan jasotako emisioetarako ezarritako muga-balioak.

Emisio-balioak betetzen diren ebaluatzeko, abenduaren 27ko 278/2011 Dekretuaren 9. artikulua ezartzen duena beteko da. Ikusten bada emisioen muga-balioren bat ez dela betetzen, behar diren zuzenketa-neurriak hartu beharko dira luzamendurik gabe, eta, berehala, ez-betetzearen, zuzenketa-neurrien eta haien epeen berri eman beharko zaio ingurumenaren arloko eskumenak dituen sailari.

– Gasak biltzeko eta husteko sistemak.

Fokuetako hondakin-gasak kanporatzeko tximiniak ez dira egongo «Airea – Baldintza Partikularrak» ataleko taulan ezarritako goreneko kotatik behera. Atmosferaren arloko eskumenak dituen sailak argitaratutako jarraibide tekniko guztiak bete beharko dituzte elementu hauek: sekzioa, neurketa-gunea, laginketa-guneak, neurketa-portuak, irisgarritasuna eta fokuen segurtasuna eta zerbitzuak.

– Emisio lausoak.

Instalazioan emisio lausoen fokuek identifikatzen badira, neurri hauek hartu beharko dira:

– Zamalanak. Garraioa:

• Zamalanak olagarroarekin:

- Materialen zamalanak ahalik eta gehien murriztea.
- Materiala deskargatzeko unean erorketa-altuera ahalik eta gehien murriztea.
- Materiala hartu ostean zalia edo gakoak erabat ixtea.
- Deskargatu ostean, zalia pilatan denbora nahikoan uztea.

• Zamalanak pala mekanikoarekin:

- Materialen zamalanak ahalik eta gehien murriztea.
- Materiala deskargatzeko unean erorketa-altuera ahalik eta gehien murriztea.
- Kamioiak kargatzean, pala kamioiaren ohean ahalik eta gehien sartzea.

• Bestetik, materiala garraiatuko duten kamioiak olanekin edo hautsa harrotzea saihesten duten bestelako elementuekin estali beharko dira.

• Era berean, murriztu egingo da ibilgailuen abiadura, eta zolatuta egon beharko dute ibilgailuen zirkulazio-eremuek.

– Bideak, lurzorua eta makineria garbitzea:

• Bideak, lurzorua eta makineria aldian-aldian garbituko dira.

• Bideak eta lurzoruak garbitzeko, ekortzeko eta baldekatzeko makinak erabiliko dira, eta baldekatzeko ekipoa eta ekortzekoa konbinatuko dira, hautsa ez dadin barreiatu.

Emisio lausoak minimizatze aldera, emisioak biltzeko sistemen mantentze-lan egokia egingo da; horrez gain, besteak beste, instalazioa garbituko da, kanpoko ateak eta pabiloienak itxiko dira, eta ingurumen-praktika egokiak eta teknika erabilgarri onenak aplikatuko dira.

Administrazioak foku lausoen irteerak egoki daitezen eskatu ahal izango du, emisio bideratuen baimenean sartzeko, horiei dagozkien muga eta neurketa-aldizkakotasunekin.

– Atmosferara egindako emisioak kontrolatzea.

Instalazioak emisioak kontrolatu beharko ditu, baimeneko «Airea – Baldintza Partikularrak» ataleko taulan ezarritakoari jarraikiz.

Aipatutako neurketa guztiak ingurumen-lankidetzako II. mailako erakunde (ILE) batek egin beharko ditu, urriaren 16ko 212/2012 Dekretuan ezarritakoari jarraituz, eta aldizkako neurketa horiei buruzko txostenek Ingurumeneko sailburuaren 2012ko uztailaren 11ko Aginduan eskatzen diren baldintza guztiak bete beharko dituzte, bereziki honako hauei dagokienez: neurketaren helburua eta plana, neurketen adierazgarritasuna, neurketa kopurua eta banakako neurketa bakoitzaren iraupena, eta erreferentzia-metodoak hautatzeko irizpidea.

Halaber, «Airea – Baldintza Partikularrak» atalean azaldutako emisio-foku baten kontrola egin behar den urtean, foku horrek urtean hamabi aldiz baino gutxiagoko batez besteko maiztasunarekin funtzionatzen badu, emisio bakoitzak ordubete baino gehiago irauten duela, edo, bestela, edozelako maiztasunarekin, emisioaren iraupen globala instalazioaren funtzionamendu-denboraren ehuneko bostetik gorakoa bada, urte horretan ez da beharrezkoa izango foku horren kontrolik egitea, eta hurrengo urtean egin beharko da, betiere kontroletik salbuesteko baldintzek irauten ez badute. Inguruabar hori dagokion urteko ingurumena zaintzeko programan justifikatu beharko da.

Lortutako emaitzen erregistro bat egingo da eguneratutako dokumentazioarekin, betiere xedapen hauetan ezarritakoari jarraikiz: atmosfera kutsa dezaketean jardueren katalogoa eguneratzen eta hura ezartzeko oinarritzko xedapenak finkatzen dituen urtarrilaren 28ko 100/2011 Errege Dekretuaren 8. artikulua, eta atmosfera kutsa dezaketean jarduerak egiten dituzten instalazioak arautzen dituen abenduaren 27ko 278/2011 Dekretuaren III. eranskina.

Erregistro hori eguneratuta eta ingurumen-ikuskatzaileen eskura egon beharko da.

Jardueraren kontrolean sortutako dokumentazioa ingurumen-organoari igorriko zaio, «Ingurumena Zaintzeko Programa – Baldintza Orokorrak» atalean adierazitakoaren arabera.

– Usainen kontrola.

Instalazioaren titularrak kiratsak eragindako eragozpenak minimizatu beharko ditu. Hala badagokio, eskumena duen organoak egoki iritzitako prozesuen emisioak biltzeko eta arazteko eskatu ahal izango dio instalazioaren titularrari.

Instalazioak isurtzen dituen usainak zehaztu beharko dira. Ikerketa olfatometriko hori egiteko, irizpide hauek jarraitu beharko dira:

– Iturri konfinatuak eta lausoak identifikatu beharko dira, eta horien usain-jarioak karakterizatu beharko dira.

– Usain-iturri bakoitzean, usainaren kontzentrazioa, usain-jarioaren abiadura eta usainaren emaria zehaztu beharko dira.

– Laginketa, usainaren kontzentrazioa, hedatzeko abiadura eta usain-jarioaren zehaztapena arau honen arabera egingo da: UNE-EN 13725:2004 «Airearen kalitatea. Usainaren kontzentrazioa olfatometria dinamikoaren bitartez zehaztea».

– Usain-jario bakoitzean hiru lagin hartuko dira gutxienez.

– UNE-EN 13725:2004 arauaren arabeko ziurtagiria duten entitateek zehaztuko dituzte instalazioko usain-emisioak.

Usain-jarioen eragin negatiboa ebaluatzeko, aipatutako ikerketa olfatometrikoa osatzeko usainen hedapenaren modelizazioa ere egin beharko da.

Modelizazio hori egitean eta horren emaitzak eta ondorioak aurkeztean, Ingurumen Sailburuordetzak argitaratu duen «Dispertsio-ereduak egiteko jardunbide egokien gidan» ezarritakoari jarraitu beharko zaio. Emaitzak dagokion ingurumena zaintzeko programan bidaliko dira.

Halaber, kirats-jariorik ez sortzeko edo, hori ezinezkoa denean, jarioak murrizteko, usainen kudeaketa-plana ezarri eta berrikusi beharko da —dauden instalazio guztiak barne hartuko ditu—, ingurumen-kudeaketako sistemaren zati gisa. Plan horrek elementu hauek izan beharko ditu:

– Jarduketa eta epe egokituak jasoko dituen protokolo bat.

– Kiratsaren monitorizazioa egiteko protokolo bat.

– Kiratsarekin lotutako gorabeherei erantzuteko protokoloa.

– Kiratsari aurrea hartzeko eta usainak murrizteko programa bat, kiratsaren iturria edo iturriak zehazteko, kiratsarekiko esposizioa neurtzeko edo balioesteko, iturrien ekarpenak karakterizatzeko eta prebentzio- edo murrizketa-neurriak aplikatzeko.

Usainaren eragina murrizteko neurriak ezartzen diren bakoitzean, edo kirats-jarioei eragin diezaiekeen aldaketaren bat dagoen bakoitzean, beste azterketa olfatometriko bat egin beharko da, horien eraginkortasuna egiaztatzeke, eta azterketa hori dagokion urteko ingurumena zaintzeko programarekin batera aurkeztu beharko da. Era berean, organo eskudunak azterketa olfatometriko gehigarriak eskatu ahal izango ditu kiratsa gutxitzeko sistemen eraginkortasuna egiaztatzeke.

#### ATALA: URA – BALDINTZA OROKORRAK

##### HONDAKIN-URAK ISURTZEKO BALDINTZA OROKORRAK

– Isurketen sailkapena, jatorria, ingurune hartzailea eta kokapena.

Jardueraren isurketak eta horien ezaugarriak «Ura – Baldintza Partikularrak» atalean jasotzen dira.

– Gehienez isur daitezkeen emari eta bolumenak.

Gehieneko isurketa-emariak eta -bolumenak «Ura – Baldintza Partikularrak» atalean jasotzen dira.

– Emisioen muga-balioak.

Emisioen muga-balioak «Ura – Baldintza Partikularrak» atalean jasotzen dira.

Ezingo dira diluzio-teknikak erabili, isurketen muga-balioak lortzeko.

Gainera, ingurune hartzaileari dagozkion arauak eta kalitate-helburuak bete behar dira. Bestela, titularrak tratamendu egokia egin beharko du, isurketaren ondorioz aipatutako arauak eta kalitate-helburuak ez urratzeko.

Baimen honek ez du onartzen «Ura – Baldintza Partikularrak» atalean berariaz adierazitakoak ez diren beste substantzia batzuk isurtzea, batez ere maiatzaren 23ko 606/2003 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarrian aipatzen diren substantzia arriskutsuak. Errege-dekretu horren bidez, apirilaren 11ko 849/1986 Errege Dekretua aldatzen da, Urei buruzko abuztuaren 2ko 29/1985 Legearen atariko titulua eta I., IV., V., VI. eta VIII. tituluak garatzen dituen jabari publiko hidraulikoari buruzko araudia onartzen duena.

Baimen horrek ez du babesten baldintza honetan esplizituki adierazi ez den substantziarik isurtzea, nahiz eta jardueraren ondorioz sortu; bereziki, substantzia arriskutsuak (lurrazaleko uren egoeraren jarraipen- eta ebaluazio-irizpideak zein ingurumen-kalitateko arauak ezartzen dituen irailaren 11ko 817/2015 Errege Dekretuaren IV. eta V. eranskinetan definitu dira).

– Arazteko eta husteko instalazioak.

Hondakin-urak arazketa-instalazioek edo zuzenketa-neurriek «Ura – Baldintza Partikularrak» atalean zehaztutako jarduketak barne hartuko dituzte funtsean.

Hartutako zuzenketa-neurriak nahikoak ez direla egiaztatuz gero, sustatzaileak beharrezkoak diren aldaketak egin beharko ditu arazketa-instalazioetan, isurketak baimendutako ezaugarrietara egokitzeko, Administrazioari jakinarazi ondoren, eta, hala badagokio, baimena aldatzeko eskatuko du.

Kontrol-kutxatila bat jarriko da hondakin-ur mota baimendu bakoitzerako; kutxatila horiek isurketen lagin adierazgarriak lortzeko eta arazketa-instalazioen errendimendua egiaztatzeko behar diren ezaugarri guztiak izango dituzte. Kutxatilak dagokion administrazioak egoki deritzonean ikuskatzeko sarbide zuzena duen lekuan kokatuko dira.

Baimenaren titularrak kolektoreak eta arazketa-instalazioak jardun-egoera egokian zaindu beharko ditu. Horrela, betebeharrak horietarako pertsona bat izendatu beharko du eta instalazioak zaintzeko eta jarduteko arau zorrotzak eta behar diren bitartekoak emango dizkio.

– Isurketa-uraren kalitatea kontrolatzea.

«Ura – Baldintza Partikularrak» atalean zehaztutako analitikak egingo dira.

Jardueraren kontrolean sortutako dokumentazioa ingurumen-organoari igorriko zaio, «Ingurumena Zaintzeko Programa – Baldintza Orokorrak» atalean adierazitakoaren arabera.

#### ATALA: HONDAKINAK SORTZEA – BALDINTZA OROKORRAK

##### INSTALAZIOAN SORTUTAKO HONDAKINAK EGOKI KUDEATZEN DIRELA BERMATZEKO BALDINTZA OROKORRAK

Atal honek hondakinak prebenitzeko eta sortzeko baldintzak ezartzen ditu, arlo horretako araudi sektorialak ekoizle gisa identifikatzen ditueni aplikatu beharrekoak. Sustatzaileak sortutako hondakinei aplikatuko zaie, baimenaren «Hondakinak Sortzea – Baldintza Partikularrak» atalean zehazten direnei.

Hondakinak eta lurzoru kutsatuak arautu eta ekonomia zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legeak ezarritakoaren arabera eta aplikatzekoak diren berariazko araudiek agindutakoaren arabera kudeatuko dira instalazioetan sortutako hondakinak.

Hondakinen ekoizleek neurri hauek bete beharko dituzte:

– Identifikazioa eta karakterizazioa.

- Karakterizazioa.

Sortutako hondakinak identifikatu eta karakterizatu beharko dira, horien izaera eta helmugarik egokiena zehazteko.

Hondakinen arriskugarritasuna Batzordearen 1357/2014 (EB) Erregelamenduan jasotako sailkapenaren arabera izango da (1357/2014 Erregelamendua, 2014ko abenduaren 18koa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/98/EE Zuzentarauaren III. eranskina ordeztzen duena, hondakinei buruzkoa, eta zuzentarau jakin batzuk indargabetzen zituena). Karakterizatu beharreko hondakinak «Hondakinak sortzea – Baldintza Partikularrak» atalean adierazten dira, edo ingurumen-organoaren berariazko eskaeraren erantzun gisa. Edonola ere, karakterizatzeko-lana egiteko «1357/2014 Erregelamendua aplikatzeko irizpideen gida» erabiliko da. Esteka honetan dago eskuragarri:

[https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/guia1357/eu\\_def/adjuntos/1357-2014gida.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/guia1357/eu_def/adjuntos/1357-2014gida.pdf)

Alde horretatik, sustatzaileak ingurumen-organoari eskaera egin ahal izango dio Inguruneteko «Dokumentuak bidaltzea – DOC» («Hondakinen sailkapena» modukoa) prozeduraren bidez.

- Jatorrian bereiztea.

Berariaz debekatuta dago sortzen diren tipologia bateko eta besteko hondakinak elkarrekin edo beste hondakin edota efluente batzuekin nahastea. Hondakinak jatorritik bertatik bereizi beharko dira, eta horiek biltzeko eta biltegitratzeko baliabide egokiak jarri, nahasketok saihesteko.

- Kodetzea.

Hondakin bakoitzari dagokion izena eta kodea ezartzeko, hondakinaren beraren egoera eta ezaugarriak hartuko dira kontuan, baimenaren izapidetzearen esparruan dokumentatuak, eta Batzordearen 2014ko abenduaren 18ko Erabakia hartu beharko da kontuan, hondakinen zerrendari buruzko 2000/532/EE Erabakia aldatzen duena.

- Sailkapenaren kontrola.

Hondakin arriskugabe gisa identifikatutako kode batekin nahiz hondakin arriskutsuaren kode batekin identifikatutako hondakinen kasuan, lehenengoz erretiratu aurretik, behar bezala sailkatu dela justifikatu beharko da. Horretarako, arrisku-ezaugarriaren bat erregistratzen duten jakiteko ezaugarri analitikoak aurkeztu beharko dira, Batzordearen 2014ko abenduaren 18ko 1357/2014 (EB) Erregelamenduan (2008/98/EE Zuzentarauaren III. eranskina ordeztzen duena) ezarritako irizpideen arabera.

Emaitzen arabera, aldian behingo karakterizatzeko-lanak ezarri ahal izango dira, arriskugarritasunaren karakterizazioaren baliozkotasuna zehazteko.

Baldin eta aurreikusten bada hondakindegia baimenduan deuseztatzea dela hondakinen azken helmuga, orduan, hondakin horiek karakterizatuko dira, Kontseiluaren 2002ko abenduaren 19ko 2003/33/EE Erabakiak (zeinaren bidez ezarri baitira hondakinak hondakindegietan hartzeko irizpideak eta prozedurak) xedatutakoari jarraikiz, eta Hondakinak hondakindegietan biltegitratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuak ezarritako jarraibideen arabera.

- Ekoizitako kantitateak.

Instalazioan sortutako hondakinen kantitatea, ingurumen-baimenetan jasotakoa, orientagarria da soilik, kontuan hartuta jardueraren ekoizpen-gorabeherak eta ekoizpenaren eta sortutako hondakinen arteko erlazioa. Datu horiek jardueraren adierazleetan ageri dira.

Instalazioan aldaketak aurreikusten direnean eta sortutako hondakinen kopurua handitzea aurreikusten denean, eta, beraz, aurretik ezarritako biltegitratze- eta ontziratze-baldintzak aldatu behar direnean, baimena egokitzea eskatu beharko da.

– Manipulazioa, ontziratzea, etiketa jartzea eta biltegitratzea.

- Bilketa-sistemak.

Hondakinak biltzeko sistemak independenteak izango dira, baldin eta, tipologia dela-eta, isuri baten ondorioz nahasiz gero arriskutsuago bihur badaitezke edo kudeaketa zail badezakete.

- Nahasteko debekua.

Berariaz debekatuta egongo da sortutako hondakinen tipologia desberdinak nahastea, haien artean nahiz beste hondakin edo efluente batzuekin.

- Biltegitratze-baldintza orokorrak.

Hondakinak biltegitratzeko guneak edo guneek lurzoru estankoa izan behar dute. Haien egoera fisiko, likido edo oretsua dela-eta, edo haien inpregnazio-mailarengatik isurketak eragin edo lixibiatuak sor ditzaketen hondakin arriskutsuentzat ontziak edo bilketa-sistema egokiak jarriko dira izan litezkeen isuriak kanporatzea saihesteko. Hautsezko hondakinen kasuan, hondakinak euri-urarekin bustitzea edo haizeak herrestan eramatea eragotziko da eta, beharrezkoa izanez gero, estali egingo dira.

Hondakin arriskutsuak biltegitratuz gero, aterpean egon beharko dute, eta isuriak eta jarioak atxikitzeko sistemak izan beharko dituzte.

- Produktu kimikoak biltegitratzeko baldintzak.

Likido sukoiak eta erregaiak, korrosiboak edo toxikoak diren hondakinak biltegitratu behar izanez gero, edo ontzi mugikorretan biltegitratu behar izanez gero —gasak barne—, erreferentzia tekniko gisa erabiliko dira ekainaren 23ko 656/2017 Errege Dekretuak (produktu kimikoak biltegitratzeko erregelamendua eta haren jarraibide tekniko osagarriak, MIE APQ 0tik 10era bitartekoak, onartzen dituena) ezarritako eraikuntza-baldintza eta baldintza tekniko berberak.

- Ontziratzea eta etiketatzea.

Hondakin arriskutsuak ontziratzeko, indarrean dagoen araudian ezarritako segurtasun-arauak bete beharko dira.

Hondakin arriskutsuak dauzkaten ontziek eta bilgarriek etiketa argia, irakurgarria eta ezabagaitza eduki beharko dute, eta itxita egon beharko dute kudeatzaileari eman arte, edukiak isurita edo lurrunduta gal ez daitezen.

Hondakin arriskutsuak dituzten ontzien edo bilgarrien etiketan datu hauek jaso beharko dira:

– Hondakinaren kodea eta deskribapena, eta arriskugarritasun-ezaugarrien kodea eta deskribapena.

– Hondakinen ekoizlearen edo edukitzailearen izena, ingurumeneko identifikazio-zenbakia (aurrerantzean, NIMA), posta-helbidea eta helbide elektronikoa, eta telefonoa.

– Hondakinak zein egunetan utzi diren.

– Hondakinek dituzten arriskuen izaera, Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008ko abenduaren 16ko 1272/2008 (EE) Erregelamenduan deskribatutako piktogramen bidez adieraziko dena.

- Biltegitratze-epea.

Hondakin horiek ezabatzeko direnean ezingo dira urtebetetik gora biltegitratu. Hondakinen azken helburua baliotzea denean, 2 urtez biltegitratu ahal izango dira.

Gainerako hondakin arriskutsuak ezin izango dira 6 hilabetetik gora biltegitratu.

Salbuespenezko kasuetan, ingurumen-organismoak epe hori aldatu ahalko du, behar bezala justifikatutako arrazoiak direla medio, baldin eta giza osasuna eta ingurumena babestuko direla bermatzen bada.

Ingurumen-baimen bateratuan adierazitako hondakinen biltegitratze-denbora «Hondakinak Sortzea – Baldintza Partikularrak» atalean zehaztutakoa izango da.

– Kudeaketa-hierarkiaren aplikazioa.

Hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei jarraikiz, teknikoki, ekonomikoki eta ingurumenaren aldetik bideragarria denean, hondakinak ez sortzen saiatu beharko da, eta horien helmugak lehenetsiko dira, araudian ezarritako kudeaketa-hierarkiaren arabera.

Dagokien ingurumen-baimenean balorizazio-helburuko eragiketa bat esleitu zaien hondakinak («R») ezingo dira ezabatu («D»); aitzitik, kudeatzaile balorizatzaile baimendu bati entregatuko zaizkio. Hondakinak ezabatzeko, ezinbestekoa izango da alde aurretik behar bezala justifikatzea haien balorizazioa ez dela bideragarria teknikoki, ekonomikoki edo ingurumenaren aldetik.

Birsortzea edo berrerabiltzea lehenetsiko da balorizatzeko beste edozein modu material edo energetikoren aurretik.

– Autosufizientziaren eta hurbiltasunaren printzipioak aplikatzea.

Hondakinak tratatzeko instalazio baimenduak baldin badaude Euskal Autonomia Erkidegoan, hurbilen dauden instalazio horietara bidaliko dira lehentasunez, autosufizientzia- eta gertutasun-printzipioei jarraituz.

– Finantza-bermea.

Apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 20.6 artikulua arabera, urtean 10 tona hondakin arriskutsu baino gehiago sortzen dituzten ekoizleek aseguru bat edo bestelako finantza-berme bat sinatu beharko dute beren jarduerak sor ditzakeen erantzukizunak estaltzeko, betiere jardueren ezaugarriak, arriskugarritasuna eta arrisku potentziala kontuan hartuta.

– Dokumentuen kudeaketa.

Honako dokumentu hauek formalizatu beharko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eskura jarritako kanal, sistema edo aplikazio informatikoetan.

«Ingurumena zaintzeko programa bidaltzea» prozeduraren bidez entregatuko dira «Ingurumena Zaintzeko Programa – Baldintza Orokorrak» atalean aipatzen den webguneko «Dokumentuak» apartatuko zerrendan jasotako dokumentu motak.

- Hondakinaren arriskugarritasunaren karakterizazioa.

Atal honetako «Karakterizazioa» apartatuan jasotakoaren arabera egingo dira.

- Tratamendu-kontratua.

Hondakin bat entregatzeko, aldez aurretik tratamendu-kontratu bat formalizatu beharko da ekoizlearen eta kudeatzaile baimenduaren artean. Kontratu horrek hondakina onartzeko baldintzak ezarriko ditu, eta Espainiako lurraldearen barruko hondakinen lekualdaketa arautzen duen ekainaren 2ko 553/2020 Errege Dekretuaren 5. artikulua edukia jasoko du.

Tratamendu-kontratua bakarra izango da ekoizlearen eta kudeatzailearen artean egindako entregetarako, hondakina eta onarpen-baldintzak berberak badira.

Sustatzaileak artxiboan erregistratu eta gutxienez hiru urtez gorde beharko ditu tratamendu-kontratuak.

Tratamendu-kontratua ingurumen-organismoari bidaliko zaio, baimendutako hondakina lehenengoz hustu aurretik, eta ingurumen-baimen bateratuan aurrez adierazi gabe zegoen hondakin berri bat sortzen denean, ingurumena zaintzeko programaren bidez, «Ingurumena Zaintzeko Programa – Baldintza Orokorrak» atalean agertzen den bezala.

Kudeatzaile baimenduaren tratamendu-kontratua izateko, garraioaren aurretiko jakinarazpena egiteko eta identifikazio-agiria betetzeko betebeharretik salbu egongo dira kudeaketa-sistema integratuko kudeaketa-azpiegituretara eramaten diren hondakinak, bai eta toki-entitateei ematen zaizkien ere, gaika bildutako udal-hondakinekin eta haien parekoak direnekin batera kudeatu ditzaten, baldin eta dagokien toki-entitateek entrega horiek egin direla egiaztatzen badute. Toki-entitateei egindako entregak justifikatzeko agiriak hiru urtez gorde beharko dira gutxienez.

- Identifikazio-agiria.

Hondakin bat lekualdatzeko, hondakin hori identifikatuko duen dokumentu bat beharko da une oro. Bertan jasoko da Espainiako lurraldean hondakinen lekualdaketa arautzen duen ekainaren 2ko 553/2020 Errege Dekretuaren I. eta III. eranskinetako informazioa.

Artxibo kronologikoan erregistratu eta gutxienez hiru urtez gorde beharko dira identifikazio-dokumentuak.

- Aldez aurretiko jakinarazpena.

Era berean, aldez aurretiko jakinarazpena egin beharko da, 553/2020 Errege Dekretuaren II. eranskinetako edukia jasota, lekualdaketa hauen kasuan:

– Deuseztatzeko hondakinak lekualdatzea (arriskutsuak eta arriskugabeak).

– Hondakin arriskutsuak, nahasita dauden etxeko hondakinak (EHZ 20 03 01 kodearekin identifikatuta daudenak) eta arauz ezartzen direnak lekualdatzea, balorizatzeke.

Nahitaezko aurretiko jakinarazpen-kasuetan, Hondakinak eta lurzoru kutsatuak arautu eta ekonomia zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 31. artikuluan xedatutako eta ekainaren 2ko 553/2020 Errege Dekretuaren 9. artikuluan garatutako kausetako bat gertatzen denean, hala EAeko ingurumen-organoak nola helmugako autonomia-erkidegoko organo eskudunak hondakinak garraiatzearen aurka egin ahalko dute; arrazoitutako erabakia garraio-jakinazpena aurkeztu eta gehienez hamar eguneko epean jakinarazi beharko diote operadoreari.

Jakinazpen orokor bat egin ahal izango da gehienez hiru urterako, instalazio berera joango diren eta antzeko ezaugarri fisikoak eta kimikoak dituzten hondakinatarako.

Aldez aurretiko jakinarazpenak gutxienez hiru urtez gordeko dira indarraldia amaitu ondoren.

- Garraioa egiaztatzea.

Hondakin arriskutsuen kasuan, egiaztatu beharko da hondakinak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eramateko erabiliko den garraio-bideak behar bezala betetzen dituela horrelako gaiak garraiatzeko ezarritako baldintzak, indarrean dagoen legeriaren arabera.

Dagokion ingurumen-baimenean enpresa beraren instalazioen artean hondakinak lekualdatzeko aukera ematen bada, salgai arriskutsuen errepide bidezko nazioarteko garraioari buruzko Europako Akordioa (ADR 2021) bete beharko da, aplikatzekoa den hondakinei dagokienez.

- Mugaz gaindiko garraioa (esportazioa).

Hondakinak Espainiatik kanpora esportatzen diren kasuetan, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2024/1157 (EB) Erregelamenduan, 2024ko apirilaren 11koan, hondakinak lekualdatzeari buruzkoan, ezarritakoa bete beharko da. Erregelamendu horrek 1257/2013 (EB) eta 2020/1056 (EB) erregelamenduak aldatzen ditu, eta 1013/2006 (EE) Erregelamendua indargabetzen du.

- Artxibo kronologikoa.

Pertsona fisiko edo juridiko erregistratuek eta urtean hondakin arriskugabeen 10 tona baino gehiago sortzen dituzten hasierako ekoizleek, artxibo elektronikoko batean, datu hauek jaso beharko dituzte, ordena kronologikoan: sortutako hondakinen kantitatea, izaera eta jatorria, bai eta berrerabiltzeko prestatzeko, birziklatzeko, beste balorizazio-eragiketa batzuk egiteko eta deuseztatzeko produktu, material edo substantzien eta horien ondoriozko hondakinen kantitatea ere; eta, hala badagokio, eragiketa horien ondorioz sortutako hondakinaren destino, bilketaren maiztasuna, garraio-bidea eta aurreikusitako tratamendu-metodoa ere inskribatuko dira, bai eta produktu, material eta substantzien destinoa ere. Gainera, eragiketa bakoitzaren amaieran biltegitratutako hondakinen informazioa jasoko da. Artxibo kronologikoaren inskripzioak, aplikatzekoa denean, 7/2022 Legearen II. eta III. eranskinen arabera baimendutako tratamendu-eragiketa bakoitzeko egingo dira.

Enpresak urtero bidali beharko dio artxibo kronologikoa organo honi, urteko ingurumena zaintzeko programaren txostenean. Era berean, aldi baterako biltegitratuta dauden hondakinen zerrenda bidali beharko dio adierazpenaren xede den ekitaldia amaitzean.

Azpiproduktuak sortzen edo erabiltzen dituzten entitate edo enpresek erregistro kronologiko bat izango dute, azpiproduktu gisa ekoiztako eta kudeatutako kantitateak eta horien destinoak/jatorria biltzen dituen.

Artxibo kronologikoko informazioa gutxienez bost urtean gordeko da, eta agintari eskudunen eskueran edukiko da, ikuskapen- eta kontrol-ondorioetarako.

- Laburpen-memoria.

Hondakinak eta lurzoru kutsatuak arautu eta ekonomia zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 65. artikuluan ezarritakoaren arabera, sustatzaileak, datuak jaso ondorengo urteko martxoaren 31 baino lehen eta dagokion ingurumena zaintzeko programaren barruan, artxibo kronologikoan jasotako informazioaren laburpen-memoria bat aurkeztu beharko du, zeinak lege horren XV. eranskinean agertzen den gutxieneko edukia barne hartu beharko baitu.

- Minimizazio-plana.

Hondakin arriskutsuen hasierako ekoizleek nahitaez aurkeztu beharko dute minimizazio-plan bat lau urtez behin, sortutako hondakin arriskutsuen kantitatea eta horien arriskua murrizteko hartuko dituzten praktikak jasoko dituen. Ez dute plan hori aurkeztu beharrik izango urtean 10 tona baino gutxiago sortzen dituzten hondakin arriskutsuen hasierako ekoizleek, instalazio- eta mantentze-enpresek, eta EMAS ziurtagiria edo mota horretako hondakinak minimizatzeko neurriak aplikatzen dituen beste sistema baliokideren bat duten hasierako ekoizleek. Informazio hori ingurumen-adierazpen baliozkotuan jasoko da. Aipatutako salbuespen-araubideren batean egonez gero, dagokion egiaztagiria aurkeztu beharko da.

Dagokion urteko minimizazio-plana, edo, halakorik izan ezean, hura aurkeztetik salbuetsita egotearen egiaztagiria, ingurumena zaintzeko programan entregatu beharko da, «Ingurumena Zaintzeko Programa – Baldintza Orokorrak» atalean azaltzen den moduan.

- Ontziak merkaturatzea. Prebentziorako eta ekodiseinurako enpresa-plana.

Enpresak ontziak eta bilgarriak dituzten produktuak merkaturatzen baditu, abenduaren 27ko 1055/2022 Errege Dekretuaren IV. eranskineko 2. apartatuan jasotako informazioa eman izanaren egiaztagiria aurkeztu beharko du urtero Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioiko Ingurumen Kalitatearen eta Ebaluazioaren Zuzendaritza Nagusiaren aurrean martxoaren 31 baino lehen, ontzien urteko adierazpena jasota. Datu horiekin batera, ingurumena zaintzeko programa bidaliko du, urtean urtekoa.

Halaber, Ontzien eta ontzi-hondakinen abenduaren 27ko 1055/2022 Errege Dekretuaren 43. artikuluan hornitzaileei ezartzen zaizkien betebeharrak bete beharko ditu.

Sustatzailea behartuta dago bosturteko Ekodiseinu eta Prebentzioko Enpresa Plana aplikatzera, urte natural batean, ontziratutako produktuak edota industria- edo merkataritza-ontziak merkaturatzen baditu eta jarraian zehazten diren kantitateak gainditzen dituzten hondakinak sortzen baditu:

- 250 tona, beira soilik bada.
- 50 tona, altzairua soilik bada.
- 30 tona, aluminioa soilik bada.

2025eko uztailaren 31, osteguna

- 20 tona, plastikoa soilik bada.
- 20 tona, zura soilik bada.
- 15 tona, kartoia edo material konposatuak soilik badira.
- 300 tona, hainbat material badira, eta bakoitzak, bera bakarrik hartuta, ez baditu lehen aipatutako kantitateak gainditzen.

Prebentzio eta Ekodiseinuko Enpresa Plan horretan, kontuan hartu beharko ditu ontzi-hondakinak prebenitzeko tresnetako zehaztapenak. Halaber, aurreko planetako helburuen betetze-mailaren laburpena sartu beharko du, prebentzio-helburu kuantifikatu berriak adierazita, baita horiek erdiesteko neurriak eta betetzen dituela kontrolatzeko mekanismoak ere, abenduaren 27ko 1055/2022 Errege Dekretuaren 18. artikuluari jarraikiz. Plana amaitu eta hiru hilabeteko epean, planari buruzko txosten bat igorriko da egoitza soziala duen autonomia-erkidegora, eta bertan adierazita egongo da zenbateraino bete diren planean jasotako prebentzio-neurriak.

- Baldintza espezifikoak.

Baimenaren «Hondakinak Sortzea – Baldintza Partikularrak» atalean identifikatzen diren ekoiztako hondakinen arabera, baldintza espezifiko hauek bete beharko dira:

Sortutako hondakina	Baldintza
180103	Berariazko hondakin sanitarioak (II. taldea) manipulatu, ontziratatu, etiketatu eta biltegitzeko baldintzak Hondakin Sanitarioak Kudeatzeari buruzko martxoaren 3ko 21/2015 Dekretuan eta hura garatzeko ondorengo araudietan ezarritakoak izango dira.
Epigrafeen kodeak 13 01 13 02 13 03 13 05 13 08	Ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuari, Industrian erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duenari, jarraituz kudeatu beharko da sortutako olio erabilia.
160213 160214	Ekipamendu elektriko eta elektronikoaren hondakinak —besteak beste, lanpara fluoreszenteenak— kudeatuko dira otsailaren 20ko 110/2015 Errege Dekretuan, Gailu Elektriko eta Elektronikoaren Hondakinei buruzkoan, xedatuaren arabera.
160213 160214	Ekoizleak ozono-geruza agortzen duten substantziei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1005/2009 (EE) Erregelamenduan zehaztutako gai erabiliak baldin baditu, berreskuratu egingo dira alderdiek onetsitako bitarteko tekniko bidez deuseztatzeko, edo ingurumenaren ikuspegitik onargarria den beste edozein deuseztatzeko bide tekniko erabiliz, edota birziklatzeko edo birsortzeko xedez, tresnak berrikusi eta mantentzeko eragiketetan nahiz desmuntatu edo deuseztatu aurretik.
160602 160603 160604 160605 160606 200133	Pilen eta metagailuen hondakinek Pilei eta metagailuei eta haien hondakinen ingurumen-kudeaketari buruzko otsailaren 1eko 106/2008 Errege Dekretuan xedatutakoa bete beharko dute.

Sortutako hondakina	Baldintza
130301 160109 160209 160210 160213 170902	Ekoizleak poliklorobifeniloak (PCB) dituzten edo izan ditzaketen aparatuak dauzkan bitartean, haiek behar bezala kudeatzeko abuztuaren 27ko 1378/1999 Errege Dekretuan, poliklorobifeniloak, polikloroterfeniloak eta horiek dituzten aparatuak ezabatzeko eta kudeatzeko neurriak ezartzen dituen horretan, eta hori aldatu zuen otsailaren 24ko 228/2006 Errege Dekretuan adierazitako baldintzak bete beharko ditu.
150101 150102 150103 150104 150105 150106 150107 150110 150111	Sustatzailea industria-ontzi baten azken jabea bada, abenduaren 27ko 1055/2022 Errege Dekretuaren 44. artikuluan xedatutako betekizunak bete beharko ditu.
170601 170605	Amiantoa duten hondakinak daudela hautemanaz gero, 108/1991 Errege Dekretuaren (amiantoak ingurumenean sortzen duen kutsadura saihestu eta gutxitzeari buruzkoa) 3. artikuluan ezarrita dauden eskakizunak bete beharko dira. Era berean, amiantoa duten hondakinak kudeatzeko manipulazioak 396/2006 Errege Dekretuaren arabera egingo dira, zeinaren bidez ezartzen baitira amiantoaren eraginpean egoteko arriskua duten lanei aplikatu dakizkiekeen segurtasun eta osasuneko gutxienezko xedapenak.

## ATALA: LURZORUA – BALDINTZA OROKORRAK

### LURZORUA ETA LURPEKO URAK BABESTEKO BALDINTZA OROKORRAK

#### – Babes-neurriak.

Urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuan, ekainaren 25eko 4/2015 Legean eta abenduaren 26ko 209/2019 Dekretuan (Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legea garatzeko) ezarritako betebeharrak betez aurkeztutako lurzoruaren egoerari buruzko txostenaren eta horretan jasotako gomendioen arabera, sustatzaileak lurzorua babesteko behar diren neurriak hartu beharko ditu, bai eta «Lurzorua – Baldintza Partikularrak» atalean espezifikatutakoak ere.

#### – Lurzoruaren egoeraren txostenak.

4/2015 Legearen 16. artikuluko 2. apartatua betez, lurzoruaren egoeraren txostenak aurkeztu beharko dira, gutxienez, 5 urtean behin.

#### – Lurzoruen eta lurpeko uren oinarritzko txostena eta kontrolerako eta jarraipenerako dokumentuak.

Era berean, aurreko lerrokadan aipatutako araudian (abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretua eta urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretua) lurzorua babesteko betebeharrak ezartzen dira, eta, hain zuzen ere, horiek betetze aldera, sustatzaileak haiek aurkeztuta izan beharko ditu:

– Oinarritzko txostena, abenduaren 26ko 209/2019 Dekretuaren 20. artikuluan aipatutako epeak eta maiztasunak beteta.

– Lurzoruen eta lurpeko uren kontrol- eta jarraipen-dokumentuak, urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuaren 10.2 artikuluan ezarritako epeen arabera.

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2020ko urtarrilaren 23ko Aginduari dagokionez jakinarazitako baldintzak aztertzean zehazten diren kontrolei kalterik egin gabe —agindu horrek Kutsaduraren prebentzio eta Kontrol Integratuaren Legearen testu bategina onartzen duen abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuan xedatutakoa interpretatzeari eta aplikatzeari buruzko jarraibide teknikoa onartzen du—, eta lurzoruaren eta lurpeko uren egoera zehazteko oinarrizko txosten bat eskatzeari lotuta, sustatzaileak lurzoruaren eta lurpeko uren kalitatearen kontrola egin beharko du. Horretarako, gutxienez bi zundaketa egin beharko ditu urak karakterizatzeko, ateratako lurzoru-zutabea karakterizatzeko eta piezometro bana gaitzeko, eta haiek erabiliko dira lurpeko uren kalitatearen jarraipena egiteko. Zundaketak kokatzeko, kontuan hartuko dira egon litezkeen arrisku-iturriak eta lurpeko uren fluxua; hala, instalaziotik ibaian gora eta ibaian behera dagoen fluxua alderatu ahal izango da.

– Lurzoruen dokumentu bakarra.

Nolanahi ere, sustatzaileak lurzoruen dokumentu bakar bat bidaliko du, ikerketa-lanak egiten eta lurzoruaren kalitatea lehengoratzten diharduen entitate egiaztatu batek egingina, eta aipatutako txostenak bilduko ditu hor (lurzoruaren egoerari buruzko aldizkako txostena, oinarrizko txostena eta lurzoruen eta lurpeko uren kontrol- eta jarraipen-agiriak). Emandako agiriak aldatu edo agiri berriak eman behar diren bakoitzean, lurzoruen agiri bakar berri bat helaraziko da. Dokumentu bakar hori idazteko, 2020ko urtarrilaren 23ko Aginduak onartutako jarraibide teknikoa bete beharko da, edukiari eta entregatzeko aldizkakotasunari dagokionez.

– Lurzoruei buruzko informazioa eguneratzea.

Oinarri-txostena edo egoera-txostena eguneratzea beharrezkoa denean, sustatzaileak agiri bakar bat bidali beharko du, lurzoruaren kalitatea ikertzeko eta lehengoratzeko lana egiteko gaituta dagoen entitate batek egingina, eta egoera bi horien gaineko informazio eguneratua barne hartuta, baita lurzoruen eta lurpeko uren kontrol- eta jarraipen-agiriak ere.

– Lurzoruaren kalitatea deklaratzeko prozeduraren hasiera.

Sustatzaileak lurzoruaren kalitateari buruzko adierazpena egiteko prozedura hasteko eskatu beharko dio ingurumen-organoari, baldin eta ekainaren 25eko 4/2015 Legean adierazitako inguruabarren bat gertatzen bada.

– Entitate egiaztatua.

Apartatu honetan jasotakoa betetzeko aurkeztu beharreko informazioa lehen aipatutako urriaren 10eko 199/2006 Dekretuan xedatutakoaren arabera egiaztatutako entitate batek egin beharko du, hala nola organo honek horretarako onar ditzakeen jarraibideetan adierazitakoaren arabera.

– Lur-mugimenduak.

Sustatzaileak baldintza hauek bete beharko ditu instalazioetan egindako aldaketek eragindako lur-mugimenduei dagokienez:

1.– Aurreikusten bada aldaketaren bat egin behar dela instalazioa baimenduta dagoen lurzatiaren barruan, eta aldaketa horren ondorioz lurrak mugitu behar badira:

a) Ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 25. artikulua 1.c apartatuari jarraikiz, induskatu beharreko materialak (lurrak, eraiste-hondakinak eta abar) karakterizatu egin beharko ditu jardueraren sustatzaileak, ekintza kutsatzaileen ondorioz erasan zaien ala ez egiaztatzearen, eta, karakterizazio horren emaitzen arabera, horiek kudeatzeko modu egokiena zehaztearen.

b) Jarduketa horretan aurreikusten bada induskatu beharreko materialen bolumena 500 m<sup>3</sup>-tik gorakoa dela (zolatak barne), edo jarduketa egin bitartean gainditze hori antzemango balitz, nahitaezkoa izango da lurzorua kalitatea ikertzeko eta oneratzeko akreditatutako entitate batek egindako indusketa selektiborako plan bat aurkeztea. Indusketa-planak abenduaren 26ko 209/2019 Dekretuaren IV. eranskinean adierazitako edukia jaso beharko du, eta ingurumen-organoak onartu beharko du, gauzatu aurretik.

c) Induskatu beharreko bolumena 500 m<sup>3</sup>-tik beherakoa bada, aldaketaren jakinarazpenak informazio hau jaso beharko du:

– Jarduketa sustatzen duen pertsona fisiko edo juridikoaren eta jarduketa burutuko duen kontratistaren identifikazioa.

– Jarduerak ukituko duen lekuaren kokapen-datuak, Lurzorua Kalitatearen Administrazio Erregistroaren erreferentzia barne hartuta.

– Jardueraren xede den eremuaren mugaketa eta azalera. Jakinarazpenean, lurzatia eta jarduera-eremua zehatz-mehatz non dauden jakitea ahalbidetzen duten planoak erantsiko dira.

– Jardueraren deskribapen xehatua.

– Induskatuko diren materialen bolumena, zolatak barne.

– Ingurumen-jarraipenerako lanen eta azken txostena egitearen arduradunaren identifikazioa; artikulu honetan aipatutako kasuetan, entitate egiaztatua izan beharko du.

– Jarduera hasteko aurreikusitako datak.

d) Aurreko kasuetako edozeinetan, obra egin ondoren, azken txostena bidali beharko du. Bertan, lurren karakterizazioaren emaitzak adierazi beharko dira; horrez gain, induskatutako materialen berrerabilera edo kudeaketa egokia egiaztatzeko txosten bat ere bidali beharko da. Indusketaren bolumena 100 m<sup>3</sup>-tik gorakoa bada, entitate egiaztatu batek egingo ditu ingurumen-jarraipenerako lanak eta txostena.

e) Arau orokor gisa, «Kutsatutako lurzoruetan indusketa selektiboak egiteko gidan» jasotzen diren irizpideak beteko dira. Esteka honetan eskura daiteke gida:

<https://www.ihobe.eus/argitalpenak/kutsatutako-lurzoruetan-indusketa-selektiboak-egiteko-gida>

f) Soberakinak hondakindegian biltegituz hustu nahi izanez gero, otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuan (hondakinak hondakindegietan biltegitatuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duena) ezarritakoari jarraikiz egingo da hondakinen karakterizazioa. Oro har, laginketa egiteko, abenduaren 26ko 209/2019 Dekretuaren IV. eranskinean eta gidaren 10.2.6 apartatuan («Induskatu behar diren lurzoruetan *in situ* egindako laginketa») biltzen diren induskatu beharreko materialen karakterizazio-kanpaina diseinatzerakoan kontuan hartu behar diren oinarritzko irizpideei jarraituko zaie.

g) Soberako materialak instalazio berean berrerabili ahal izateko, balio hau izan beharko dute material horiek: Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legean ezarritako B-EBA (industria-erabilera) balioaren azpikoa. Horrez gain, lur horien hidrokarbu-edukia ezin izango da arriskutsua izan. Horretarako, entitate egiaztatu batek egin

beharko ditu laginketa eta analisia, honen arabera: 199/2006 Dekretua, urriaren 10ekoa, Lurzoruaren kalitatea ikertu eta berreskuratzeko entitateak egiaztatzeke sistema ezartzen duena, eta entitate horiek lurzoruaren kalitatearen gainean egindako ikerketen edukia eta norainokoa zehazten dituena.

h) Ekainaren 25eko 4/2015 Legean xedatutako A-EBA ebaluazioko balio-adierazleak eta TPHetarako 50 mg/kg baino balio txikiagoak lortzen dituzten lurak lur garbitzat hartuko dira, eta beraz, onartu egingo dira baimendutako edozein betelanetarako.

i) Substratu harritsu osasuntsua murrizketarik gabe kudeatu ahalko da. Lurzoru naturalaren parekoa den substratu harritsu meteorizatuaren kasuan, aurreko puntuetan ezarritako irizpidea beteko da.

2.– Instalazioa baimenduta dagoen lurzatitik kanpo aldaketaren bat egitea aurreikusi bada (lurzoru berria okupatuz), eta okupatu nahi den lurzoru berriak lehenago izan badu ekainaren 25eko 4/2015 Legearen I. eranskinean aipatutako jardueraren bat, sustatzaileak lurzoruaren arloko adierazpen bat lortu beharko du egin nahi diren aldaketak egiten hasi aurretik.

#### ATALA: ZARATA – BALDINTZA OROKORRAK

#### ZARATAREN INGURUKO BALDINTZA OROKORRAK

«Zarata – Baldintza partikularrak» atalean ezarritako indize akustikoak ez gainditzeko beharrezkoak diren neurriak ezarriko dira.

Jardueraren zuzeneko edo zeharkako eraginez zaratarentzat ezarritako kalitate akustikoaren helburuak gainditzen direnean, hain zuzen ere, zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legean garatzen den zonakatze akustikoari, kalitate-helburuei eta emisio akustikoei buruzko urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretuaren 14. eta 16. artikuluetan adierazten direnak, jarduerak beharrezkoak diren neurriak hartu beharko ditu helburu horiek gainditu ez daitezten.

Zamalanetako jarduerak eta materialak kamioietan garraiatzeko jarduerak egitean sortzen den zarata ezingo da izan sentikortasun akustiko handieneko eremuetako ingurumen-maila baino askoz handiagoa.

– Zarataren kontrola.

Jarduera garatzen den lurzatiko kanpoko baldintza akustikoak «Zarata – Baldintza Partikularrak» atalean ezarritako maiztasunarekin kontrolatuko dira, batez ere zarata etxe barruetara sartzeko arriskurik handiena dagoen aldeetan.

Neurketa bidezko ebaluazio guztiak ingurumen-lankidetzako II. mailako erakunde (ILE) batek egin beharko ditu, bat etorri urriaren 16ko 212/2012 Dekretuan ezarritakoarekin. Erakunde horrek UNE-EN ISO/IEC 17025 arauaren araberrako egiaztatzea eduki beharko du akustikaren arloan espazio- eta denbora-laginketa egiteko. Nolanahi ere, ingurumen-organoak zainduko du ebaluazio horiek egiten dituzten entitateek gaitasun tekniko egokia dutela.

Sustatzaileak beharrezkoak diren neurriak hartu beharko ditu, instalazioak kanpoko ingurumenera zabaldu ez ditzan «Zarata – Baldintza Partikularrak» atalean muga-balio gisa ezarritako zarata-mailak baino handiagoak; muga-balio horiek urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren (Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzkoa) II. eranskineko prozedurei jarraikiz ebaluatzen dira.

Lokal mugakideak egonez gero, lokal horien erabilera kontuan hartuta, instalazioak ezingo du aipatutako urriaren 16ko 213/2012 Errege Dekretuaren I. eranskineko G eta H tauletan ezarritako gehieneko balioak baino zarata-maila handiagoa transmititu haietara.

Ezarritako zarata-immisioaren muga-balioak errespetatzen direla ulertuko da baldin eta, urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren II. eranskinean ezarritako prozeduren arabera, baldintza hauek betetzen badituzte ebaluatutako adierazle akustikoen balioek, urtebeteko epean:

- Urteko batez besteko balioek ez dituzte gainditzen aipatutako I. eranskineko F taulak ezarritako balioak.
- Eguneroko balioek ez dituzte 3 dB-etan gainditzen aipatutako I. eranskineko F taulak ezarritako balioak.
- Lkeq, Ti indizean neurtutako ezain baliok ez ditu 5 dB-etan gainditzen aipatutako I. eranskineko F taulan adierazitako balioak.

Ebaluazio-metodoak eta -prozedurak eta ebaluazio horiei buruzko txostenak ingurumen-organo honek emandako jarraibide teknikoetan eta abenduaren 16ko 1513/2005 Errege Dekretuaren (Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legea garatzen duena) II. eranskinean ezarritakora egokituko dira.

Gainditzerik izanez gero, egon daitezkeen gainditzeak zuzentzeko zuzenketa-neurrien proposamena aurkeztu beharko da. Neurri horietako bakoitzaren jarduera-egutegia proposatu beharko da, egikaritzearen arduraduna izendatuta.

Jardueraren kontrolean sortutako dokumentazioa ingurumen-organoari igorriko zaio, «Ingurumena Zaintzeko Programa – Baldintza Orokorrak» atalean adierazitakoaren arabera.

#### ATALA: INGURUMENA ZAINTEKO PROGRAMA – BALDINTZA OROKORRAK

##### INGURUMENA ZAINTEKO PROGRAMAREN BALDINTZA OROKORRAK

- Ingurumena zaintzeko programa.

Ingurumena zaintzeko programa sustatzaileak aurkeztutako agirietan eta apartatu hauetan ezarritakoaren arabera gauzatu beharko da.

- Emaizak kontrolatzea eta bidaltzea.

Oro har, web-orri honetan eskura dagoen «Ingurumena zaintzeko programa bidaltzea» gidaliburuko jarraibideak bete beharko dira:

[https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/guias\\_ingurunet/eu\\_def/adjuntos/pva.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/guias_ingurunet/eu_def/adjuntos/pva.pdf)

Ingurumena zaintzeko programa osatzen duten txostenen eta azterketen emaitzak behar bezala erregistratu behar dira, eta ingurumen-organo honetara bidali, «Ingurumena Zaintzeko Programa (IZP) bidaltzea» izeneko horretarako ezarritako bidalketa-prozedura telematikoari jarraikiz. Web-orriko «Tramitazioa» ataletik sartzen da prozedura horretara:

<https://www.euskadi.eus/baimena/ibb-ippc/web01-tramite/eu/>

Edonola ere, prozedura horretako «Dokumentuak» apartatuko jarraibideak, ereduak eta kodeak baliatu beharko dira.

Hala, aipatutako programak zehaztutako aldian egiten diren kontrol guztiak, ibilgura edo itsasora isuritako urei dagozkienak izan ezik, ingurumena zaintzeko programarekin batera bakarrik aurkeztuko dira, erreferentziako urtea amaitu ondoren.

Ezarritako baldintzak urratzen diren kasuetan bakarrik bidali beharko da berehalako jakinarazpena ingurumen-organora, gertatutakoaren berri izan ondoren, prebentzio-neurriei eta normalak ez diren egoeretan funtzionatzeko baldintzei buruzko baldintza partikularren apartatuetan ezarritakoaren arabera.

Horretaz gainera, urtean behin baino gehiagotan egiten diren kontrolak kontrola egiten den urteari dagokion programaren barruan baino ez dira bidaliko.

Emaizta horiek urtero igorriko dira, betiere martxoaren 31 baino lehen, eta txosten bat aurkeztu beharko da ingurumena zaintzeko programaren emaitzekin batera. Txosten horretan jasoko dira babes- eta zuzenketa-neurrien eta prozeduren kontrolerako eta ingurumenaren kalitaterako sistemen funtzionamendua eta emaitzen analisia, epe horretan izandako gertakari nagusiak bereziki aipatuta, haien balizko kausak eta konponbideak azalduz; halaber, laginak nola hartu diren zehaztuko da, aldez aurretik hala egin ez bada.

- Ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina.

Sustatzaileak ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina egin beharko du, eta bertan bildu beharko ditu aurkeztutako dokumentazioan proposatutako betebeharrak eta ingurumen-baimen bateratu honetan jasotakoak. Honako hauek zehaztu beharko ditu programa horrek: kontrolatu beharreko parametroak, parametro bakoitzerako erreferentzia-mailak, analisisien edo neurketen maiztasuna, laginketak eta analisiak egiteko teknikak, eta laginak hartzeko guneen kokapen zehatza. Halaber, dagokion aurrekontua ere barne hartu beharko du.

Era berean, ingurumena zaintzeko programak jardueraren adierazleak zehaztu eta adierazle horiek aztertzeko sistematika barruan izan beharko du, horien arabera enpresan bertan ingurumen-hobekuntza ziurtatzeko ezarritako neurrien eta mekanismoen eraginkortasuna egiaztatzeko (ingurumen-adierazleak).

#### ATALA: PRTR – BALDINTZA PARTIKULARRAK

#### KUTSATZAILEEN ERREGISTROAREN INGURUKO BALDINTZA OROKORRAK

– Ingurumen-adierazpena.

Urtean behin, martxoaren 31 baino lehen, aurreko urtean atmosferarako emisioei eta uretarako isurketei eta sortutako hondakin mota guztiei buruzko datuen ingurumen-adierazpena igorriko dio sustatzaileak ingurumen-organo honi, E-PRTR-Euskadi Kutsatzaileen Emisio eta Transferentzia Inbentarioa egiteko eta eguneratuta edukitzeko, 508/2007 Errege Dekretuari jarraikiz.

Informazio horren transakzioa Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek ezarritako entrega-prozedura telematikoari jarraikiz egingo da.

Datu horietako batzuek Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumenean eragina duten jardueren erregistroa osatuko dute, eta erregistro hori transakzio-basea izango da, datuak Europako Ingurumen Agentziaren erregistroetara bidaltzeko, E-PRTR-Europa erregistrora, alegia.

Ingurumen-adierazpena publikoa izango da, bat etorriaz uztailaren 18ko 27/2006 Legearen xedapenekin. Lege horren bidez, informazioa eskuragarri izateko, herritarren partaidetzarako eta ingurumen-gaietan justizia eskura izateko eskubideak arautzen dira (2003/4/EE eta 2003/2005/EE

zuzentarauak jasotzen ditu). Horrez gain, une oro bermatu beharko da Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoa betetzen dela.

#### ATALA: EZOHIKO EGOERAK – BALDINTZA OROKORRAK

##### PREBENTZIO-NEURRIEI ETA EZOHIKO EGOERETAN FUNTZIONATZEKO BALDINTZEI BURUZKO BALDINTZA OROKORRAK

– Instalazioa geldiarazteko eta martxan jartzeko eragiketak eta mantentze-lanen eragiketa programatuak.

Programatutako urteko mantentze-lanei dagokienez, sortuko diren emisioen eta hondakinen estimazioa egin beharko du enpresak, eta, dagokionean, haiek kudeatzeko eta tratatzekoa ere bai.

Instalazioa geldiaraztean nahiz abiaraztean, mantentze-eragiketetan eta ohiz kanpoko egoeretan sortutako hondakinak kudeatu beharko dira, «Hondakinak Sortzea – Baldintza Partikularrak» eta «Hondakinen Ekoizpena – Baldintza Orokorrak» ataletan ezarritakoarekin bat etorritz.

– Jarduera etetea.

Ingurumen Erantzukizunari buruzko urriaren 23ko 26/2007 Legearen eta Kutsaduraren eta narriaduraren aurkako lurrazpiko uren babesaren arautzen duen urriaren 2ko 1514/2009 Errege Dekretuaren kaltetan izan gabe, baita lurzoruaren babesaren arloko legeen kaltetan izan gabe ere, sustatzaileak apartatu hauetan ezarritako baldintzak bete beharko ditu.

- Jarduerak behin betiko eten ondoren, titularrak lurzorua nola dagoen eta instalazioak erabilitako, ekoiztako edo zabalduko gai arriskutsu garrantzitsuek lurpeko uretan zer-nolako kutsadura eragin duten ebaluatuko du, eta organo honi emango dio ebaluazio horren emaitzen berri. Ebaluazioak erabakitzen badu instalazioak lurzoruaren edo lurpeko uren kutsatze aipagarria eragin duela lurzoruaren kalitatea adierazteko izapidean egindako lurzoruaren kalitatearen ikerketa-txostenetan ezarritako egoerarekin alderatuta, titularrak neurri egokiak hartuko ditu kutsadura horri aurre egin eta instalazioa egoera hartan berriz jartzeko, aipatutako urriaren 23ko 26/2007 Legearen II. eranskineko arauak jarraituz.

- Nolanahi ere, jardueren behin betiko etena gertatu ondoren, sustatzaileak gai arriskutsu guztiak kendu eta instalazioetan dauden hondakin guztiak kudeatu beharko ditu, behin betiko ixtean lekua garbi geratzeko, eta instalazioan geratutako hondakin guztiak kudeatzaile baimendu bati emateko. Orobat bermatuko da lekuak ez duela arrisku aipagarriarik sortzen pertsonen osasunarentzat eta ingurumenarentzat, jarduera dela-eta lurzorua eta lurpeko urak kutsatzearen ondorioz.

- Jarduerari lege hauek aplikatu behar zaizkio: 4/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzekoa, eta 9/2005 Errege Dekretua, urtarrilaren 14koa, kutsadura sor dezaketen jardueren zerrenda eta lurzoru kutsatuen adierazpenerako irizpide eta estandarrak ezartzekoa. Horrenbestez, sustatzaileak jarduera uztearen berri eman beharko dio ingurumen-organoari, bi hilabeteko epea agortu baino lehen; jakinarazpen horrekin batera, jarduketaren proposamen bat ere aurkeztu beharko da, organo horrek ezar dezan noraino iristen diren haren betebeharrak eta lurzoruaren kalitatea deklaratzeko prozedura hasteko epea noiz hasiko den beranduenez, ekainaren 25eko 4/2015 Legeak 31.3 artikuluan xedatutakoari jarraituz. Arauari dagokion jarduera-kodea «Ezohiko egoerak – Baldintza Partikularrak» atalean ezartzen da.

Jarduera bertan behera utzi baino lehen, sustatzaileak instalazioetan dauden hondakin guztiak kudeatu beharko ditu, «Hondakinak Sortzea – Baldintza Partikularrak» eta «Hondakinak Sortzea – Baldintza Orokorrak» ataletan ezarritakoari jarraikiz.

– Jarduera aldi baterako etetea.

Jarduera aldi baterako etetea jakinaraziz gero, sustatzaileak, aldi baterako uztearen jakinarazpenarekin batera, agiri bat bidali beharko du instalazioa jardunik gabe egonda ere aplikagarriak zaizkion ingurumen-baimen bateratuko kontrolak eta baldintzak nola beteko dituen adierazteko.

Era berean, jarduera berriz hasi baino lehen, instalazioek egokiro funtzionatzen dutela ziurtatu beharko da, ingurumenean eragina duen isurketa edo emisio oro saihesteko.

– Funtzionamendu anomalorako prebentzio-neurriak eta jarduketak.

Aurkeztutako agirietan egindako proposamenean, ezohiko egoeretan aplikatu beharreko prebentzio-neurriak eta funtzionamendurako baldintzak zehazten dira. Horiez gain, apartatu hauetan aipatzen diren baldintzak bete beharko dira:

- Instalazioen prebentziozko mantentze-lanak.

a) Prebentziozko mantentze-lanen eskuliburua eduki beharko da instalazioen egoera ona bermatzeko; batez ere, istripuz jario edo ihesak daudenean kutsadura saihesteko eskuragarri dauden baliabideei eta ezarritako segurtasun-neurriei dagokienez. Ihesik izanez gero, lurzorua babesteko hartu behar diren neurriak zehaztuko dira, eta zehatz adieraziko da hauei dagokien guztia: eraikuntza-materialak (iragazgaitasuna), biltegitzeko neurri bereziak (substantzia arriskutsuak), gerta litezkeen ihesei antzemateko neurriak edo gehiegizko betetzeaz ohartarazteko alarma-sistemak, fabrikako kolektoreen sarea zaindu eta garbitzekoak (sistematikoki garbitu beharra, maiztasuna, garbiketa mota) eta lurzoru gaineko isurketak biltzeko sistemak.

Aurreko paragrafoan adierazitako eskuliburuak ikuskaritza eta kontrolerako programa bat jaso beharko du, hauek bilduko dituena: estankotasun-probak, mailen eta adierazleen egoera, balbulak, presioa arintzeko sistema, hormen egoera eta lodieren neurketa, tangen barnealdearen begizko ikuskapenak (hormena eta estaldurena) eta ontzietako detekzio-sistemen aldizkako kontrol sistematikoa, lurzorua kutsa dezakeen edozein egoerari aurrea hartzeko.

Era berean, atmosferara egindako emisioak eta uretara egindako isurketak prebenitzeko eta zuzentzeko sistemen (arazketa, minimizazioa eta abar) eta ikuskatu eta kontrolatzeko ekipoen egoera ona bermatzeko neurriak jaso beharko dira.

b) Arazketa-instalazioek behar bezalako garbiketa eta mantenua izango dute haien errendimendu egokia bermatzeko. Urak arazteko prozesuan pilatutako hondakin solidoak eta lohiak behar den maiztasunez aterako dira, instalazioa behar bezala ibil dadin. Hondakin horiek ez dira ibai-ibilgura hustuko aldizkako garbiketa egiten denean; bildu egin beharko dira, kudeatzeko edo zabortegi baimendu batera eramateko. Hala dagokionean, hondoan hustubiderik ez duten depositu iragazgaitzetan gordeko dira. Inoiz ez dira pilatuko euri-uren jariatzearen ondorioz ibilgu publikoa kutsatzeko arriskua egon daitekeen guneetan.

Jardueran edo arazketa-instalazioetan sortzen diren gainerako hondakinei dagokienez (erabateko hustuketa eta biltegitako garbiketa eta abar), indarreko legeriak dioen moduan tratatuko dira, haien izaeraren arabera.

Pabiloien barruan zolatak garbitzean sortutako urak tratamendu-lerrora bidaliko dira, edo, bestela, kudeatzaile baimendu batek kudeatuko ditu.

Hondakin-urak ezingo dira bypass bidez isuri arazketa-instalazioetan.

Programatutako mantentze-lanetan derrigorrez bypass bidez isurketak egin behar badira, titularrak Ingurumenaren gaineko organo honi jakinaraziko dio aurretiaz, segurtasun-neurrien eta isurketak ingurune hartzailearen kalitatearen gainean duen eragina ahal den neurrian gutxitzeko neurrien funtzionamendua zehaztuz. Bypass horretan aurreikusi gabeko isurketaren bat gertatzen bada, titularrak segurtasun-neurrien funtzionamendua egiaztatu beharko du, dagokion txostena ingurumen-organon honi bidalita (puntu honetako «Gorabeheraren bat gertatuz gero, agintariei jakinaraztea» puntuan adierazitakoari jarraituz).

c) Era berean, ustiapenari buruzko eskuliburu bat eduki behar da, eta bertan, aldizka egindako mantentze-lanen berri eman behar da, baita antzemandako gorabeherena ere.

d) Titularrak behar diren bitartekoak izango ditu arazketa-instalazioak zuzen ustiatzeko eta ustekabeko isurketak prebenitzeko hartu diren segurtasun-neurriak abian izateko.

e) Baimenaren titularra den entitateak neurri egokiak hartuko ditu osasunerako edo pertsonen segurtasunerako arriskutsuak izan daitezkeen edo itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoan eta babes-zortasuneko eremuan kalte edo narriaduren bat eragin dezakeen istripuz izandako isurketak ekiditeko.

f) Besteak beste, erabilitako olioak, efluenteen arazketako hondakinak, eta, orokorrean, fabrika sortutako hondakinak maneiatzean, baliteke lurzorua eta ura kutsatzea. Beraz, isurketak, jarioak edo ihesak gertatzeko arriskua duten lurzatien gainazal guztiak irazgaiztuko dira.

g) Hautsezko produktuak biltegitratzeko, silo itxiak edo hautsa xurgatzeko sistemak dituzten pabiloi estali eta itxiak eduki beharko dira.

h) Prozesurako behar diren lehengaiak, erregaiak eta produktuak ingurunean ez sakabanatzeko moduan biltegitratuko dira.

i) Segurtasun-tarteei eta babes-neurriei dagokienez, biltegitratzeko instalazio horiek produktu kimikoak biltegitratzeari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako betebeharrak bete beharko dituzte.

j) Larrialdi-egoeran berehala eta eraginkortasunez jarduteko beharrezkoak diren material guztien behar besteko kantitatea eduki beharko da: berriro ontziratzeke erreserbako edukiontzia, beharrezkoa izanez gero; gerta daitezkeen isuriei aurre egiteko produktu xurgatzaile selektiboak; segurtasuneko edukiontzia, kaltetutako ingurunea isolatzeko hesiak eta seinaleztapen-elementuak, eta banakako babeserako ekipo egokiak.

k) Ontzien hustuketa kontrolatzeko balio duen protokolo edo prozedura dokumentatu bat eduki beharko da. Horren bitartez, instalazioaren eraginkortasunari eragin diezaioketen isurketak tratamendu-instalaziora joatea saihestu beharko da.

l) Materialak ez dira inoiz ere pilatuko solidoak edo lohiak euri-uren jariatzearen ondorioz ibilgu publikoa kutsatzeko arriskua dakarten lekuetan.

- Gorabeheraren bat gertatuz gero jarduteko modua.

Jarduteko protokolo bat eduki behar da, ingurunean ondorio negatibo garrantzitsuak eragin ditzaketen gorabeherak edo anomaliak gertatuz gero erabiltzeko. Protokoloak gutxienez gai hauek zehaztu behar ditu argi eta garbi, gerta daitekeen gorabehera edo anomalia bakoitzerako:

- Egin beharreko jarduketak, hurrengo apartatuan zehazten den jakinarazpena agintariei helaraztea barne hartuta.

- Jarduketen segida.

- Jarduketa bakoitzaren arduraduna(k).

Istripuz isurketarik gertatuko balitz, berehala geldiaraziko da.

Hondakinak desagertu edo galtzen badira, edo ihesen bat gertatzen bada, berehala jakinaraziko da gertatutakoa ingurumen-organoan eta jarduera kokatuta dagoen udalerriko udalean.

- Gorabeheraren bat izanez gero, agintariei jakinaraztea.

Ingurunearen edo jardueraren kontrolaren gainean kalteak eragin ditzakeen gorabeheraren edo ezohiko gertaeraren baten aurrean, sustatzaileak berehala eman beharko dio gorabehera edo ezohiko gertaera horren berri ingurumen-organoari (zuzentzeko edo eusteko neurri egokiak hartu ondoren), horretarako ezarritako helbide elektronikoko hauek baliatuz: [ippc@euskadi.eus](mailto:ippc@euskadi.eus) eta [inspeccionambiental@euskadi.eus](mailto:inspeccionambiental@euskadi.eus). Jakinarazpenean alderdi hauek adierazi beharko dira gutxienez:

- Gorabehera mota.

- Jatorriak eta arrazoiak (unean bertan zehaztu daitezkeenak).

- Zuzenketa- edo euste-neurriak, berehala aplikatu direnak.

- Sortutako ondorioak.

- Epe laburrera aurreikusitako jarduketak, halakorik balego.

Gorabehera edo anomalia larriren bat edo istripuzko isurketa edo emisioaren bat izanez gero, berehala jakinarazi beharko zaie SOS DEIAKi, instalazioak hartzen dituen udalerriko udalari, Uraren Euskal Agentziari ([alertak-isurketak@uragentzia.eus](mailto:alertak-isurketak@uragentzia.eus) helbide elektronikora idatzita) eta ingurumen-organo honi. Gerora, gehienez ere 48 orduko epean, istripuaren gaineko txosten xehatua aurkeztu beharko zaio ingurumen-organoari ([ippc@euskadi.eus](mailto:ippc@euskadi.eus) eta [inspeccionambiental@euskadi.eus](mailto:inspeccionambiental@euskadi.eus) helbide elektronikotara idatzita) eta Uraren Euskal Agentziari. Txosten horretan, datu hauek agertuko dira gutxienez:

- Gorabehera mota.

- Gertakaria non, zergatik eta zein ordutan gertatu den.

- Haren iraupena.

- Isurketa istripuz gertatuz gero, emaria eta isuritako materialak eta ingurune hartzailean antzeman daitekeen eragina zehaztu beharko dira, haren analisisa barne hartuta.

2025eko uztailaren 31, osteguna

- Mugak gaindituz gero, isurketei buruzko datuak.
- Eragindako kalteen balioespena.
- Hartutako zuzenketa-neurriak.
- Anomalia berriro ez gertatzeko prebentzio-neurriak.
- Prebentzio-neurri horiek eraginkortasunez aplikatzeko aurreikusitako epeak.

Baimenaren baldintzak urratzen dituen isurketa gertatzen bada eta, gainera, pertsonen osasunerako arriskutsua bada edo sistema naturalen oreka modu larrian kaltetu badezake, titularrak berehala etengo du isurketa hori; horrez gain, horren berri eman beharko die Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioko Uraren Euskal Agentziari eta babes zibilean zein ingurumenaren arloan ardurak dituzten organismoei, baita SOS DEIAK (112) larrialdi-zerbitzuei ere, behar diren neurriak har ditzaten.

Aurreko apartatuetan xedatutakoa betetzeak ez du esan nahi isurketa eragin duen jardueraren titularra salbuetsita dagoenik indarrean dagoen araudiarekin bat eska lekizkiokeen erantzukizunetatik.

Aldez aurretik ezarritakoaz gain, gerta daitezkeen gorabeherak edo arazoak saiheste aldera, jardueraren titularrak berehala jakinarazi beharko dio ingurumen-organoari instalazioko edozein etenaldi programatu izango dela, prozesu etengabe batekoa bada, baita aurreikusitako mantentze prebentiboak ere, ahalik eta denbora-tarte handienarekin.

Baimen hau izan arren, titularrak isurketak laboreetan, animalietan, arrain-faunan, pertsonetan edo ondasunetan eragin ditzakeen kalteengatik izan dezakeen erantzukizun zibila izaten jarraituko du, eta, beraz, kalte-ordaina emateko betebeharra izango du. Era berean, ez du salbuetsiko delitu ekologikoak arautzen dituen legeriaren ondoriozko erantzukizun penaletik.

Halaber, isurtzeko baimena hirugarrenei kalterik egin gabe eta jabetza-eskubidea salbu utzita eman da, lege-zortasunak gorde edo lehengoratzeko betebeharrarekin.

Horrez gain, isurtzeko baimena berrikusi, baliogabetu eta ezeztatu ahal izango da, Kostaldeei buruzko 22/88 Legea Betearazteko eta Garatzeko Erregelamendu Orokorren 115. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako baldintzetan.

Larrialdi-egoeretan, babes zibilari buruzko araudian ezarritakoa bete beharko da, eta araudi horretan ezarritako baldintza guztiak bete beharko dira.

Ingurumen-baimen bateratua bete ezean, sustatzaileak behar diren neurriak hartu beharko ditu ziurtatzeko ahalik eta lasterren beteko dela.

- Lurzoruak paira litzakeen eraginak detektatzea.

Ekainaren 25eko 4/2015 Legeak 22. artikulua 2. apartatuan dioenaren arabera, lurraren kutsadura-aztarnak aurkitzen badira, horren berri eman beharko zaie dagokion udalari eta ingurumen-organo honi, hark ezar ditzan hartu beharreko neurriak, aipatutako 4/2015 Legearen 23. artikulua 1.e apartatuari jarraikiz betiere.

Datu hauek aurkeztu beharko dira, lurzoruak paira lezakeen eragin ororen aurrean:

– Aintzat hartutako aldiaren izan diren gorabeherak, substantzia arriskutsuak direla-eta lurzoruaren eta lurpeko uren kutsadura sortu ahal izan dutenak.

– Instalazioan hartutako neurrien egoera —zolak iragazgaiztea, drainatzeak, ontziak eta kutxatila— bai eta larrialdi-egoeran jarduteko bitarteko egokiak eta nahikoak erabilgarri daudela egiaztatzen duen adierazpena, teknikari eskudunak sinatua. Ekipamenduak eta gainazalak egoera onean daudela egiaztatzen dituen edo, hala badagokio, horietan hautemandako gabetasunak azaltzen dituen berriazko adierazpena izan beharko du.

– Lurzorua edo lurpeko urak kutsatuta egon daitezkeelako adierazpena, halakorik badago, edo, bestela, horrelako aztarnarik ez dagoela egiaztatzen duen adierazpena.

Apartatu honetan jasotakoa betetzeko aurkeztu beharreko informazioa lehen aipatutako urriaren 10eko 199/2006 Dekretuan xedatutakoaren arabera egiaztatutako entitate batek egin beharko du, hala nola organo honek horretarako onar ditzakeen jarraibideetan adierazitakoaren arabera.

#### ATALA: INGURUMEN-ERANTZUKIZUNA – BALDINTZA OROKORRAK

##### INGURUMEN-ERANTZUKIZUNAREN INGURUKO BALDINTZA OROKORRAK

– Ingurumen-erantzukizuna.

Baimeneko baldintza partikularretan instalazioa ingurumen-erantzukizuneko araudiaren esparruan kokatzen bada (arauaren III. eranskina) sustatzaileak bere jarduera profesionalaren ingurumen-arriskuen azterketa (IAA) egin beharko du, abenduaren 22ko 2090/2008 Errege Dekretuaren 34. artikuluan ezarritakoaren arabera (zeinaren bidez onartzen baita Ingurumen Erantzukizunari buruzko urriaren 23ko 26/2007 Legea zati batean garatzen duen Erregelamendua), finantza-bermea eratu behar duen ebaluatzeko, 26/2007 Legearen 24. artikularekin bat etorritik. Finantza-bermea eratu ondoren, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko dio agintaritzari eskudunari, eta adierazpen horrek 2090/2008 Errege Dekretuaren IV.1 eranskinean adierazitako informazioa jaso beharko du gutxienez. 26/2007 Legearen 28. artikuluko a) eta b) apartatuetan adierazitako salbuespenei jarraikiz jarduera finantza-bermea eratzetik salbuetsita badago, erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dio agintaritzari eskudunari; adierazpen horretan, IV.2 eranskinean adierazitako informazioa jasoko da gutxienez. Apartatu honetan eskatutako agiriak ingurumen-organon aurkeztuko dira, teletramitaziorako ezarritako aplikazioa erabiliz, eta, zehazki, «Ingurumen-erantzukizunari aurre egiteko finantza-bermearen jakinarazpena – MARMA» izeneko prozeduraren bidez.

Sustatzaileak ingurumen-arriskuen azterketa (IAA) eguneratuko du, egoki irizten dion guztietan eta, nahitaez, ingurumen-arriskuen aurreko analisietan aurreikusitako erreferentziako ustekabeko egoera aldatzen duen jardueran funtsezko aldaketak gertatzen direnean edo instalazioan edo baimen substantiboan funtsezko aldaketa bat gertatzen denean. Finantza-bermearen zenbatekoa urtero eguneratuko da, KPlaren arabera. Ingurumen-arriskuen azterketaren eguneraketak kasuan kasuko MARMA prozedurako dokumentazioaren barnean aurkeztuko dira.

Jardueraren operadoreak ingurumen-kalteak prebenitzeko, saihesteko eta konpontzeko neurriak hartu eta betearazi behar ditu, eta haien kostuak ordaindu behar ditu, zenbatekoa edozein dela ere, baita dolorik, errurik edo zabarkeriarik ez bada ere, Ingurumen-erantzukizunari buruzko urriaren 23ko 26/2007 Legearen 19.1 artikuluan adierazten den bezala. Era berean, sustatzaileak ingurumen-organoi berehala jakinarazi beharko dio ingurumenean kalteak izan direla edo kalte horiek eragiteko arriskua dagoela, gertatuak zein gertatzeke.

– Ingurumeneko finantza-bermearen kontrola.

IZPan, dokumentu hauek aurkeztu beharko dira, programa aurkezteko prozedura telematikoan gaitutako dokumentu-ereduak erabilia:

- Finantza-bermea eratu behar izanez gero, indarrean dagoen ingurumen-arloko aseguru-polizaren kopia edo eratutako finantza-berme motaren ziurtagiria aurkeztu beharko da urtean behin.

- Ingurumeneko finantza-bermea eratzetik salbuetsita egonez gero, eta 300.000 eta 2.000.000 euro bitarteko zenbatekoarekin konpon daitezkeen kalteak eragin ditzaketen operadoreak izanez gero (Ingurumen-erantzukizunari buruzko urriaren 23ko 26/2007 Legearen 28.b artikulua), organismo independente batek emandako ziurtagiriaren kopia aurkeztu beharko da urtero; ziurtagiri horrek egiaztatu behar du operadoreak etengabe atxikirik egon behar duela Batasunaren Ingurumen Kudeaketako eta Ikuskaritzako Sistemara (EMAS) edo indarrean den UNE-EN ISO 14001 Ingurumen Kudeaketarako Sistemara.